

# HERNANI ETA HERNANIARRAK

## Mendeetako zertzeladak

# HERNANI Y LOS HERNANIARRAS

## Retazos de siglos

Antxon Aguirre Sorondo



Antxon Aguirre Sorondo, donostiarra, es autor de más de una docena de libros y de tres centenares de monografías y artículos sobre el pasado, las costumbres y los modos de vida del pueblo vasco, a cuyo estudio lleva dedicado más de dos décadas.

Entre dichas obras, cabría destacar los títulos: *"TRATADO DE MOLINOLOGIA (LOS MOLINOS DE GUIPUZCOA)". "GUIA DE FIESTAS POPULARES DE GUIPUZCOA", "ESTELAS DISCOIDALES DE GIPUZKOA. ORIGEN Y SIGNIFICADO", "SAGARDOA, LA SIDRA (DESDE EL ARBOL HASTA EL VASO)", "EL VIAJERO PRECAVIDO (TODO LO QUE USTED QUERIA SABER ANTES DE VIAJAR PERO TEMIA PREGUNTAR)", "ASTIGARRAGA Y SUS CASAS CONSISTORIALES / ASTIGARRAGA ETA BERTAKO KONTZEJU-ETXEAK"* y *"LAS ERMITAS DE EIBAR". "SUPERSTICIONES POPULARES VASCAS", "VETERINARIA POPULAR VASCA"* y *"EL RITO FUNERARIO EN EUSKAL HERRIA".*

ANTXON AGUIRRE SORONDO

# HERNANI ETA HERNANIARRAK
## (Mendeetako zertzeladak)

# HERNANI Y LOS HERNANIARRAS
## (Retazos de siglos)

Agurra / Saludo

JOSÉ ANTONIO REKONDO,
Hernaniko Alkatea / Alcalde de Hernani

kutxa fundazioa fundación

Donostia-San Sebastián, 1998

Lankide / Colabora:
HERNANIKO UDALA / AYUNTAMIENTO DE HERNANI

Egilea / Autor:
ANTXON AGUIRRE SORONDO

Euskera:
SHARE, S.L.

Depósito Legal S.S. 1.340/97
ISBN: 84-7173-321-8

**"GURE HIRIAK" BILDUMA / COLECCION "NUESTRAS CIUDADES"**
**Argirarapena / Edición**
Kutxa GIzarte eta Kultur Fundazioa
GIPUZKOA DONOSTIA KUTXAren Gizarte Ekintza

Fundación Social y Cultural Kutxa
Obra Social de Kutxa, CAJA GIPUZKOA SAN SEBASTIAN

31 de Agosto, 30 Tels. (943) 42 44 78 - 42 81 34 - 42 66 01
20003 Donostia-San Sebastián

**Inprimaketa eta Fotokonposaketa / Impresión y Fotocomposición:**
Itxaropena, S.A.

Guztiz debekatuta dago liburu hau bere osoan edo zati batean erreproduzitzea, hala nola edozein sistema informatikotan edo bestelako almazenamendu edo informazio-lorpenekotan sartzea eta edozein modutan edo dena-delako baliabide erabiliz transmititzea, baliabide hori elektronikoa, mekanikoa, fotokopia, grabazio nahiz bestelako metodozkoa izanda ere. Kutxa Gizarte eta Fundazioaren aldez aurretiko eta idatzizko baimenik gabe.

Queda totalmente prohibida la reproducción total o parcial de este libro, así como su incorporación a cualquier sistema informático u otro tipo de almacenamiento o recuperación de información y su transmisión en cualquier forma o por cualquier medio, sea éste electrónico, mecánico, por fotocopia, por grabación u otros métodos, sin el permiso previo y por escrito de la Fundación Social y Cultural Kutxa.

ANTXON AGUIRRE SORONDO

# HERNANI ETA HERNANIARRAK
## (Mendeetako zertzeladak)

# HERNANI Y LOS HERNANIARRAS
## (Retazos de siglos)

Uste oneko hernaniar eta
zoritxarreko karlista,
nire arbasoei.

A mis antepasados,
hernaniarras de buena fe
y carlistas de mala ventura.

# Aurkezpena

Ez da aurreneko aldia, ezta gutxiago ere, Kutxak eta honen Gizarte eta Kultur Fundazioak, zentzu zabalean, Hernaniri buruzko obrak argitaratzen dituztela, Kutxaren Argitalpen-Katalogoan ikus daitekeenez. Orain aurkezten den liburu hau interesgarria da eta berezia ere bai hainbat alderditik begiratuta.

Hasteko esan behar da, zorrotz egindako liburua dela. Ia hogei urteko ikerketa eta estudioren emaitza baita. Ohizko dokumentazio-iturriez gain, oso informazio aberatsa lortu da, bertako bizilagunek zuzenean ekarri dituzten kontaketa eta ekarpenei esker. Horregatik, gehitu beharko litzateke, herri-ekarpenezko osagai bat ere baduela liburu honek.

Obrak badu, gainera, zerbait berria ere, Hernaniren eboluzio historikoaz gaur arte ikutu gabeko puntuak ere tratatzen baititu. Antxon Aguirre Sorondoren asmoa ez da Hernaniri buruz tratatu historiko bat egitea, ezta tratatu duen puntu bakoitzean ezin gehiagoraino sakontzea ere. Aitzitik, egin nahi duena eta lortu duena herriko bizitzaz miszelanea edo saski-naski erakargarri bat egitea izan da, ikuspegi humanoei dagokienez batez ere.

Emaitza irakurleak eskuartean daukan obra hauxe da. Lan serioa, interesgarria, eta daukan kontaera atseginagatik aixe irakurtzeko modukoa. Hainbat arazo agertzen dira hemen, hala nola, Hernaniren sorrera eta fundazio ofiziala, horren etimologia, Hernaniko armarriaren esanahia, denboretan zehar izan dituen muga geografikoak, Hernaniren borrokak eta auzokoekin eta kanpotarrekin zeuzkaten harreman onak, egitate edo mugimendu historikoetan izan duen parte-hartzea.

Hurbilpen historiko batean klasikotzat jotzen diren arazo hauek, ederki batean gainditzen dira bertan, obran zehar komunikabideei, ekonomiari, medikuntzari, bizitza erlijiosoari, industriari, burdinolei, dibertsio eta festei eta beste etab. mardul askori ematen zaien estudioari eskerrak.

Gauza izan da Hernani froga asko gainditzeko eta marka handiak egiteko historian zehar, eta ia beti garai desberdinetan agertu diren hernaniar ospetsu ugarien eskutik egin du. Pertsona eta pertsonaje horiek hortxe sortzen dira obra honetako orrialdeetan zehar, eta behar bada, hauxe da liburu honetako ekarpenik erakargarriena.

Ikuspegi honetan insistituz, liburuak baditu eranskin batzuk ere; horietako bat da, hainbat arrazoirengatik ospetsuak diren hernaniarren izendegia, hasi XVI. mendetik eta gaurdaino.

Obra honen irakurketa amaitzean, seguruenik irakurleak informazio handiagoa izango du Hernaniri buruz, eta gainera, bera bizi den, edo sarritan bisitatzen duen, edo doi-doi ezagutzen duen, lekuaren hautemapena ere askoz bitalagoa eta sakonagoa izango du. Horientzat guztientzat eta oro har historian interesatutako guztientzat idatzi da liburu hau.

**Kutxa** Gizarte eta Kultur Fundazioa

# Presentación

No es la primera vez, ni mucho menos, que Kutxa y su Fundación Social y Cultural dan a la luz pública obras referentes a Hernani en sentido amplio, como puede verse en su Catálogo de Publicaciones. Este nuevo libro que ahora se presenta es interesante y diferente desde distintos puntos de vista.

Para empezar, es un libro riguroso. Es el resultado de casi dos décadas de investigación y estudio. Además de las fuentes habituales de documentación, entre las que destacan los archivos, se ha obtenido una rica información a partir de narraciones y aportaciones directas de los vecinos. Por ello, habría que añadir que este libro tiene un componente de aportación popular.

La obra tiene además un carácter novedoso, en cuanto recorre aspectos no tocados hasta hoy del devenir histórico de Hernani. No pretende Antxon Aguirre Sorondo presentar un tratado histórico sobre Hernani, ni una profundización extremada de cada aspecto tratado. Por el contrario, busca y consigue una atractiva miscelánea sobre la vida de la villa, especialmente en los aspectos humanos.

El resultado es esta obra que el lector tiene en sus manos, una obra seria, interesante, y bien fácil de leer por su amenidad. Aquí aparecen cuestiones como los albores de Hernani y su fundación oficial, su etimología, el significado de su escudo, sus delimitaciones geográficas a lo largo del tiempo, sus luchas y sus buenas relaciones con vecinos y extranjeros, su participación en hechos o movimientos históricos.

Estas cuestiones que se consideran clásicas en una aproximación histórica quedan superadas por el estudio de las comunicaciones, la economía, la medicina, la vida religiosa, la industria, las ferrerías, las diversiones y fiestas, y un jugoso etcétera.

Hernani ha sido capaz de superar muchas pruebas y de marcar hitos notables a lo largo de la historia, y casi siempre lo ha hecho de la mano de los muchos hernaniarras de relieve que han aparecido. Esas personas y personajes van surgiendo en las páginas de esta obra, y quizá constituyan la aportación más atractiva de este relato.

Insisitiendo en este aspecto, el libro cuenta con algunos anexos, uno de los cuales es la nómina de hernaniarras afamados por razones varias, hernaniarras desde el siglo XVI hasta hoy mismo.

Al término de la lectura de la obra, probablemente el lector tenga no solamente más información sobre Hernani, sino una percepción mucho más vital y profunda del lugar donde vive, o que visita frecuentemente, o que simplemente conoce. A todos ellos, y todos los interesados en la historia en general, va dirigido este libro.

Fundación Social y Cultural **Kutxa**

## AURKIBIDEA / INDICE


Agurra, José Antonio Rekondo, Alkatea / Saludo, por D. José Antonio Rekondo, Alcalde .............. 10/11

Eskerrona / Agradecimientos .............. 13

Sarrera / Introducción .............. 15

Prehistoria eta hilobi-kultura / Prehistoria y cultura funeraria .............. 19

Ingurune naturala / El medio natural .............. 23

Hernani Gipuzkoaren barne / Hernani, en Gipuzkoa .............. 29

'Erria-ni' / 'Yo, el pueblo' .............. 39

Gerrak eta heroiak / Sobre héroes y guerras .............. 47

Elkarte bizitza / Vivir en comunidad .............. 55

Adostasun eta desakordioak / Concordias y discordias .............. 67

Bideak, garraioak eta komunikabideak / Caminos, transportes y comunicaciones .............. 73

Mens sana... .............. 87

...In corpore sano .............. 91

Industria baino lehen / Antes de la industria .............. 99

Ofizioak eta hornidurak / Oficios y abastos .............. 115

Ondare erlijiosoa / Patrimonio religioso .............. 125

Hernani festetan / Hernani se divierte .............. 151

Halakoak izango gara, hala ikusten bagaituzte / Así somos, si así nos ven .............. 165

Oroitzeko hernaniarrak / Hernaniarras para la memoria .............. 171

Dokumentu gehigarriak / Anexos documentales .............. 187

# Agurra

Jose Antonio Rekondo, Alkatea

Aski ezaguna zaigun irizpide honen arabera, alegia beren iragana kontutan ez daukaten herriek bide hori errepikatzeko arriskua jokatzen dutela, esan daiteke baita herri batzuek, mendeetako irakasbidea aintzat hartuz, ez dutela beren historia errepikatzeko beldurra zertan izanik. Eta halaxe da, Hernaniko herriaren biografiak badu elkarte baten izatea goraipatzeko edukirik. Horregatik, bada, merezi du ezagutzera eta zabaltzera eman dezagun ahalegintzea.

Urteetako azterlanaren ondotik, Antxon Aguirre Sorondok liburu zehatz, atsegin eta, izenburutik hasita, esanguratsu bat eskaintzen digu: HERNANI ETA HERNANIARRAK. Esan gabe doa, historiaren giza-neurriak izan dituela egileak gogoan, zinez interesgarri dakigukeen ikuspegia, nolanahi ere, geure izatea zertxobait ulergarriago egiteko eta kanpotarrei geure hau ezagutzera emateko bidean.

Gainera, Agustindar Lekaimeak Hernanira etorri zireneko 450 urteurrenarekin batera heldu zaigu liburua, monastegi hau delarik gure ondare historiko aberatsaren lekuko nagusienetariko bat.

# Saludo

D. José Antonio Rekondo, Alcalde

Dando la vuelta al conocido principio según el cual los pueblos que no tienen en cuenta su pasado corren el riesgo de repetirlo, puede también afirmarse que algunos pueblos, tras tomar buena nota de las enseñanzas de los siglos, no tendrían empacho en revivir su historia. El nuestro es uno de ellos. Porque la biografía de Hernani contiene todo cuanto dignifica la existencia de una comunidad, y por ello es merecedora de su conocimiento y difusión.

Después de años de estudio, Antxon Aguirre Sorondo nos brinda un libro riguroso y ameno que significativamente titula HERNANI Y LOS HERNANIARRAS para subrayar su interés por la dimensión humana de la historia. Un volumen que nos ayudará a comprendernos un poco mejor a nosotros mismos así como para darnos a conocer ante los forasteros.

Con esta edición, además, conmemoramos el 450 aniversario de la presencia de las Madres Agustinas en Hernani, monasterio que constituye uno de los principales patrimonios de nuestro rico bagaje histórico.

# Eskerrona

Liburu bat egin eta bide horretan argi izan diren pertsonak eskertzeko garaia etortzean, barkagarri ez diren hutsegiteak burutzeko arriskua izan ohi dugu. Eta gure kasuan are nabarmenago gertatzen da arrisku hau. Izan ere, hernaniar askotxoren aipamena egin beharko genuke. Ez zaigu batere erraza, ordea, guztiak bat-banaka aipatzea, hainbat izan baitira urteetan zehar beren ezagutza baserri, zubi, errota, ermita... herriaren lehena eta orainari buruz xehetasunak eman dizkigutenak.

Hala bada, guztiekin kunplitzea ezinezko zaigula onarturik ere, ez dugu bakar batzuk bazterrera uzterik nahi, zeren eta neurri batean azterlan honen egilekidetzat baitauzkagu. Lehenengo eta behin Joxe Garin zenari eskaini nahi diot hunkipenez beteriko oroitzapena, Hernaniko Udal Artxiboko arduradun zen garaian hain txeratsuki hartu izan ninduelako beti.

Era berean, udaletxeko enplegatuei erakutsi nahi diet eskerrona gure lehenaren aztarnak arakatuko banituen bitarteko bikaina izan zaidalako hauen pazientzia.

Gero, Donostia eta Iruñeko eliz artxiboetako zuzendari diren Jose Antonio Garro eta Jose Luis Sales jaunak hurrenez hurren, aspaldidanik beren lankidetzaren emaitza ederra jaso ahal izan dudalako.

Liburu honen orrialdeetan dozenaka aipatzen dira Tolosako Protokolo-Artxiboko dokumentuak; bertako arduradun diren Imakulada Gonzalez eta eta Maria Ramirez andereak eskertzen ditut, ezinbesteko lankideak izan baititut liburua osatzeko.

# Agradecimientos

Al abordar la siempre pertinente tarea de agradecer a cuantos han hecho posible la existencia de un libro, corremos el riesgo de caer en omisiones imperdonables. En nuestro caso este riesgo es aún más evidente, pues deberíamos empezar mencionando uno por uno a todos los vecinos de Hernani que a lo largo de los años nos han participado cuanto sabían sobre caseríos, puentes, caminos, molinos, ermitas, historias en fin del pasado y el presente de su villa.

Aceptando, pues, que nos resulta imposible cumplimentar debidamente este capítulo, no renunciamos sin embargo a mencionar a cierto número de personas que, en gran medida, deben considerarse coautores de esta monografía. Desde estas primeras líneas quiero rendir un emocionado recuerdo a la memoria del entrañable José Garín, que desde su puesto de encargado del Archivo Municipal de Hernani me enseñó a adentrarme en ese sanctasanctórum donde se contienen algunos de los más hermosos testigos de la historia de Hernani.

Agradezco a los empleados del Ayuntamiento hernaniarra por su paciencia infinita con este investigador a quien han ayudado a rastrear todos los vestigios de nuestro ayer.

A los directores de los archivos diocesanos de Donostia y Pamplona, José Antonio Garro y José Luis Sales respectivamente, que desde hace años me privilegian con su desinteresada colaboración.

En las páginas de este libro aparecen decenas de documentos pertenecientes al Archivo de Protocolos de Oñati; sus responsables, Inmaculada Gon-

Azkenik, bihoakio nire eskerrona eta adiskidantza zintzoa Koldo Lizarralderi, lagun izan dudalako hainbat ermita, errota, bide, mendi... bisitatzerakoan. Bere ondoan, besteak beste, gauza bat ikasi dut, adiskide on batek zer balioa duen, eta berau lankide denean, are handiagoa.

zález y María Ramírez, son artífices de que ello haya sido posible.

Por último, debo expresar mi agradecimiento y sincera amistad a Koldo Lizarralde, con el que he visitado ermitas, molinos, caminos, montañas... A su lado he aprendido que no hay mayor gloria ni satisfacción comparable a la de contar con un gran amigo que además sea un admirable colaborador.

# SARRERA

Historia luzea bezain trinkoa duen herria da Hernaniko herria, aitzindari industriagintzan, eta aski aberatsa ondare artistiko nahiz kulturalean, eta iragan betea izan duenez, berebiziko garrantzia duten orrialdeak idatzi dituena. Hau dioena urte multzo handi batean jardun da ikertzen eta azterlanean. Hala, egundainoko datu multzo handia jaso ahal izan du Hernaniko herri-bizitzaren inguruko hainbat aspektu bilduz, gertatu den husgune historiografiko hori, ez dugu ulertzen zergatik, beteko duen liburu erakargarri, zehatz eta interes handiko bat egunen batean argitara emateko asmotan.

Egon badaude, bi behintzat, Hernaniko herriari buruzko monografia orokorrak: bata, *Apuntes para una historia de la Noble, Leal e Invicta Villa de Hernani,* Udal idazkari izan zen Salustiano Gastamintzarena, Donostian 1913an argitara emana eta Luis Murugarren Zamora historiagilearena bestea, *Hernani: su historia e instituciones* (Sociedad de Ediciones y Publicaciones. Donostia, 1970).

Ugariagoak dira Hernaniren lehenari buruzko azterlan partzialak puntu desberdinak jorratuz. Hauetarik Mari Lurdes Soriaren lizentziaturako lan garrantzitsua aipatu behar da *Los hombres y los bienes de la villa de Hernani entre 1585 y 1650,* Fernando Garcia Cortazarren zuzendaritzapean egina eta AKPk 1982an argitara emana. Argitaragabea baina ez inola ere baztertzekoa Fernando de Santiago Urkijoren tesi doktorala herriko medikuntzaren gainean (Udal Artxiboan kontsulta daiteke). Bestalde, Luis Blas Zuletak 1985ean Udalaren babespean argitara eman zuena daukagu: *Hernani entre dos guerras: 1872-1936. Medio siglo de vida de Hernani,* oso luzea ez den idazlana baina interes handiko aspektuak besarkatzen dituena, zalutasunez eta egoki idazten duelarik.

# INTRODUCCION

Es Hernani una villa de larga e intensa historia, pionera en lo industrial, opulenta por su patrimonio artístico y cultural, y con un denso pasado que ha escrito algunas páginas trascendentales. A lo largo de casi dos décadas de investigación y estudio, quien esto escribe ha acumulado un inmenso caudal de datos relativos a muchos aspectos de la vida cotidiana en Hernani con la intención de un día poder elaborar un libro atractivo, riguroso e interesante que llenara el vacío historiográfico que, incomprensiblemente, rodea a la población.

Porque monografías generales sobre Hernani solamente hay dos: los *Apuntes para una historia de la Noble, Leal e Invicta Villa de Hernani,* del antiguo secretario del Ayuntamiento Salustiano Gastaminza, editada en San Sebastián en 1913, y la del historiador Luis Murugarren Zamora titulada *Hernani: su historia e instituciones* (Sociedad de Ediciones y Publicaciones. San Sebastián, 1970).

Más abundantes son los estudios parciales sobre distintos aspectos del ayer de Hernani. Entre ellos destaca el importante trabajo de licenciatura de María Lourdes Soria sobre *Los hombres y los bienes de la villa de Hernani entre 1585 y 1650,* dirigido por el doctor Fernando García de Cortázar y editado por la CAP en 1982. Inédita pero no por ello desdeñable es la tesis doctoral de Fernando de Santiago Urquijo sobre la medicina en la villa (en el Archivo Municipal se puede consultar una copia). Luis Blas Zuleta publicó en 1985, bajo el patrocinio del Ayuntamiento, *Hernani entre dos guerras: 1872-1936. Medio siglo de vida de Hernani,* texto que pese a su brevedad abarca aspectos de gran interés, tratados con agilidad y buena pluma.

Aunque, por supuesto, hemos estudiado con la debida atención estas obras e incorporado a nuestro



Hernaniko herriaren ikuspegi orokorra 1961ean.
Vista general de Hernani en 1961.

Esan gabe doa arreta handiz aztertu ditugula delako obra hauek eta funtsezko ziren berriak jasotzeko bidea egin dugu gurean, baina eskuetan duzun liburu honek neure ikerlanaren emaitza biltzen du funtsean. Horretarako, Hernaniko herriari buruz mendetan zehar gure artxibo nagusietan gorde diren aztarna nagusi guztiak bildu ditugu. Hala nola:

Merkataritza, Industria eta Nabigazio Ganbarako Artxiboa. Donostia
Armadaren Artxibo Kartografikoa. Madril
Elizbarrutiko Artxiboa. Iruñea
Elizbarrutiko Artxiboa. Donostia
Udal Artxiboa. Andoain
Udal Artxiboa. Donostia
Udal Artxiboa. Hernani
San Telmo Museoko Artxiboa. Donostia
Artxibo Nazionala. Madril

trabajo lo que de ellas consideramos sustancial, el libro que aquí comienza se basa esencialmente en la investigación propia en archivos. A tal objeto, hemos rastreado todos los vestigios que sobre Hernani han quedado depositados al paso de los siglos en los principales archivos del país:

Archivo Cámara de Comercio Industria y Navegación de Donostia-San Sebastián
Archivo Cartográfico del Ejército en Madrid
Archivo Diocesano de Pamplona
Archivo Histórico Diocesano de Donostia-San Sebastián
Archivo Municipal de Andoain
Archivo Municipal de Donostia-San Sebastián
Archivo Municipal de Hernani
Archivo Museo San Telmo de Donostia-San Sebastián
Archivo Nacional de Madrid

Protokolo Artxiboa. Oñati
Protokolo Artxiboa. Tolosa
Artxibo Probintziala. Tolosa

Irakurle soil batek pentsa lezake agian behin ikerlana biltzen denez geroztik ez daitekeela batere gauza zaila izan liburua moldatzea. Ez da egia, orduan hasten baitira, ez iruditu arren, arazoak. Hautaketa lana egin behar izaten da hainbat eta hain material ezberdinen artean: dokumentu historikoak, herritarren artean eginiko galde-sortak, irakurketa bibliografikoei buruzko oharrak eta iturri desberdinetatik jasotako informazioa. Halako metaketa egiteak zorroztasuna eskatzen du eta idazlan egoki bat moldatzeko xehetasun multzo bat aintzat hartzea. Izan ere, laburbiltzeko garaian, datu batzuk hartzeak eta beste batzuk baztertzeak, berekin dakar egileak Historiaz zer-nolako ideia daukan ere. Alabaina E.H.Carr handiak dioen bezala "historiagileari ez zaio hautatzeko lana beste biderik geratzen: lengoaiaren erabilpena bera du debeku neutralitateak. Eta ez da hitzen kontua bakarrik".

Hemen proposatzen duguna, halere, dibulgazioliburu bat egitea da eta irakurterraza izango dena, nahiz eta ziurtasun handienez jokatu nahi den, Hernaniko herriaren lehenari buruz gaurdaino eman ez diren aspektu argigarriei dagokienean. Ez da Hernaniko "Historia Orokorra" egitea gure asmoa, baizik eta Hernaniko herriaren mendeetako biziaberastasunen berri ematea. Bigarren ale bat izan dezake jarraian. Hara, Hernaniko gizarte historiari buruz oraindaino egin den hurbiltzapenik garrantzitsuena duzu, hor eguneroko bizitzarekiko interesa nabarmentzen delarik, eta aspektu etnografikoak edota sozializazio-formak "historia ofiziala" delakoaren zenbait ikuspuntu albora utziz (tarte bat hartzen badute ere obraren barne). Halatan bada, izenburutik hasita, gure ahaleginak historiaren aurpegi "gizatiarra" nabarmentzeko joera erakusten dugu.

Hain da bikaina eta dinamikoa Hernani eta hernaniarren biografia non orrialde batzuetan hertsatu eta agortu nahi izateak porrotaren bidera eramango gintuzkeen. Hori horrela izanik ere ez dugu etsi nahi idazlan honen lerroak pasatuz Hernani hobekiago ezagutzeko bidea irakurleari erakusten, eta honek, zertxobait gehiago maita dezan ahaleginak egiten. Eta gainera geure oraina hobekiago ulertzeko laguntza badira orrialdeok, agintzariz eta erronkaz beterik heldu den geroa bera ere esperantza handiagoz hartuko dugu.

Archivo Protocolos de Oñati
Archivo Protocolos de Tolosa
Archivo Provincial de Tolosa

El lector profano quizá piense que, una vez completada una investigación, la tarea de preparar un libro resulta un mero trámite. Nada más lejos de la realidad. Pues, paradójicamente, la sobreabundancia de legajos históricos, de encuestas de campo realizadas sobre los más diversos motivos entre los vecinos, añadido a las notas de lectura bibliográfica y a otros materiales recogidos de diversas fuentes, reunían un conjunto de tal magnitud que nos ha obligado a un concienzudo y detallado trabajo de selección. Porque a la hora de resumir y aquilatar hay que tomar unos datos y desechar otros, lo que implica tomar decisiones que, sin duda, revelan la idea que de la Historia tiene el autor. Como dice el gran E.H.Carr, "el historiador no tiene más remedio que elegir: el uso del lenguaje le veda la neutralidad. Y no es sólo una cuestión de palabras".

Lo que aquí proponemos es un libro divulgativo y de atractiva lectura pero sin merma del debido rigor, que ilumina aspectos hasta hoy inéditos sobre el devenir histórico de Hernani; no pretendemos elaborar una "Historia General" de Hernani sino una rica miscelánea sobre la vida en la villa en el transcurso de las centurias que podrá tener continuación en un segundo tomo, al punto de constituir la más importante aproximación hasta hoy realizada a la historia social de Hernani, donde se prima el interés por la vida cotidiana, los aspectos etnográficos o las formas de socialización en detrimento de otras facetas que pertenecen a la "historia oficial" (que no podemos evitar ocupen también un lugar en la obra). De ahí que, ya desde el mismo título, confesamos nuestro interés por la cara más "humana" de la historia.

La biografía de Hernani y de los hernaniarras es tan espléndida y dinámica que la pretensión por aprehendarla y encorsetarla en un puñado de páginas es un empeño condenado al fracaso. Pero no por ello nos resignamos a que el lector, recorriendo sus líneas, conozca un poco mejor a Hernani y, con ello, la ame un poco más. Si además logramos comprender un poco mejor nuestro presente, podremos afrontar con esperanza el futuro que desde hoy llama a la puerta preñado de promesas y de desafíos.

# PREHISTORIA ETA HILOBI-KULTURA

Esan beharrik, herri, nazio edo kultura ororen gainetik gizakia dela Historiaren subjektu aktiboa eta protagonista. Horregatik, "Hernani" izeneko herriaz hitzegiten hasi aurretik, beronen lurralde barneko giza-aztarnak arakatzen hasiko gara, prehistoriara jotzen dugularik.

Gure mendietako hegi eta lepoetan megalito aroko lekuko interesgarrien bilduma daukagu, esan nahi baita harrizko monumentuak ditugula, duela milaka urte bizi izan ziren haien hilobi-kulturaren ezaugarri direnak. Igoain-Akola zonaldean kokaturik, lau trikuharri Akolako Lepoan, eta Arritxietakoa, Igoiain Lepoko biak eta Sagastieta Lepoko bikotea. Harrespilei dagokienean, berriz, Oindi-Mandoegin kokatuak: Antxista, Etzela, Etzioko Soroa, Etzioko Tontorra, Muniskue Gaina eta Unamuno. Azkenik, tumulu bat ere aipagarri zaigu Oindi-Mandoegin, Etzelako Txokoa deitzen dena.

Munduan diren lehendabiziko giza-ehorzketak Musteriar garaikoak dira, Erdi-Paleolito arokoak (K.a. 75.000/60.000 eta 35.000 urteak bitarte). Garai honi dagozkio Ekialde Ertaineko eta Frantziako zenbait haitzuloetakoak[1]. Alabaina, hezur isolatu batzuk baino ez dira ezagutzen euskal lurrean eta hauek argi gutxi ematen dutenak garai haietako komunitate barreiatu haiei buruz.

Nekazaritzaren eta etxeabereen garapena dira Neolito aroko seinalerik nabarmenenak. Berebiziko gorakada ekarri zuten aurrerapen hauek demogra-

[1] ARMENDARIZ, A. *La idea de la muerte y los rituales funerarios durante la Prehistoria en el País Vasco.* "Enfermedad y muerte en el pasado". Munibe aldizkaria, 8. zk. gehigarria. Aranzadi Zientzi Elkartea. Donostia, 1992, 15. or.

# PREHISTORIA Y CULTURA FUNERARIA

Anterior a todo pueblo, nación o cultura es el hombre, sujeto activo y protagonista de la Historia. Así, antes de comenzar a hablar de un núcleo de población llamado "Hernani", debemos sondear las primeras huellas humanas en su territorio, remontándonos con ello a la prehistoria.

Las estribaciones montañosas de nuestra jurisdicción conservan una colección de testigos privilegiados de la era megalítica, es decir monumentos de piedra que son expresión de la cultura funeraria de las gentes que aquí vivieron hace varios miles de años. Dólmenes como los cuatro de Akolako-Lepua, el de Arritxieta, los dos de Igoingo-Lepua y la pareja de Sagastietako-Lepua, todos ellos en la zona de Igoain-Akola, y la serie de cromlechs de Onyi-Mandoegi: Altxista, Etzela, Ezioko-Soroa, Ezioko-Tontorra, Mulisko-Gaina y Unamene. Por último hay un túmulo también en Onyi-Mandoegi al que se denomina Etzelako-Txokoa.

Los primeros datos de enterramientos humanos en el mundo datan de la época Musteriense, en el Paleolítico Medio (75.000/60.000 al 35.000 a.C.). A este período corresponden los hallazgos en el interior de algunas cuevas del Oriente Medio y en Francia[1]. Sin embargo, en tierra vasca sólo se conocen algunos huesos aislados que informan poco de las costumbres de aquellas comunidades dispersas.

El desarrollo de la agricultura y la domesticación de los animales son los rasgos más sobresalientes del Neolítico. Estos avances técnicos produ-

[1] ARMENDARIZ, A. *La idea de la muerte y los rituales funerarios durante la Prehistoria en el País Vasco.* En: "Enfermedad y muerte en el pasado". Revista Munibe, suplemento nº 8. Sociedad de Ciencias Aranzadi. Donostia, 1992, p. 15.



Sagastietako Lepua-I trikuharria.
Dolmen de Sagastietako Lepua-I (Trikuharria)

fiaren aldetik, eta hor kokatu behar dira aipatu nahi ditugun hilobi mota haiek: ordukoak dira lehen nekropoliak. Euskal Herri zaharrean, aldiz, Neolito aroa aurrera zihoanekoak dira lehenbizikoak. Euskal nekropolien parekoak dira Marizulo (Urnieta, Gipuzkoa) haitzuloko aztarnak, non gizaki baten hezurrak aurkitu ziren, K.a. 5.286 (± 65) urte aldera hil zen batenak (Epipaleolito aroa). Nabarmentzekoa da kasu honetan uzkurturik azaltzen zaigula gizakia eta zakur bat eta arkume bat lagun dituelarik, burua mendebaldera eta oinak ekialdera, eguzkiaren gurtzari zegokionez.

Kristo aurreko laugarren milakoan azaltzen dira monumentu megalitiko handiak, gorpu askoren hilobi izango direnak: trikuharriak. Harri zuti zenbaiten gainean harri zabal handiak ezarrita, mahai tzar handi bat bailitzan moldaturik daude trikuharriak. Euskaraz *trikuharri* hitza dugu erabiliena, baina beste hitz batzuk ere ezagunak zaizkigu gutxi-asko bitxiak direnak, *sorginetxe* edo *jentilarri* esaterako. Gisa honetako eraikuntza litikoen aztarnarik zaharrenak Portugal, Bretainia eta Ipar Europan kokatzen dira. Trikuharriaren diztira, hilobi-kulturaren ardatz modura esan nahi da, K.a.

cen un espectacular aumento demográfico, al que no serán ajenas las modalidades funerarias: de entonces datan las primeras necrópolis. En la vieja Vasconia apenas se conocen necrópolis hasta muy avanzado el Neolítico. Coetáneos sin embargo a las necrópolis vascas son los restos de la cueva de Marizulo en Urnieta (Gipuzkoa), donde se halló a un individuo cuya existencia terminó hacia el 5.286 (± 65) antes de Cristo (periodo Epipaleolítico). Es de destacar en este caso que el individuo aparece flexionado y acompañado de los restos de un perro y un cordero, con orientación este-oeste, posición que corresponde a un culto solar.

En el cuarto milenio antes de Cristo aparecen los grandes monumentos megalíticos que albergarán también inhumaciones colectivas: los dólmenes. El dolmen se configura como un conjunto de piedras colocadas más o menos verticalmente y que soportan una o varias lajas horizontales, formando así una especie de mesa de piedra. Su nombre genérico en euskera es *trikuarri,* si bien reciben también otras muchas y variopintas denominaciones como *sorginetxe* o *jentillari.* Los más antiguos testimonios de este tipo de construccio-

2.500-1.800 urteak bitarte kokatu zen eta Brontze Aroarekin batera heldu zen gainbehera.

Baina, gauza jakingarria, kontinentearen alderdi askotan milaka urte geroago ere gorpuak haitzuloetan ehortziko dira. Ez-ezaguna zaigu zergatik batzuek beren senideak haitzuloetan ehorzten dituzten eta beste batzuek trikuharrien baitan, nahiz eta pentsa daitekeen pentsamolde eskatologiko edo haraindikoaren arrazoiak izan zirela tartean.

Bi trikuharri mota ezagutzen dira funtsean Euskal Herrian: soilak eta txikiak, mendialdekoak, eta haran eta ordekako trikuharriak, "korridore" deituak, egitura errektangularrekoak eta pasabidea dutenak, zenbait kasutan gelatxoa ere bai. Neurriz handiagoak dira behealdeko trikuharriak gehienetan mendikoak baino, nahiz eta hain ugariak ez diren, zeren eta oraindaino aztertu direnetarik %95a eredu soileko edo mendikoak dira. Multzo honetan sartu behar dira Hernanikoak ere.

Hildakoen orientazioa bezalaxe (burua mendebaldera eta oinak ekialdera) trikuharriak ere eguzkiari buruz kokaturik daude: mendikoek ekialdetik dute sarrera, eta bien bitartean hegoaldetik korridore deituek. Ertaroko kristau kulturak bereganatu egin zuen eguzkiari buruzko ohitura hau eta nola gorpua ehorzteko jarreran hala garraiatzerakoan, eta berdin elizen orientazioan zehazki errespetatzen zuten delako "orientazio sakratua".

Gure aroko lehen milakoan komunitate berriak etorri ziren Pirinio mendien iparraldetik, metalgintzaren zeregina zekartelarik. Metalgintzak bizimodu finkoagoa zekarren eta orduan sortu ziren hanhemenka kastroak edo herriskak, horietan familia zenbait finkatu zelarik. Laborantza ere bazuten, aski trauskila izan arren, eta abeltzaintza mendi hegaletako larre aberatsez baliaturik. Jabego-sistema zertxobait konplexuagoari hasiera eman zion eta hildakoei buruzko kultura berria sortu zen: errausketa zeritzana. Gorpuak sutan kiskaltzen ziren eta hauen errautsak harrespil edo harrizko egitura handi baten barne ehorzten. *Jentilbaratza* ere deitzen da euskaraz. Harriz osaturiko zirkulu bat da funtsean eta horren erdian kokatzen dira hildakoaren errautsak.

Haurrak beste modu batera ehorzten ziren, eta kasurik gehienetan bizitegiaren aterpean ehortzi ere. La Hoyako (Biasteri, Araba) bizitegietako zorupean 269 haurren ehorzketa aurkitu ziren. Ez dago harritzekorik ezer: Euskal Herrian duela belaunaldi asko ez dela bataiatu gabeko haurren

nes líticas se localizan en Portugal, Bretaña y norte de Europa. El esplendor del dolmen como eje de una cultura funeraria concreta se sitúa entre el 2500 y el 1800 a.C. y su decadencia llegó con la Edad de Bronce.

Pero, curiosamente, en algunas zonas del continente se seguirá durante miles de años abandonando los cadáveres en cuevas. La razón por la cual unos entierran a sus seres queridos en cuevas y otros en el interior de los dólmenes nos son desconocidas, aunque todo lleva a pensar en distintas concepciones escatológicas o del más allá.

En Euskal Herria se conocen esencialmente dos tipos de dólmenes: los simples y pequeños, típicos de montaña, y los dólmenes ubicados al fondo de los valles o en llanuras, llamados "corredor" por su estructura rectangular a modo de pasillo y en ocasiones con una cámara. Los dólmenes de zonas bajas son generalmente de mayor tamaño que los de montaña, aunque su número es menor, ya que el 95 % de los estudiados son del tipo simple o de montaña. A este último grupo pertenecen también los de Hernani.

Al igual que la orientación de los difuntos (la cabeza en el oeste y los pies al este), también los dólmenes estaban ubicados en referencia al astro solar: los de montaña tenían la entrada mirando al este, mientras que los de corredor se abren hacia el sur. La cultura cristiana medieval heredó estas tradiciones relacionadas con cultos solares y tanto en la disposición de los enterramientos, en el traslado de los difuntos hasta su última morada, como en la ubicación de las iglesias se respetaba escrupulosamente la "orientación sagrada".

Hacia el primer milenio antes de nuestra Era nuevas comunidades irrumpen desde el norte de los Pirineos, cuyo principal activo es el dominio de los metales. El trabajo con metales implica una forma de vida más sedentaria en castros o pequeños poblados que agrupan a varias familias, quienes ejercitan una agricultura aún rudimentaria y también la ganadería aprovechando los ricos pastos de los montes. Se desarrolla un sistema de propiedad ya más complejo y una nueva cultura mortuoria: la incineración. Los cuerpos se combustionan al fuego y sus cenizas se introducen en el interior de grandes estructuras de piedras o cromlech. El cromlech, *jentilbaratz* en euskera, se estructura como círculo de piedras en cuyo centro alberga las cenizas del difunto.

gorpuak etxearen alboan ehortzi ohi ziren, teilatuko hegalpean hain zuzen. Hau horrela egiten bazen haur errugabeak "etxearen babespean" geratzea zen xedea.

Los niños merecían otro tratamiento, y la mayor parte de las veces se enterraban debajo de los hogares. Sólo en el poblado de La Hoya (Alava) se encontraron 269 enterramientos infantiles bajo el suelo de las viviendas. No hay razón para la sorpresa: en Euskal Herria hasta hace algunas generaciones, a los niños fallecidos sin bautizo se les inhumaba junto a la casa, exactamente bajo el alero. Esto se hacía para que así los santos inocentes pudieran permanecer "bajo el techo de la casa".

# INGURUNE NATURALA

Santa Barbara mendiaren hegalpean aurkitzen da Hernani, hirigunea bera gaintxo batean kokatua (itsas mailatik 43 metrotara), hortik begira jarrita, bere oinetatik doan Urumea ibaiaren ibarra ederki ikus daitekelarik.

Hona zeintzuk diren koordenatu geografikoak:

Ekialdeko longitudea: 1º 41' 40'
Mendebaldeko latitudea: 43º 16' 25"

Honako muga hauek ditu Hernaniko lurraldeak: Donostia eta Lasarte iparraldetik; Astigarraga, Arano eta Elduain hegoaldetik; Donostia eta Errenteria ekialdetik, eta Urnieta, Lasarte eta Zubieta auzoa mendebaldetik. Hara, 9,26 Km.ko distantzia du Donostiako erdigunera.

Kareharriz osaturik dago, zenomaniar horietakoaz, Santa Barbara mendia (247 m.) iparraldera okermendu bat duelarik. Hirigunetik hurbil eta kareharriaren azpian arbel margotsuak aurkitzen dira, lignito kapak hauen artean. Beronen lurraldearen zati handi bat, bidezko den bezala, Urumeak garraiaturiko alubioi-lurrez estalia dago. Santa Barbara mendiaz aparte, Urdaburu daukagu (602 m.) Errenteria eta Donostiaren mugetan, Azketa (bere 836 m.rekin Hernaniko gailurrik altuena Elduaingo mugan), Igorin (456 m. mugalerro egiten duena Donostiarekin, Landerbaso aldean), eta Oindi (550 m. Urnietako mugan). Horra zertan den bere orografiaren aberastasuna.

Industrializazio aurretik nola izango zen bertako laborantza eta flora ikusteko, 1831ko deskribapen bat dakarkizuegu:

> "Zorua halaber aberatsa eta emankorra du. Arrosa zuriak, horiak, soilak eta bikoitzak aurkituko dituzu, urrebotoi, tulipa, iltze-belar, hatzamar, krabelin, ihi, anemona, jasmin, krabelin txinatar, ezkai, izpiliku, albahaka, erromero, txalota. Aza klase ezberdinak, errepoiloak, zernahi letxu mota, zaintzuri, porru, azenario, harbi, erremolatxa ubel

# EL MEDIO NATURAL

Hernani se encuentra en las faldas del monte Santa Bárbara, con el casco sobre un altozano (a 43 metros sobre el nivel del mar) desde donde se domina toda la vega del Urumea que discurre a sus pies.

Sus coordenadas geográficas son:

Longitud oriental: 1º 41' 40'
Latitud septentrional: 43º 16' 25"

La jurisdicción de Hernani linda al norte con San Sebastián y Lasarte, al sur con Astigarraga, Elduain y Arano, al este con San Sebastián y Rentería, y al oeste con Urnieta, Lasarte y el barrio donostiarra de Zubieta. Dista 9,26 kilómetros del centro de Donostia-San Sebastián.

El monte Santa Bárbara (a 247 m.s.n.m.) es de terreno calizo cenomanense con buzamiento al norte. Cerca de la villa y bajo las calizas hay pizarras margosas y entre ellas capas de lignitos. Parte de su terreno, como es natural, está cubierto por tierras de aluvión aportadas por el Urumea. Además del citado Santa Bárbara, los montes de Urdaburu (602 m.s.n.m., lindando con Rentería y San Sebastián en la zona de Oberan), Azketa (con sus 836 m.s.n.m. es la cumbre más alta de Hernani, en vecindad con Elduain), Igorin (de 456 m.s.n.m., hace de frontera con San Sebastián en la zona de Landerbasoa), y Oindi (550 m.s.n.m., lindando con Urnieta) enriquecen también su orografía.

Para hacernos una idea de cómo sería la agricultura y la flora en nuestros términos antes de la industrialización, traemos aquí una descripción del año 1831:

> "El suelo es igualmente delicioso y fértil. Hay rosas blancas, amarillas, sencillas y dobles, renúnculos, tulipanes, clavos, pasioneras, claveles, junquillos, anémonas, jazmines, clavellinas, tomillo, espliego, albahaca, romero, chalota. Hay berza de diferentes especies, repollos, lechugas de mil clases, espárragos, puerros, alcachofas, gui-

edo gorri, hori edo zuri, eskarola, baratxuri, kardabera, eskortzonera, patata, kalabaza, meloi, sandia, perrexila, espinaka, mingarratza, azelga, borraia, atxikoria, marrubi, apio, latxorten, berro, tomate, biper handi, biperrak...".

Beste fruitu eta zuhaitz askoren gain, Hernaniko faunaren zerrenda osatzen du, besteren artean, "azeri, basurde, otso, ahate, uso, hegabera, oilagor, istingor, galeper eta faisaiak" aipatuz[2].

Hona zenbat buru zeuden Hernanin 1812an: 98 idi, 214 behi eta 5 zaldi, eta aldi berean probintzia guztiak beste honako kopuru hau ematen zuen: 9.053 idi, 10.085 behi eta 1.088 zaldi.

Zumaian 1848an ospatu ziren Batzar Nagusietan hartu zen Gipuzkoan zuhaitz landaketa berriak egiteko erabakia, ongarri gisa Peruko guano simaurra ekartzea, kalitate hobereneko ardiak sartzea eta lanabesen hobekuntza, horretarako batzorde berezi bat sortu zelarik hori aztertu eta horren segimena egingo zuena. Harrez gero hasi ziren ganadu-lehiaketak gurean ugaltzen ("ganadu erakusketak" deitzen ziren) urtero edo bi urtez behin, esaterako, Lazkao, Bergara, Azpeitia eta Hernanin[3].

Oraino mende honen hasieran populazioaren gehiengoa laborantza eta abeltzaingora dedikaturik zegoen, hamaika zirelarik ermandade edo elkar bermatzeko ganadu-aseguruak. Probintziako hamar behitegitarik bi Hernaniko herrian kokatzen ziren: Villa Anita, Luis Larrauri jabea 16 behi eta 16 hektarea lurrekin, eta Markelin, Jose Manuel Aizpurua jabea, 10 behi eta beste horrenbeste hektarearekin.

## URUMEA IBAIA

Zuaznabar kronistak honela ulertzen zuen 1831an Urumea hitzaren etimologia, "ur mia" (ur mehea) bezala, nahiz eta "urre sotila" ere uler omen zitekeen, zeren eta antzinako istorio batek zioenez urrezko bihiak aurkitzen ziren ibai honen uretan[4].

Nafarroako Basaburua eskualdean jaiotzen da, Goizueta baino harago. Handik eta harat Biandiz mendi hegaletik datozen urak hartzen ditu Añarbe ibaiaren bitartez (gaur egun urtegi handi bat dago bertan Donostia eta inguruko herriak edateko urez

[2] J.V. *Hernani en 1831*. Euskal Herriaren Adiskideen Elkartea, 3. zk. Donostia, 1953, 465-469 or.

[3] MUGICA, Serapio. *Provincia de Guipúzcoa. Geografia General del País Vasco-Navarro*. Alberto Martin ed. Bartzelona, s/f, 475 or.

[4] J.V. *Op.cit.* 467. or.

santes de varios géneros, habas, cebollas, zanahorias, nabos, remolacha morada o coloradas y amarillas o blancas, escarola, ajo, cardo, escorzonera, papa, calabaza, melón, sandía, peregil, espinaca, acedera, acelga, borraja, achicoria, fresa, apio, mastuerzo, berro, tomate, pimientones, pimientos...".

Además de muchas otras frutas y árboles, la relación se completa con la fauna de Hernani, que incluía "zorros, jabalíes, gamos, lobos, patos, percazas, avefrías, becadas, becacines, codornices y faisanes" entre otras especies[2].

El censo de cabezas de ganado en Hernani el año 1812 era el siguiente: 98 bueyes, 214 vacas y 5 caballos, mientras que el conjunto de la provincia en esas mismas fechas sumaba 9.053 bueyes, 10.085 vacas y 1.088 caballos.

En las Juntas de la Provincia celebradas en Zumaia en 1848 se acordó emprender planes de fomento del arbolado en Gipuzkoa, la extensión del guano de Perú como abono, introducir ganado lanar de mejor calidad y perfeccionar los útiles de labranza, creándose una comisión permanente para su estudio y seguimiento. A partir de entonces empezaron a celebrarse concursos de ganadería (se llamaban "exposiciones de ganados") con carácter anual o bianual en Lazkao, Bergara, Azpetia y Hernani[3].

Aún a principios de siglo la mayoría de la población se dedicaba a la agricultura y la ganadería, siendo once las hermandades o sociedades ganaderas de seguros mutuos. Entre las diez granjas más importantes de la provincia dos pertenecían a Hernani: Villa Anita, de Luis Larrauri, con 16 vacas y 12 hectáreas, y Markelin de José Manuel Aizpurua, con 10 vacas y el mismo número de hectáreas.

## EL URUMEA

En 1831 el cronista Zuaznabar interpretaba la etimología del nombre de Urumea como "agua delgada", aunque también pudiera significar "oro sutil" dado que, según una antigua tradición, en sus aguas podían encontrarse granos de oro[4].

[2] J.V. *Hernani en 1831*. Boletín de la Real Sociedad Bascongada de Amigos del País, nº 3. San Sebastián, 1953, pp. 465-469.

[3] MUGICA, Serapio. *Provincia de Guipúzcoa. Geografía General del País Vasco-Navarro*. Alberto Martín ed. Barcelona, s/f, p. 475.

[4] J.V. *Op.cit.* p. 467.



Karabeleko zubiaren litografia.
Litografía del Puente de Carabel, en Hernani.

hornitzeko), eta, bi mendion artean kurrituz, Urdaburu (iparraldetik) eta Adarra (hegoaldetik) hor datorkigu zeharka-meharka guregana.

Fagollagara heltzen delarik, hortik aurrera ez baitu aldaparik, lasaiago kurritzen du, eta hau da antzina Donostiatik hona txanela eta gabarrak ibiltzeko nabigagarri izatearen arrazoia.

Hernanira hurbildu ahala, ibaiadar askoren ekarria bereganatzen du. Eskuinetik, Aparrain, Ezkaitz, Usoko, Epele eta Martindegi, eta Sagarreta, Olaberri, Bezkita, Saratsain, Txonkuaneko, Portu eta Latsunbe ezkerretik. Hernaniko barrunbean portu garrantzitsua zuen garai batean. Ergobia zeharkatuz, Astigarragan barna doa Urumea, eta Loiola pasatuz Donostiara heltzen da, Zurriolan itsasoratzen delarik.

Urumea eta bere ibaiadarrak indar eragile izan dira historian zehar hainbat untzi edo tramankulurentzat. Ikus Hernaniko partean ezagunak zaizkigun errotak esaterako: Franko, Karabele, Eziago, Osinaga, Epeleko, Ereñotzu, Pikoaga, Beheko-Errota eta Pagoaga; Urnietan, aldiz, Errotaberri eta Trankatx; Astigarragan Murgi eta Mazkarrene eta Donostira joanez gero, berriz, Mateo, Agirre, Errotaberri, Anoeta, Errotatxo, Juandegi eta Santia-

Tras manar en el valle navarro de Basaburua, más allá de Goizueta, el joven riachuelo recoge las aguas que bajan del monte Biandiz formando el río Añarbe (hoy con un gran embalse que alimenta de agua potable a Donostia y alrededores) y, discurriendo entre los montes Urbaburu (al norte) y Adarra (al sur), serpentea por el valle.

Dada su menor pendiente, una vez que llega a Fagollaga el Urumea se desliza más lentamente, razón de que antaño fuese navegable desde San Sebastián hasta allí para txanelas y gabarras.

En Hernani recibe el caudal de los afluentes de Aparrain, Ezkaitz, Usoko, Epeleko y Martindegi por su derecha, y Sagarreta, Olaberri, Bezkite, Sagatzain, Txonkueneku, Portu y Latzuembe por su izquierda. Ya en términos de Hernani, el río disponía de uno de sus más importantes puertos. Pasando por Ergobia el Urumea baña la jurisdicción de Astigarraga y, por el barrio de Loyola, llega a San Sebastián para desembocar en la barra de la Zurriola.

A lo largo de la historia, el Urumea y sus afluentes han servido de fuerza motriz a un buen número de ingenios hidráulicos. Sólo en términos de Hernani conocemos la existencia de los molinos de

go. Zerrenda honi gutxienez bost gehitu beharko litzaizkioke Nafarroako partean, guztira 24 "errota" behintzat osatzen direlarik. Horietan ez dira sartzen burdinolak, hurrengo atalean ikusiko denez, ibaia eta bere adarrei esker bizi izan zirenak. Ororen buru, Urumea izan da Gipuzkoako alderdi honen dinamizatzaile ekonomiko nagusienetariko bat.

Donostia eta Hernaniko udalbatzek, elkarrekin eta amankomunean, urtero errentan hartu ohi zuten ur hauetan soilik berek izokinaren arrantza egiteko eskubidea. Eta hala, 1564 urtera arte bi udalerri horietako biztanleek ez zuten "Zilegi-Lurrak" deitu zonaldean arrantza egiteko eskubiderik. Egia, horretarako egindako dokumentuak sei urterako balioa bazuen ere, iduri du mugagabea izan zela delako baimen hau[5].

Aipaturiko 1831ko testuan besterik ere esaten da, alegia ugari zirela Urumea ibaian "aingira, eskalu, barbarin, amuarrain, xipa, izokin eta xirlak"[6].

Nostalgiari utziko dizkiogu Urumea ibaiko egurats-ibiliak mendearen hasieran oraino hain modan egon zirenak. Zernahi gabarra ikus zitekeen argitxiki eta zintaz apaindurik, Donostiatik irten eta Loiolaraino heltzen zirelarik, eta hor hainbat jolastoki ere bai ordu ederrak gozatzen pasatzeko.

## ORIA IBAIA

Garai batean Hernaniko lurraldetik zehar kurritzen zuen Oria ibaiak, zeren eta gaur egun Lasarte-Oria udalerriaren zati handi bat Hernani baitzen.

Hara, 1582an proiektu handioso bat planteatu zen, Oria ibaia Tolosatik eta Oriora arte nabigagarri egitekoa. Eta Felipe II.a erregeak berak urte horretako uztailaren 20an agindu bat eman zuen beronen bideragarritasuna azter zedin. Horretarako, korregidorea buru, ekipo tekniko bati eman zion ardura: ibaia, Tolosako Arramele zubitik eta estuarioraino zatika-zatika arakatu ondoan, egingarri zen iritzia agertu eta 12.000 dukateko presupostua finkatu zuten. Uste dugu proiektua aurrera joan ez bazen arrazoia zera izan zela, Felipe II.aren erregealdiko azkenetan izan zen krisialdi gogor hura.

Horren pareko izan zen Tolosako Udalak eragin zuen beste hura ere, Oria ibaia Urumeari elkartzea,

[5] Hernaniko Udal Artxiboa (H.U.A.) A/8/II/1/1.

[6] J.V. *Op.cit.* 466. or.

Sea como sea, lo que nadie discute es que el nombre de Hernani se asocia universalmente al drama de Victor Hugo. Tras una estancia en Madrid, donde su padre servía como oficial del ejército de José Napoleón, en 1812 Victor, a la sazón de diez años de edad, en compañía de su madre y su hermano regresaba a Francia cuando la diligencia se detuvo en Hernani. Algo debió ver, sentir o intuir el futuro escritor en la villa para que su nombre le quedara tan profundamente grabado que muchos años después lo recuperó para dar título al personaje central de la pieza teatral *Hernani o El honor castellano*, que compuso a los 27 años de edad y en sólo ocho días. Estrenada en París en

[22] J.V. *Op. cit.* p. 465.

[23] MODROBEJO, Endika de. *Diccionario etimológico de apellidos vascos*. Bilbao, 1987.



1906ko pergamuaren xehetasuna herriko armei eta armarriari buruzkoa.
Detalle de pergamino de 1906 que trata sobre el escudo y armas de la villa.

1829an. Obra hau izan zen frantses antzerki erromantikoari sorrera eman ziona, literaturako historian eskandalurik handienetakoari bide eman zion leherkaria, "Hernaniko gudua"[24] izenez historiara pasa den antzezlana izateraino.

Bere armarria da gure herriaren identifikaziorako bigarren ikurra. Hernaniko armarriaren deskribapenik zaharrena Lope Martinez de Isasti historiagileari zor diogu[25].

> "Ezaugarri inperialak daramatza arranoaren azpian, eta bereziki armarri berdea eta zilarrezko gaztelu bat ate eta leiho urdinez horniturik, eta urrezko bi lehoi arrapalan eta jarrera zutian, eta zillarrezko laukitxoz osatua".

Koroaren armarriei buruzko errege zen Luis Rubio Gaugak 1906ko pergamino baten gainean

[24] BAEZA, Ricardo. *La Batalla de Hernani.* Pradoko liburutegia. Mexiko, 1985.

[25] MARTINEZ DE ISASTI, Lope. *Compendio Historial de la M.N. y M.L. Provincia de Guipúzcoa.* "La Gran Enciclopedia Vasca"ren berrargitalpena. Bilbo, 1972, 527. or.

1829, con esta obra nace el romanticismo teatral francés cuya eclosión supuso uno de los mayores escándalos de la historia de las letras; aquella primera representación pasó a la historia como "La batalla de Hernani"[24].

El segundo emblema que identifica a nuestra villa es su escudo. La descripción más antigua de las armas de Hernani la debemos al historiador Lope Martínez de Isasti en 1625[25]:

> "Tiene por armas las imperiales debajo del águila, y en particular un escudo verde con un castillo de plata con puertas y ventanas azules, y dos leones de oro rampantes y empinados al castillo, y una orla escacada de plata".

Don Luis Rubio y Gauga, rey de armas de la corona expidió un informe sobre pergamino en

[24] BAEZA, Ricardo. *La Batalla de Hernani.* Librería del Prado. México, 1985.

[25] MARTINEZ DE ISASTI, Lope. *Compendio Historial de la M.N. y M.L.* Provincia de Guipúzcoa. Reedición de La Gran Enciclopedia Vasca. Bilbao, 1972, p. 527.

egin zuen txostena, gaur egun alkatetzan markoan sarturik kontserbatzen dena, herriko armarriari buruz.

Bestetik, Serapio Mujikak aski soilik deskribatzen du zer eta nola den gure armarria[26].

> "Esparru berdean zilarrezko gaztelua, arrapalan dauden bi lehoiren artean sostengaturik".

Hala-hala, 1991ko otsailaren 28ko Batzar Osokoan Udalak aurreko armarriari buruzko aldaketa zenbait onartuz gisa honetan gelditu da:

> "Esparru berdean, zilarrezko gaztelua eta albo bietan urrezko lehoi bana arrapalan".

Gainera, 1997an irizpide teknikoagoa jarraiki, koloreak finkatzeko erabakia hartu da, eta beraz, hemendik aurrera metalak urre eta zilarrean joango dira eta esmalteak Pantone 355-C berdean.

Hernaniko herriari buruzko lehen deskribapenetariko bat, ez da harritzekoa, Lope Martinez de Isasti lezoarrari zor diogu, zeinak bere *Compendio historial de M.N. y M.L. Provincia de Guipúzcoa* 1625eko obran zera baitio[27]:

> "Donostiatik eta errepidea jarraiki, legoa nagusi batera kokatzen da Hernaniko herria: oso antzinakoa da (...) harresiz inguratua, bost portale ditu; berrehun bizilagun dauzka: San Joan Bataiatzailearen izenpean dago eliza, erret zaindaritzakoa da, duela hamar urte bertatik iragan zelarik Felipe III.a erregeak egin zion emaitza, gaurdainokoa dena, eta uste dudanez beste hamar urtetan ere berekin izango duena. Bikario bat eta hiru laguntzaile ditu; eliza ez dago oraino amaiturik".

Gainera, beste zehazpenik ere egiten du Lope Isastik. Hernaniko jauretxeak aipatzen ditu (ez Lasartekoak nahiz eta garai horretan Hernaniren baitan egon hau)[28]: Altzega etxea, Pedro Idiakez jaunarena, elizan aulki nagusia eta hilobia zituena, Ereinozu, Epela, Altzega, Orkolaga, Erratzu, Sagastiaga, Portuzabal, Aierdi, Oarritz, Buskando (hemen izan zuen egoitza Felipe III. erregeak), Arrigoain, Etxerreaga, Lopotsa, Eguzkitza eta Marieluts.

Domingo de Lizasok, bestalde, zera zioen, nahiz eta 1649an Azpeitian jaioa zen, Altzega oinetxe eta jauregia — oinaztarren alderdiko ahaide nagusiena zela gorago ikusia dugunez— eta Hernani bera baino ere aurreagokoa zela, esan behar delarik plaza nagusia eta San Joan Bataiatzailearen parrokia jau-

[26] MUGICA, Serapio. *Op.cit.*, 763. or.

[27] MARTINEZ DE ISASTI, Lope. *Op.cit.*, 527. or.

[28] *Ibidem.*, 98. or.

1906 que hoy se conserva enmarcado en la alcaldía con las armas de la villa. El documento en cuestión costó 400 pts. de las de entonces.

Por su parte, Serapio Múgica describe sucintamente nuestro escudo[26]:

> "Castillo de plata en campo verde, sostenido por dos leones rampantes".

El Pleno del Ayuntamiento del 28 de febrero de 1991 aprobó ciertas modificaciones sobre el escudo anterior, quedando así:

> "En campo de sinople, un castillo de plata y a ambos lados de éste sendos leones rampantes de oro".

Ya en 1997 se ha acordado además fijar los colores con un criterio más técnico, de forma que a partir de esta fecha los metales irán en oro y plata y los esmaltes en verde Pantone 355-C.

Una de las primeras descripciones de Hernani se la debemos, una vez más, al lezotarra Lope Martínez de Isasti, quien en su *Compendio historial de la M.N. y M.L. Provincia de Guipúzcoa* del año 1625 dice[27]:

> "La villa de Hernani está sita una legua grande de San Sebastián sobre el camino real: es muy antigua (...), cercada de muros de piedra con cinco portales; tiene doscientos vecinos: la iglesia de la advocación de San Juan Bautista, del patronazgo real, que ahora diez años pasando el Rey D. Felipe Tercero por esta villa á las entregas le concedió para sí en todo este tiempo; y tengo entendido que le ha hecho merced para otros diez años. Sírvese de un vicario y tres beneficiados; aún no está acabada la iglesia".

Además, incluye Lope Martínez una relación de casas solares de Hernani que son (excluidas las de Lasarte, que en aquellas calendas formaban parte de Hernani)[28]: la casa de Alcega, de don Pedro de Idiáquez, con asiento preeminente en la iglesia y tumba, Ereiñozu, Epela, Alcega, Orcolaga, Errazu, Sastia, Portuzaval, Ayerdi, Oaraiz, Luscando (casa donde se aposentó el rey Felipe III), Arrigurain, Echerreaga, Lopotsa, Eguzquiza y Marielus.

Decía Domingo de Lizaso (nacido en Azpeitia en 1649) que la casa solar y palacio de Alcega —parientes mayores del bando oñacino, como ya vimos— es anterior a la propia Hernani, al punto que la plaza principal y la parroquia de San Juan

[26] MUGICA, Serapio. *Op.cit.*, p. 763.

[27] MARTINEZ DE ISASTI, Lope. *Op.cit.*, p. 527.

[28] *Ibídem.*, p. 98.



Hernaniko armarria.
Escudo de Hernani.

regi honen babespean eta hurbilean eraiki zirela. Gipuzkoar historiagilearen garaietan ez zen aztarnarik ere gelditzen zeren eta Henrike IV. erregearen aginduz 1457an erauzia izan baitzen[29].

Egia, ordea, Hernaniko herriaren hiri-egiturak ertaroko hiribildu ororen hiru ezaugarri klasikoak berekin zituen. Renourd tratadistak garbiro ematen ditu: harresiz inguratua izatea, agintarien egoitza izan zedila eta ofizioko eta beste jarduera osagarridun populazioaren babesleku izatea.

Garai batean mendiska baten gainean kokaturik zegoen Hernani hirigunea, ibar baten bihotzean kokaturik. Oin laukiduna gure probintziako herririk gehienak bezalaxe, eta erromatar Berant Inperioko jokabideak jarraituz, Julio Caro Barojak erakusten zuenez. Luzeran 44 m. zituen eta eki-mendebaldera orientaturik zegoen, hots, eguzkiaren ibilbideari jarraiki eta ipar haizeetatik babesturik; jarrera hau horrela izan zen nola ertaroko hiribilduetan hala prehistoriako trikuharrietan, antzinako kristau elizetan edo Goiz Erdi Aroko hilobietan.

[29] LIZASO. Domingo de. *Nobiliario de palacios, casa solares y linajes nobles de la M.N. y M.L. Provincia de Guipúzcoa.* Gipuzkoako Diputazio Probintziala. Donostia, 1901, 120. or.

Bautista se construyeron al amparo de la señorial mansión y en vecindad con ella. En tiempos del historiador guipuzcoano ya no quedaban vestigios, pues fue demolida por orden del rey Enrique IV en 1457[29].

Lo cierto es que la traza urbana de Hernani reunía las tres condiciones clásicas de toda villa medieval, según estableció el tratadista Renourd; a saber: que estuviera amurallada, que fuera residencia para autoridades, y cobijara una población con oficios y actividades complementarias unas de las otras.

Primitivamente el casco de Hernani, situado en un montículo llano en el corazón del valle, era de planta cuadrilonga al igual que la mayor parte de las poblaciones de nuestra provincia, siguiendo pautas heredades del Bajo Imperio romano, tal como explicaba Julio Caro Baroja. Su longitud era de 44 m. de largo y su orientación este-oeste, es decir siguiendo la trayectoria del sol y al resguardo de los vientos del norte; esta disposición, como vimos, era compartida tanto por las villas medievales como

[29] LIZASO, Domingo de. *Nobiliario de los palacios, casa solares y linajes nobles de la M.N. y M.L. Provincia de Guipúzcoa.* Diputación Provincial de Guipúzcoa. San Sebastián, 1901, p. 120.



Hernaniko plano honek 1838ko gotorlekuaren berri ematen du.
Plano de Hernani con su fortificación 1838.

Hernani, gotorleku zenez, harresiz inguraturik eta alde guztietatik ongi babestua zen, nahiz eta delako Zuaznabar horrek zera esaten duen, jadanik 1831ean irekia zegoela "Santa Barbara mendi aldetik". Garai horretan lau errebal zituen, hauetariko bat Berria deitu plaza eder batek bereizten zuelarik eta bi portale hirigunera sartzeko; bigarren errebala, beste muturrean, udaletxe ondokoa "Madrileko bidean"; hirugarrena honen paralelo eta aski hurbil ekialdetik herri guztiaren luzera zuena, eta laugarrena aurrekoaren azpian, herriaren oinetan eta Urumea bazterrean, Portuba edo Portua deitu parajean[30].

Aipaturiko Plaza Berriak, 1695ean, 15 m. inguru neurtzen zituen luzeran eta 10 zabaleran Martin de Unanue herritar bati udalak idatzitako txosten batean esaten denez. Martin hau, "Oarritz etxeko Lotura eta Maiorazkoa" berekin zuena, plazari lurra kenduz baratza handitu egin zuela eta, salatua izan zen. Adituek neurketak egin eta mugarri berriak ezarri zituzten plazan, ziurtatuz honek 36 ukondo harresia eta Martin Aierdiren etxearen arteko zabaleran eta 25 $^{3}/_{4}$ harresia eta Juan Aristegi kapitainaren etxearen artekoa, berriz[31].

30 J.V. *Op.cit.*, 465. or. eta hurr.

31 Oñatiko Protokolo Artxiboa (O.P.A.). III. atala. 1.272. leg., 269. fol.

por los antiguos dólmenes de montaña, los primeros templos cristianos o los enterramientos altomedievales.

En su condición de plaza de armas, Hernani estaba perfectamente murada y protegida por todos sus flancos, aunque el citado Zuaznabar informa que en 1831 estaba ya abierta "en la parte de la montaña de Santa Bárbara". En aquellos mismos años le rodeaban cuatro arrabales, uno de ellos separado por una hermosa plaza que llamaban Nueva o Berria a la que daban dos portales de acceso al casco; el segundo arrabal estaba en el polo opuesto, saliendo por la puerta de la casa consistorial en el "camino a Madrid"; el tercero, paralelo y casi contiguo en el costado oriental (al este) que se extendía tanto como el pueblo, y el cuarto por debajo del anterior, a pies del pueblo y orillando el Urumea, en el paraje llamado Portuba o puerto[30].

La citada Plaza Berria medía, en 1695, unos 15 m. de largo por 10 de ancho, como se deduce de las explicaciones que se ofrecen en el informe redactado por el Ayuntamiento contra el vecino Martín de Unanue, poseedor del "Vínculo y Mayorazgo de la casa de Oarrayz", a quien se acusa de haber aumen-

30 J.V. *Op.cit.* pp. 465 ss.

Ertaroan zehar, ia etxe guztiak zurezkoak ziren gurean, arteko horma edo karkaba koxkor bat bereizgarri zutelarik. Sute·k, beraz, beldurgarriak izan ohi ziren. Neurriak, aldiz, 12 m. gibelera eta 8 zabalean. Horregatik, harresi barneko Hernaniko herriak 215 bat etxe ingururentzako kabiera zuen. Hasieran, bi oineko eraikuntzak ziren, bata zerbitzuak eta sukaldeak okupatzen zuena, eta goikoa familiaren bizitegia zena, baina denboraren joanean eta demografiak gora egin ahala, altxaerak gehitzen joan ziren[32].

Sukaldean egin ohi zen familiaren elkarbizitza. Sutondoa, orduan, erdian izan ohi zuten eta nahiz haltzariak nahiz sukalde tresnak zurezkoak ziren. Xardeak oraino ez zuen sukaldean existitzen eta soilki gizonezko helduek zeukaten beren labana. Familia ugaria eta bizitegiaren esturak dena elkarrekin konpartitzera eragin ohi zuen, oheak barne. Kanporako leihoak, aski txikiak ziren hotzaren eraginpetik babestuko baziren, eta beraz, argi askorik pasatzen uzten ez zutenak, zeren eta kristala ugaldu zen arte ate-lehio zurezkoez baliatu behar izaten baitzuten, nahiz eta jauregi eta dorretxeetan argizaridun oihalak erabili ohi ziren.

Garai hartako hernaniarren dietan eltzekariak ziren nagusi (dilistak eta babak batik bat) eta barazkiak, hala nola aza, letxu eta porruak; sagarra zen frutarik ezagunena eta horrekin egin ohi zen sagardoa edaritzat. Ardoa beti ere aberats edo dirudunen zerbait zen. Nahikoa eskueran izan ohi zen arraina, eta zerrikia edo hegaztikia zen haragi erabiliena, ehiza edo artzantzako produktuekin konbinatuz. Zerriaren koipea erabili ohi zen gehienbat sukaldaritzan, zeren eta egun handietako elementua baitzen olio “eztia” edo oliba-olioa. Familia bakoitzak egin ohi zuen bere ogia gari, artaxehe eta garagar irina nahasiz, hauek aurrez errotan eiho ondoan.

Ertaroko gizartearen hierarkia-egitura gure kaleetan nabarmentzen zen ongien, non jendaurrean ageri baitzen biztanle bakoitzaren gizarte-maila. Jantzia zen lehenik nabarien zena, merkataritzari esker inon diren jazkera eta ehun-mota guztietarik bazen eta. Artileaz baliaturik oihala egiten zen, gaur egungo oihalaren antzeko zena, eta bestalde, linuaz baliatzen ziren —ohikoa zen baserri bakoitzean linua erein eta etxean ehuna egitea— barneko jantziak egiteko. Jantzi hauen gainetik lodiagoak erabili ohi zituzten (jipoia eta prakak gizonezkoak eta

[32] ARIZAGA BOLUMBURU, Beatriz. *Urbanística Medieval: Guipúzcoa.* Kriselu. Donostia, 1990. 61. or. eta hurr.

tado la huerta de su casa a costa de los terrenos de la plaza. Los peritos examinan y ponen nuevos mojones en la plaza, atestiguando que ésta medía 36 codos de ancho entre la muralla y la casa de Martín de Ayerdi y 25 $^{3}/_{4}$ de ancho entre la muralla y la casa del Capitán Juan de Aristegui[31].

Durante el medievo, casi todas las casas eran de madera, medianeras o apenas separadas por estrechos callizos, condiciones propicias para devastadores incendios, y de unos 12 m. de fondo por 8 de ancho. Por ello, la Hernani amurallada tenía capacidad para unos 215 solares. En principio los edificios se levantaban en dos plantas, una para servicios y cocina y la superior para vivienda familiar, pero con el paulatino crecimiento demográfico fueron haciéndose nuevos levantes[32].

La convivencia familiar se desarrollaba en la cocina, que entonces tenían el hogar en el centro y cuyos muebles y enseres eran de madera. El tenedor aún no formaba parte del ajuar doméstico y sólo los varones adultos disponían de su propio cuchillo. La amplitud de las familias y lo reducido de las viviendas obligaba a compartirlo todo, incluidas las camas. Las ventanas exteriores, de reducido tamaño para protegerse del frío, apenas aportaban luz exterior ya que hasta la generalización del cristal se cerraban con madera, mientras que en palacios y casas-torre se empleaban telas enceradas.

En la dieta de los hernaniarras de entonces abundaban las legumbres (lentejas y habas sobre todo) y hortalizas como la berza, la lechuga o el puerro; entre las frutas predominaba la manzana ya que además servía para la elaboración de la bebida más popular: la sidra (el vino estaba reservado a las clases pudientes). El pescado resultaba bastante asequible, mientras que cerdo y ave eran las carnes de consumo diario en combinación con los productos de la caza y el pastoreo. Para cocinar se empleaban grasas porcinas, puesto que el aceite “dulce” o de oliva era elemento suntuario. Cada familia se fabricaba su propio pan mezclando harinas de trigo, mijo y cebada, cuyos granos se llevaban a los molinos municipales.

La estructura jerárquica de la sociedad medieval tenía su reflejo directo en nuestras calles, donde se exhibía públicamente la condición social de cada habitante. A ello contribuían los atuendos, variados

[31] Archivo de Protocolos Guipuzcoanos de Oñati (A.P.O.). Secc. III. Leg. 1.272, fol. 269.

[32] ARIZAGA BOLUMBURU, Beatriz. *Urbanística Medieval: Guipúzcoa.* Kriselu. San Sebastián, 1990, pp. 61 ss.




Udaletxean izandako leherketa 1875eko irailaren 16an.
Consecuencias de la voladura del Ayuntamiento-Polvorín el 16 de septiembre de 1875.

gerruntze eta gona emakumezkoak), jostura bakarreko soingainekoa gizonezkoak eta soinekoa eta gonatxoa emakumezkoak. Zapatak ziren noblezia, goi-mailako apezak eta jautxoen gizarte-bereizgarria, jende arrunta oinutsik edo landu gabeko larruz etxean eginiko oinetakoekin ibiltzen zelarik. Herbesteko jende guztia harritzen zen gure etxekoandreen daukak ikusita, zeintzuk ehunezko armazoi baten gainean formarik nabarmenenak izan ohi zituzten eta eskualde bakoitzak berea, baina 1570eko apirilaren 18an emandako Erret Agindu batek debekatu egin zituen desegokitzat emanik (irakurle interesatuak kontsulta lezake dokumentu hau Hernaniko Udal Artxiboan)[33].

[33] H.U.A. E/2/1/2.

en su forma y enriquecidos en sus tejidos gracias al desarrollo del comercio. Con lana se confeccionan los paños, equivalentes a las actuales telas, mientras que el lino —habitualmente cultivado y tejido en cada casa— servía para las prendas interiores; sobre éstas iban otras más gruesas (jubón y calzas en los hombres, y corpiño y faldeta en la mujer), y recubriéndolo todo el sayo de una pieza en los varones, y sayuelo y falda en las féminas. Distintivo social de nobles, alto clero y burgueses eran los zapatos, mientras el común de los villanos iba descalzo o empleaba abarcas fabricadas en el hogar con pieles sin curtir. Todos los forasteros se admiraban ante los tocados de nuestras señoras, elevados sobre un armazón con tela de lino en formas extravagantes y que eran distintos y característicos de cada comarca, pero una Real Orden del 18 de abril de 1570 los prohibió por entender que eran obscenos (el lector interesado puede consultar el documento en el Archivo Municipal de Hernani)[33].

[33] A.M.H. E/2/1/2.

# GERRAK ETA HEROIAK

Oso aspaldidanik zeukan Hernaniko jendeak jende kuraiatsu eta gogorraren fama, bizitzako zailtasunei aurre egiteko prestatua zen jendearena eta edozein jauntxoren aurrean burua makurtzeko aski urguilu bazuena. Izaera hezkaitz eta aldi berean noble honen adierazpiderik argiena Juan de Urbieta ospetsua dugu, Karlos V.aren agindupeko soldadu soil bat izanik ez zuen gupidarik izan Frantzisko I.a, Frantziako errege berari aurpegi eman, mehatxatu eta preso hartzeko Paviako guduan 1525ean. Zaldun handikiagoek kendu nahi izan zioten ohorea (ikus *Oroipenerako hernaniarrak* atalean beronen biografia), baina alferrik izan zen: pertsonaia epikoek izan ohi duten halakoxe heroismo eta lotsagabekeriaren nahasketa sotil horrengatik sartu zen historian Juan de Urbieta.

Bestalde, XVI. mendeko urte haiek aintza handikoak izan ziren benetan, baina galerak ere ez ziren txikiak izan. Gertaerarik ezagunena, benetako drama izan zena, harako porrot izugarri hura izan zen Felipe II.ak Ingalaterraren kontra 1588an bidalitako Eskoadra Menperaezina delakoarena. Lisboa izan zuten abiapuntu 130 untzi haiek 27.345 gizonekin, eta hauetarik soilki 10.000 itzuli ziren 66 untzitan. Euskal untzien galera izugarriaz aparte, 503 soldadu gipuzkoar galdu ziren zorigaitzeko egun hartan, zifra gaitza garai haietan. Jose I. Telletxea adiskide miretsiaren liburu bikaina errepasatuz, zera ikusiko dugu, haietarik 22 hernaniarrak zirela, gisa honetan zazpigarren mailan azaltzen delarik Hernani Donostiaren ondotik (128 gizon), Errenteria (38), Oiartzun (36), Pasaia (35), Tolosa (29) eta Irun (27). Garbiro azaltzen du garai hartan Hernaniko herriak itsasorekin zuen harreman eta espedizio militarretan ordaindu zuen prezioa (idazlan honen

# SOBRE HEROES Y GUERRAS

La gente de Hernani desde temprana hora conquistó fama de aguerrida y rocosa, bien preparada para hacer frente a las durezas de la vida y tan sobrada de orgullo que no se inclinaba ante cualquier señor. Quintaesencia de este carácter a la vez indómito y noble es la figura de Juan de Urbieta, héroe local que siendo un simple soldado a las órdenes de Carlos V no le dolieron prendas para plantar cara y amenazar con su estoque al mismísimo Francisco I, rey de Francia, a quien hizo prisionero durante la batalla de Pavía el año 1525. Caballeros de mayor prosapia le quisieron robar el honor (ver su biografía en el capítulo *Hernaniarras para la memoria*), pero fue en vano: Juan de Urbieta entró en la historia por esa sutil mezcla de heroísmo y desvergüenza que tienen los grandes personajes épicos.

Fueron aquellos del siglo XVI, años de grandes glorias y de terribles pérdidas. Uno de los episodios más conocidos por lo dramático es la famosa derrota de la llamada Escuadra Invencible que el rey Felipe II envió en 1588 contra Inglaterra. De Lisboa partieron 130 barcos con 27.345 hombres, de los que sólo unos 10.000 regresaron con vida a bordo de 66 naves. Aparte de la gran pérdida en barcos vascos, 503 soldados guipuzcoanos perecieron en aquella infausta jornada, cifra enorme para la época. Repasando con ayuda del magnífico libro de nuestro admirado José Ignacio Tellechea la procedencia de cada uno de ellos veremos que 22 eran naturales de Hernani, ocupando así nuestra villa el séptimo puesto después de San Sebastián (128 hombres muertos), Rentería (38), Oiartzun (36), Pasaia (35), Tolosa (29) e Irún (27). Ello indica la importancia de la actividad marinera en la Hernani de aquellos días, así como el precio de su aporta-

azkenean ematen dugu delako gudu horretan hildako herritarren zerrenda)[34].

Zenbait kasutan bizia salbatu bai, baina askatasuna galdu ere bai. Hala, Domingo de Sarobe herritarrak diru-laguntza eskatu zien 1584an Batzar Nagusiei bere anaia Juan Martinez de Sarobe jaregin ahal izateko, zeina mairuen eskuetan jausi eta preso baitzegoen Fez hirian. Erakunde nagusiak salaketa egiaztatzeko erabakia hartu zuen (batzarrak bazituen kasu hauetarako agente ikertzaileak), eta Donostian 1587ko apirilaren 20an ospatu batzarrean aditzera eman zen nola 150 dukat ordainduz erreskatatua izan zen, erakundeak 50 eta gainerakoa Martin de Arriola donostiar kapitainak ipini maileguaren bitartez. Etxeratu zelarik, berriro eskatu zion laguntza Batzarrari, ez zuela Arriola kapitainari zorra zerekin ordaindu adieraziz. Probintzian barna limosna biltzen ibiltzeko baimena eman zitzaion. Zoritxarreko Juan Martinez de Sarobe 1590ean hil zenean, eta ondasunak bazituenez baino oinordekorik ez eta Arriola kapitainari 9.508 marabedi zor zitzaizkion oraino, Hernaniko alkateari agintzen zaio saltzeko haren ondasunak eta haiekin kitatzeko zorra, eta are, soberakina gertatuz gero, Batzarrari itzultzeko honek aurreratu zuenaren ordainez[35].

Hernani gerra nagusien eta inkisizio koxkorra frango pairatu duen herria izan da. Behin eta berritan bere kale eta eraikuntzak armen eraginez suntsituak izan dira, eta bertako bizilagunek bortizkeriarik aski jasan beharrean gertatu.

Oraino ez zen Hernani bere onera etorri bederatzi urte lehenago gertatu zorigaitzeko sute hartatik, non 1521ean frantsesen eraso berriaren aurrean gipuzkoarrek armak hartzera jo behar izan zuten. Hara, 1524ean gertatu zen Noaingo gudua, non 3.550 gizon 24 konpainiatan banaturik partaide izan ziren, eta hauetarik hernaniarrak ez gutxi. Andrea Navajero Karlos V.aren aurrean Veneziako enbaxadore zenaren txosten batean zera zioen 1524an, Hernani eta eskualde bereko beste zenbait herri txikituta zeudela frantsesen erasoaren ondorioz.

Atal berri bat idatzi zen 1553ko otsailean, Nafarroako erretorde zen Albako dukearen gudarosteek "Donibane Lohizune herria hartu eta arpilatu zutenean". Badakigu oste honetan hogei herna-

[34] TELLECHEA IDIGORAS, Jose Ignacio. *Otra cara de la Invencible.* "Sociedad Guipuzcoana de Ediciones y Publicaciones". Donostia, 1988, 459. or.

[35] DIEZ DE SALAZAR FERNÁNDEZ, L.M., AYERBE IRIBAR, M.R., *Juntas y Diputaciones de Gipuzkoa.* Gipuzkoako Foru Aldundia. Donostia, 1990. X. alea, 31, 40, 58, 179, 227. or.

ción a las expediciones militares (al final de la obra reproducimos la lista de los vecinos fallecidos en la mencionada batalla)[34].

A veces la vida se salvaba, pero se perdía la libertad. Así el vecino Domingo de Sarobe pidió en 1584 a las Juntas Generales una limosna para el rescate de su hermano Juan Martínez de Sarobe, que cayó en manos de moros en el curso de una batalla y estaba preso en Fez. La institución provincial decide sondear la veracidad de la denuncia (para estos asuntos la Junta tenía agentes investigadores), y en su reunión de San Sebastián del 20 de abril de 1587 notifica que ha sido rescatado mediante el pago de 150 ducados, 50 abonados por la Junta y el resto por un préstamo del capitán donostiarra Martín de Arriola. Ya de regreso, Sarobe pide de nuevo ayuda a la Junta pues carece de medios para pagar su deuda con Arriola, y se le autoriza a pedir limosna por la provincia. A la muerte del infausto Juan Martínez de Sarobe en 1590, y dado que tenía bienes pero no herederos y que al capitán Arriola aún le faltaban por cobrar 9.508 maravedís, se decreta que el alcalde de Hernani venda sus bienes y con ellos liquide la deuda e incluso, si sobra, se reintegre lo que la Junta adelantó para su rescate[35].

Hernani ha sufrido el azote de grandes guerras y de pequeñas inquisiciones. Repetidas veces sus calles y edificios han sido víctimas de la acción destructora de las armas, en tanto que sus vecinos han soportado el quebranto moral que supone esa máxima expresión de la corrupción que es la violencia.

Todavía no se había recuperado Hernani del terrible incendio de nueve años antes, cuando en 1521 una nueva invasión francesa obliga a los guipuzcoanos a coger las armas. En 1524 se produce la batalla de Noain, en la que intervinieron cerca de 3.500 hombres organizados en 24 compañías, con participación de combatientes hernaniarras. Según refiere en una descripción Andrés Navajero, embajador de Venecia ante Carlos V, aún en 1524 Hernani y otros pueblos de la comarca permanecían reducidos a escombros como consecuencia de la entrada de los franceses.

Un nuevo capitulo se escribe en febrero de 1553, cuando las tropas del duque de Alba, virrey de

[34] TELLECHEA IDIGORAS, José Ignacio. *Otra cara de la Invencible.* Sociedad Guipuzcoana de Ediciones y Publicaciones. San Sebastián, 1988, p. 459.

[35] DIEZ DE SALAZAR FERNÁNDEZ, L.M, AYERBE IRIBAR, M.R. *Juntas y Diputaciones de Gipuzkoa. Diputación Foral de Gipuzkoa.* San Sebastián, 1990. Tomo X, pp. 31, 40, 58, 179, 227.

niar zirela partaide. Erresumako frontera erasotua izatearen mehatxupean Hernanik 400 gizon bidali zituen "ongi armatuak" Behobiako mugara (orduan Hondarribia) 1579an, gero 1597an errepikatu zen ekintza bera burutzera.

Luzaro gabe, 1618an Hogeitamar Urtetako Gerra delakoa lehertu zen, zio politiko eta erlijiozkoak izan zituen gatazka Austria etxearen eta frantses koroaren artean. Hondarribia mehatxatua izan zenez, Hernanitik 23 bolondres irten ziren hara abenduaren 28an eta astebete geroago itzuli ("jokaera oneko" ziurtagiri eta guzti), beharrezko militar indarrak heldu zirenean. Fronterako mugalerroa babestarren, probintziak deialdi bat luzatu zuen 1625ean eta 4.000 gizon mobilizatzeko bidea egin, hauetarik Hernanikoak 150. Gure lurraldea baketan sartu beharrean, 1636ko urriaren 23an gaztelau gudarosteek, Bidasoa zeharkatu eta Zokoa, Ziburu eta Donibane Lohizune hartu zituzten: erasotzaileen artean 110 hernaniar aurkitzen ditugu. Arrazoi nagusi bat gazte jendea espedizio horietan parte hartzera bultzatzeko erabili ohi zena zera zen, etsaiaren ondasunak arpilatuz eta lapurtzetik hel zitezkeen etekinak. Hori dela bide, gehienetan aberriaren arrazoiak baino arrazoi ekonomikoek eragin handiagoa zuten.

Berriro, 1638an eta 1639an probintzia osoa irauli zen Hondarribiko gotorlekuaren defentsan eta frantsesen setiaketa gogor baten aurka. Hernanik 120 gizoneko konpainia bidali zuen armaturik buruzagi eta guzti. Nabarmena izan zen hauen jarduera, han erakutsitako kuraia eta ausartziagatik. Eta oraino 1643an frantsesek Pasaiara sartu eta bertako portuan zeuden untzi guztiak erretzeko asmotan zebiltzala, 200 hernaniarrek parte hartu zuten xede horien kontra.

Mendea gaindituriк ere Pirinio alderdi bietako monarkien arteko gatazkak gutxitu ez baina gehitu egin ziren. Frantses erretordeak gerra deklaratu zion Felipe V.a Espainiako lehen borboi erregeari, eta bere indarrak fronteran kokatu zituen 1719ko apirileko hilabetean. Luzagabe gipuzkoarrek ere antolatu zuten defentsa: hala presaka batean, gure Luis Murugarren deitoratuak oroitarazten digunez, 100 hernaniarrez osaturik konpainia irten zen, alkatea buru, armak eskuetan... baina munizioa hartzea ahaztu eta Errenterian hornitu behar izan zuten. Dena alferrik izan zen, frantsesek gogor eraso zuten Irun eta Oiartzun deseginez eta... Hernani berriro!

Bastilla Hartzearen ondotik 1789ko uztailaren 14ko gauean abiatu zen gainbehera kontinenteko

Navarra, "tomaron y saquearon a la villa de San Juan de luz y la quemaron". Sabemos que en esta partida iban veinte hernaniarras. Ante la amenaza de invasión de las fronteras del reino, Hernani envió 400 hombres "bien armados" al paso de Behobia en Fuenterrabía el año 1579, operación que repitió en 1597.

En 1618 estallaba la Guerra de los Treinta Años, conflicto de ramificaciones políticas y religiosas entre la casa de Austria y la corona francesa. El 28 de diciembre, 23 voluntarios parten de Hernani hacia la amenazada Fuenterrabía, y al cabo de una semana retornan (con una certificación de "buena conducta") cuando llegan a la plaza refuerzos militares. A fin de cubrir el flanco fronterizo, la Provincia vuelve a llamar a rebato en 1625 y moviliza una fuerza se 4.000 hombres de los que 150 eran de Hernani. Lejos de lograrse la pacificación del territorio, el 23 de octubre de 1636 las tropas castellanas atraviesan el Bidasoa y toman las villas de Socoa, Urrugne, Ciboure y San Juan de Luz: entre los invasores encontramos 110 hernaniarras. Motivo importante para que muchos jóvenes se alistasen en esas expediciones era la promesa de los beneficios derivados del saqueo y pillaje de los bienes del enemigo, de aquí que muchas veces el voluntario lo fuese más por razones económicas que patrióticas.

Entre 1638 y 1639 toda la provincia se vuelca en apoyo de la plaza de Fuenterrabía, que sufría un durísimo asedio por parte de los franceses. Hernani envía una compañía de 120 hombres armados con sus correspondientes mandos, cuyas acciones aparecen reseñadas en las crónicas por su audacia y valentía. Cuando en 1643 los galos pretenden entrar en Pasajes para quemar los barcos de su puerto, 200 hernaniarras acuden a impedirlo.

Pasada la hoja del nuevo siglo las disputas entre las monarquías de ambos lados de los Pirineos arrecian. El Regente francés declara la guerra al primer rey borbón de España, Felipe V, y acantona sus fuerzas en la frontera durante el mes de abril de 1719. Sin demora, los guipuzcoanos organizan la defesa: tanta prisa se dieron que, como recuerda el tan llorado Luis Murugarren, la compañía de 100 hernaniarras con su alcalde al frente salieron con sus armas en la mano... pero olvidaron coger la munición, por lo que tuvieron que aprovisionarse en Rentería. Todo fue inútil, pues nadie pudo evitar el avance francés, que a su paso destruyó Irún, Oiartzun y... ¡otra vez Hernani!

monarkiarik zaharrena zena eta beronen azken ordezkariak bere haragian pairatuko zuen monsieur Guillotin-ek asmaturiko tramankulua. Denborak aldatu ahala sistema politikoak berritzen joan ziren, baina guri dagokigunez ez ziren sobera aldatzen joan, zeren eta mehatxu berria gertatu baitzen frantsesen aldetik 1793an gipuzkoarrak beren lurraldea defendatzera bortxatuz. Hernaniko herriari 103.775 erreal kosta zitzaion defentsarako tertzioak osatzea. Lehen multzoa 1793ko maiatzaren 18an irten zen frontera aldera, azaroaren 30ean bigarrena eta 1794ko urtarrilean hirugarrena. Egoera txartzen joan zen eta uztaileko 27-28ko gauan ordara jo zuten: 258 hernaniar hurbildu ziren probintziako defendatzaileen multzora. Gipuzkoa frantses errepublikarrek eraso zutelarik, hasiera izan zuen Konbentzio Gerrak.

Hala, XVIII. mendetik irten ginen egoera berean sartu ginen XIX. mendean. Napoleonen tertzio heroikoek penintsula eraso baitzuten, Independentzia Gerrak hasiera izan zuen. Probintzia osoki okupaturik gelditu zelarik, gure herritar askok eta askok Arano eta Goizuetako mendietan babesa bilatu behar izan zuten. Herria herri-lur gehienak saltzera beharturik gertatu zen, erasotzaileen gudarosteen mantenurako. Uzkur, gerra galdurik, 1813an erretiratu zirenekoan berriro arpilatu zuten lehen ere lanik aski bazuen Hernaniko herria[36].

Lehen Karlistada Gerrak 1833 eta 1840 urteak bitarte iraun zuen. Gerra "moderno" bat izan zen hitz honek duen zentzurik txarrenean, zeren eta hor bi alderdiek beren haserrearen biktima egin baitzuten herri xehea. Zumalakarregiren gudaroste karlisten aurrerakada garaitsua eragoztearren, liberal armadak europar potentzien laguntza eskatu zuen, eta hauek, gatazkan sobera busti gabe, bolondresen partaidetza bideratu zuten. Donostiak, bereziki liberala zen hiria, 1835eko uztailaren 10ean harrera egin zien gudaroste ingelesei. Aldi berean Hernanitik prestatzen da hiriaren asaldura eta azaroaren 23tik hasita setiaketa gogorra jasan beharrean gertatu zen. Liberalek hiria ez entregatzeaz gain, arerioari erasotzeko jokabidea hartu zuten. Azkenik, 1837ko martxoan, setioa hautsirik, Hernanirako jokabidea hartu zuten, bertako jendeak inguruko mendietara ihes egin behar izan zuelarik. Gudaroste karlistak Santa Barbara mendian babestu ziren, eta martxoaren 16an burutu zen Oriamendiko gudu izu-

[36] MURUGARREN ZAMORA, Luis. *Hernani: su historia e instituciones.* "Sociedad Guipuzcoana de Ediciones y Publicaciones", Donostia, 1970, 19. or. eta hurr.

Tras la Toma de la Bastilla la noche del 14 de julio de 1789, se inicia el declive de la monarquía más antigua del continente cuyo último representante probará en carne propia el artefacto ideado por monsieur Guillotin. Cambian los tiempos y se renuevan los sistemas políticos, pero en lo que nos toca las cosas no varían demasiado pues nuevamente en 1793 la amenaza francesa obliga a salir a muchos guipuzcoanos de casa para defender su tierra. A Hernani esto le costó 103.775 reales de vellón empleados en formar tercios de defensa. El primer contingente salió hacia la frontera el 18 de mayo de 1793, el segundo 30 de noviembre y el tercero en enero de 1794. La situación empeoró y en la noche del 27 al 28 de julio se tocó a rebato: 258 hernaniarras se sumaron a los defensores de la provincia. Gipuzkoa era invadida por los republicanos franceses, y comenzaba la Guerra de la Convención.

Entramos en el siglo XIX como salimos del XVIII. Los heroicos tercios napoleónicos invaden la península y se inicia la Guerra de la Independencia. Al quedar la provincia totalmente ocupada, parte de nuestros vecinos buscan refugio en los montes de Arano y Goizueta. La villa se ve obligada a vender la mayor parte de sus bienes comunales, a fin de pagar la manutención de las tropas invasoras. Durante su humillante retirada en junio de 1813, los franceses vuelven a saquear la maltrecha Hernani[36].

La Primera Guerra Carlista duró entre 1833 y 1840. Fue una guerra "moderna" en el peor sentido de la palabra, pues en ella ambos contendientes hicieron víctimas de su ira a la población civil. Para frenar el victorioso avance de las tropas carlistas de Zumalacárregui, el ejército cristino pidió ayuda a las potencias europeas que, sin involucrarse en el conflicto, permitieron la intervención de voluntarios. San Sebastián, ciudad liberal por excelencia, asiste a la llegada de los primeros contingentes ingleses el 10 de julio de 1835. A la vez se prepara desde Hernani el asalto a la capital y a partir del 23 de noviembre se inicia un intenso asedio sobre sus defensas. Los cristinos no solamente no entregan la ciudad, sino que salen a acosar al enemigo. Por fin, en marzo de 1837, roto ya el sitio, se inicia la marcha sobre Hernani cuya población huye hacia los montes cercanos. Las tropas carlistas deben refu-

[36] MURUGARREN ZAMORA, Luis. *Hernani: su historia e instituciones.* Sociedad Guipuzcoana de Ediciones y Publicaciones. San Sebastián, 1970, pp. 19 ss.

garri hura, non bi mila eta hiru mila arteko gizon kopurua galdu zen. Berriro karlistek Donostian babestera behartu zituzten liberalak. Maiatzaren 9an indar berriz horniturik itzuli ziren, bai, eta erasoaren garaipena etorri zen, Oriamendiren ondotik, Hernaniren erorketa gertatu zen, ordurako jada bertan behera utzita zena, eta Santa Barbarako gotorlekua. Azken jazoera Bergaran burutu zen 1839ko abuztuaren 31an, non Espartero eta Maroto jeneralek, besarkada batez, bakealdi ahul bat zigilatu zuten.

Gipuzkoan oporrak pasatzen ari zen Isabel II. erreginak Frantziara jo behar izan zuen iheska 1868an Prim eta Topete militar aurrerakoien pronuntziamendua zela kausa. Karlistek boterearen hutsuneaz baliatu ez zitezen ehun bolondresek osaturiko batailioi bat osatu zuten 1869ko abuztuaren 18an eta plazan barna desfilea egin. Behar bezala hierarkizatu eta horniturik, kainoi bat ipini zuten elizako dorrean lau gizonen zaintzapean, eta erregularki errondak egin ohi zituzten herri guztian zehar herriko etxea koartel gisa muntatu ondoan.

Hara, 1870ean Oiartzunen gertatu zen altxamenduaren lehen agerraldia, baina luzagabe ezarri zen halakoxe baretasun hertsi bat bi urte iraungo zuena. Karlos VII.aren deklarapenek ohiko monarkiaren eta Foruen aldeko arnasa bezpizturik, altxamendu berri bati ekin zioten karlistek 1872an. Santa Kruz Apaiz famatua bera, gerra honetako protagonistetariko bat, Urnieta aldean agertu omen zen urtearen azkenetan, eta 1873ko apirilaren 13an elkar jo zuten haren gizonak eta liberal gudarosteek, Ergobiako zubian hain zuzen, bere ihesa eraginez. Beste estualdi batean, apaiz trabukoak herrian sartzea eta treneko estazioa erretzea lortu zuen. Harrezkero, ugaldu egin ziren borroka eta topaketa armatuak, eta artilleria karlistaren zirikadak geroz itogarriagoak bilakatzen dira gure hirigunea barrikadak eta defentsabideak bilatzera behartuz.

Hartan, 1874ko maiatzaren 30ean izan zuen hasiera setioak Santiomendi, Montebideo, Oriamendi, Zitxar eta Olomendi abiapuntu izanik. Kontraerasoa, aldiz, liberalek herritik eta Santa Barbarako gotorlekua berekin zutelarik. Gatazka amaitu ondoan herriak gortera bidalitako txosten batean zera esaten da, setioak iraun zuen artean 1.368 jaurtigai iraitzi zituztela eta karlistek 2.165 granada, etxerik gehienetan kalteak eginez. Abuztuaren 2an Portu auzotik bizilagunak atera behar izan ziren eta 12an berreskuratu zuten liberalek Ihartza Gaina.

giarse en San Bárbara, y el 16 de marzo estalla la terrible batalla de Oriamendi donde perecerán entre dos y tres mil hombres. Nuevamente los carlistas obligan a los liberales a refugiarse en San Sebastián. El 9 de mayo llegan refuerzos a la ciudad y se inicia una triunfal ofensiva en la que, tras Oriamendi, cae Hernani, ya para entonces abandonada, y el fuerte de Santa Bárbara. El último episodio tiene lugar en Bergara el 31 de agosto de 1839, donde Espartero y Maroto sellan con su abrazo una paz endeble.

Durante sus vacaciones en Gipuzkoa el año 1868, Isabel II huye a Francia empujada por el pronunciamiento de los militares progresistas Prim y Topete. Para evitar que los carlistas aprovechen el vacío de poder, los liberales de Hernani forman un batallón de cien voluntarios que el 18 de agosto de 1869 jura la Constitución y desfila en la plaza. Perfectamente jerarquizados y pertrechados, disponían de un cañón en la torre de la iglesia custodiado por cuatro hombres, y establecían rondas regulares por el casco desde su acuartelamiento en la casa consistorial.

En 1870 se produce el primer brote de sublevación en Oiartzun, pero enseguida se impone una calma tensa que durará casi dos años. Con el aliento de las declaraciones del Carlos VII en favor de la monarquía tradicional y de los Fueros, los carlistas inician en 1872 un nuevo alzamiento. El famoso Cura de Santa Cruz, uno de los protagonistas de esta guerra, se deja ver por Urnieta a finales de año, y el 13 de abril de 1873 chocan sus hombres con las milicias liberales en el puente de Ergobia, forzando éstas su huida. En otro lance, el cura trabucaire consiguió penetrar en el pueblo y quemar la estación del ferrocarril. Las escaramuzas y los encuentros armados se multiplican, y el hostigamiento de la artillería carlista se hace cada vez más atosigante obligando a la preparación de barricadas y defensas en el casco urbano.

El 30 de mayo de 1874 se inicia el asedio desde las posiciones de Santiagomendi, Montevideo, Oriamendi, Citcar y Olomendi. En contrapartida, los defensores de la plaza contaban como bastión con el fuerte de Santa Bárbara. En un memorial que dirigió la villa a la corte una vez concluida la contienda, se afirma que durante el sitio se dispararon 1.368 proyectiles y a cambio los carlistas lanzaron 2.165 granadas que hirieron las fachadas de la inmensa mayoría de las casas. El 2 de agosto se tuvo que evacuar el barrio de Puerto y el 12 los libe-

Gobernadore Militarrak 1875eko maiatzaren 23an udaletxea artileriaren parke bilaka zedin erabakia hartu zuen: bertako bolborategia airera jaurtiki zelarik irailaren 16an, edifizioa berreraiki behar izan zelarik.

Ordurako, herriaren defentsaz 1869tik hasita hain ausarki karlisten kontra ahalegindu zen ehun baino gehiagoko bolondres multzo hartatik, soilki 59 bizi ziren. Epe horretan zehar 50 herrikosemek alde egin zuten Kubara bake bila, hain maitagarri baina zoritxarreko zen beren lurraldea bertan behera utzirik.

Beldurgarria da benetan Bigarren Karlistadaren azken balantzea Hernaniko herrian:

- Populazio militarra: 47 hildako eta 146 zauritu.
- Populazio zibila: 16 hildako (4 haur) eta 52 zauritu.
- Hernanik garai hartan zituen 174 baserrietarik 12 deuseztatuak izan ziren, 14 bizitzeko gaitasunik gabe geratu eta soilki hamar ukigabe gertatu ziren.

Zer nolabait jokabide lehiatsu honen ordainez alkateak "Invicta Villa" titulua eskatu zuen, eta Alfontso XII. erregeak eman ere bai 1875ean[37].

Azkeneko Gerrate Zibilean, 1936-1939 urteak bitartekoa, Hernanik hasiera beretik aitortu zuen gobernu errepublikar legezkoaren aldeko jokabidea. Lehenengo liskar armatuak 1936ko irailaren 5ean hasiera izan zuten Estenega mendiaren hegaletan. Hurrengo egunean Legio Gailegoak bost konpainia falangistaz osatu eta bat ametrailadoraduna, guztira 700 gizon, herrira hurbiltzea lortu bai, baina laster atzera jo behar izan zuen, eta orduan milizianoek hartaz baliaturik Buruntza-Santa Barbara-Oriamendi-Santiomendi lerro hori eraso zuten, nahiz ez zuten helburua lortu. Ez zuten lortu Estenaga mendia erasotzea ere, zeina Molaren gudarosteek defendaturik zegoen. Hilabete horren 8an Hernaniko Epaitegiko idazkaria eta honen emaztea salbaiak bailiran erahilak izan ziren. Herritar milizia gogor defendatzen da eta, berriro ere (azkenekoz historian) Santa Barbara gotorlekua defentsaleku nagusi bilakatu zen.

Irailaren 11 eta 12an eraso gogorra luzatzen dute Hernaniko kaskoak okupatzeko asmotan eta berta-

[37] Garai honetan interesaturik daudenek MURUGARREN, Luis *Hernani durante las carlistadas* kontsulta dezakete, Euskal Herriaren Adiskideen Elkartearen buletina, 3-4 zk. Donostia, 1981, guk bertatik atera ditugu datu gehienak.

rales recuperaron el alto de Ygarza-gaña o Yarza-gaña.

El 23 de mayo de 1875 el Gobernador Militar de la plaza decide convertir la casa consistorial en parque de artillería: el polvorín saltará por los aires el 16 de septiembre, y el emblemático edificio deberá ser reconstruido.

Ya para entonces, de aquel centenar de valerosos voluntarios que desde el verano de 1869 se encargaron de proteger la villa contra la amenaza carlista, sólo sobrevivían 59 hombres. En el mismo plazo, más de 50 hijos de la villa emigraron a Cuba buscando la paz y las oportunidades que su querida pero atormentada tierra no podía ofrecerles.

El balance final de la Segunda Guerra Carlista en Hernani es aterrador:

- Población militar: 47 muertos y 146 heridos.
- Población civil: 16 muertos (4 niños) y 52 heridos (11 niños).
- De 174 caseríos que tenía Hernani, 12 fueron destruidos, 14 quedaron inhabitables y sólo diez permanecieron intactos.

En pago a su heroico comportamiento el alcalde solicitó el título de villa "Invicta", lo que el rey Alfonso XII concedió en 1875[37].

Ya en la última Guerra Civil, entre 1936 y 1939, Hernani se declaró desde un principio fiel a la legalidad republicana. Los primeros escarceos armados comienzan el 5 de septiembre de 1936 en las faldas del monte Estenaga. Al día siguiente la Legión Gallega con cinco compañías de falangistas y una de ametralladoras, sumando un total de 700 hombres, consigue aproximarse a la villa pero pronto debe replegarse, lo que aprovechan los milicianos para atacar la línea Buruntza-Santa Bárbara-Oriamendi-Santiagomendi, pero no logran su objetivo. Tampoco consiguen asaltar el monte Estenaga defendido por las tropas de Mola. El día 8 de ese mismo mes el secretario del Juzgado de Hernani y su mujer son salvajemente asesinados. La milicia popular resiste y, una vez más (por última en la historia), el fuerte Santa Bárbara se convierte en su gran bastión.

Los días 11 y 12, los nacionales lanzan una ofensiva para ocupar los altos de Hernani y sus posicio-

[37] Los interesados en este período pueden consultar MURUGARREN, Luis. *Hernani durante las carlistadas,* Boletín de la Real Sociedad Bascongada de los Amigos del País, nº 3-4. San Sebastián, 1981, del que hemos extraído la mayor parte de los datos.

ko posizio estrategikoen jabe egitearren, azken batean Donostiaz jabetzeko. Harrikarte mendiaz jabetzen dira, eta hurrengo kolpean Santa Barbarako erresistentzia menperatzen dute gudaroste gailegoek. Hegazkinek herria bonbardatu eta irailaren 12an indar milizianoak herria abandonatu beharrean gertatzen dira. Ilunabarrean nazionalak Herrian sartu zirenetik gauaz Galarretako ondoan (Estubegi) eta hilerri sarreran hasten dira hilketak burutzen. Egun horietan erahilak izan ziren 200 pertsonen artean Jose Ariztimuño *Aitzol* (1896-1936) eta Zelestino Onaindia (1897-1936), apaizak biak, euskaltzale porrokatuak eta idazle ezagunak. Hurrengo egunean, irailak 13, erori zen Donostia eta horrek eragin zuen errepublikanoek Santiomendi bertan behera utz zezaten.

Gerra amaitzearekin batera hasi zen frankismoaren gau luzea, harik eta 1977ko ekainean lehen hauteskunde demokratikoak burutu ziren arte akabatuko ez zena.

Esperientzia samingarri hauek ekarri ohi duten zama astunaz oharturik ere, Hernani gaur egun herri moderno eta dinamikoa da, irtenbide egokien bila guduka dabilena: gizarte, lana, hezkuntza eta kulturaren aldetik, bertako biztanleen bizimoldea geroz erosoagoa, libreagoa eta solidarioagoa izan dadin. Hori gainera are garbiago erakusten du antzeko edo egoera makurragoan bizi diren urruneko herriekin egin duen anaiarteak: nikaraguar Nueva Guinea (1987), eta saharar Daira Detxera (1997), posibilitateen arabera biei laguntzak eskainiz.

ederra. Izatez, udalaren eginkizunak ziren, zeren eta Lasartek urteko 12.000 erreal ordaindu, bai, baina ezer askorik ez zuela ordainez bereganatzen, soilki diru-kopuru horren erdia aski omen Lasarteko beharrei erantzuteko. Eta jarraian gauza gogorrago bat jaulkitzen zuen:

> "Lasarten bi urtean gutxienez sendagilerik gabe bizi izan gara, zeren eta Hernaniko sendagileak eta laguntzaileak Lasarteko zerbitzua egitera beharturik dauden arren, urruntasunagatik edo, zerbitzua ez zen iristen gaixoak behar heinean. Eta gaur sendagilea baldin badu, herritarrek bere sakeletik ordaintzen dutelako dugu".

Baina irainen zerrenda ez da hemen amaitzen: alkateordeak aurrera jarraitzen du, esanez, duela gutxi arte eskolarik ez zegoela, uraren eskasia aipatzen zuen —delako herriko iturri horrek ez baitzuen behar hainbat ur uda sasoian eta neguan berriz ibaiko urak hartzen zuen iturria—, argirik ere ez zutela, ez herriko erlojurik, ez eta lur zati bat plaza izan zitekeena bertan herriko jaiak San Pedrotan ospatzeko "Errege Bideko hautsartean" egin ordez, Lasartek ez zuela pilotalekurik ez pagatzeko dirurik.

> "Danbolinjole bat, jaiegunetan gazte jendea erakartzeko, aski egokia litzateke, besterik ezean taberna zulora jotzen baitute gazteek".

Eskutitza, Hernani hiriguneko jendearen baldintzekin konparatzeko deia luzatuz amaitzen du. Egoera honek ez zuen konponbiderik izan epe laburrera, edo behintzat ez zuen espero zitekeenik izan, eta hala, handik bost urtera herritar batzuek elkarturik "Lasarte udal independientea" aldarrikatu zuten beren aldetik. Hartan, 1868ko azaroaren 22an deuseztatu egin zuen Gobernadore Zibilak delako "Lasarteko Udalbatza" hura, jarraian Urnieta eta Hernaniko alkateordeak bakoitzari zegokion auzorako izendatu zituelarik.

Erantzun gogor honetaz aparte, Diputazioak inkesta bat burutu zuen bertako bizilagunen artean, honako emaitza honekin: 54 familiburuetarik 37 azaldu zirela desanexioaren alde, guztiak fabrikako langileak nekazari bat izan ezik eta bi pertsonen ofiziorik ez da aipatzen, eta aitzitik 17 nekazari kontra azaldu ziren. Dena den, herritarren desanexio-gogo irmoaren gainetik, ez zen aurrerabiderik egin, seguraski berehalako batean lehertu zelako Bigarren Karlistada deitu gerra. Hala, lasartearrek mende oso bat itxaron beharko dute, harik eta 1986an beren nahikundea kunpliturik ikusi ahal izan eta udal berria Lasarte-Oria izenez eraiki arte,

recordarle que no solamente habría que arreglar el cementerio sino también la única fuente pública que disponía el barrio, faenas que en lógica correspondían a la institución municipal dado que Lasarte abonaba más de 12.000 rs. al año a cambio de poco provecho, pues sólo con que la mitad de ese dinero se invirtiese en Lasarte apenas tendría necesidades. Y añadía a renglón seguido:

> "En Lasarte se ha vivido sin facultativo hasta hace dos años, pues aun cuando Hernani tuviese ajustados el médico y cirujano con la condición de asistir al barrio, la distancia hacía imposible el servicio en condiciones que todo el que está enfermo desea. Si tiene hoy un facultativo es porque el vecindario lo sostiene de su propio bolsillo".

Pero la nómina de agravios no termina ahí: se quejaba también el alcalde de que hasta poco tiempo antes no existiera una escuela, de la escasez de agua —pues la mencionaba fuente no manaba lo suficiente en verano y quedaba cubierta por las aguas del río en invierno—, de carecer de alumbrado, de policía urbano, de reloj público, ni tampoco disponían de un terreno a modo de plaza por lo cual los festejos patronales en honor a San Pedro los hacían "sobre el polvo del Camino Real"; Lasarte carecía de frontón y ni siquiera podía pagarse

> "un tamborilero, que reúna la gente en los días festivos atrayendo a los jóvenes, que por falta de este útil cual agradable recurso se meten a las tabernas".

Termina el escrito invitando a comparar estas condiciones con las de los vecinos intramuros de Hernani. Este estado de cosas no tuvo solución a corto plazo, o al menos no la que algunos esperaban, y así al cabo de un lustro varios vecinos declaran unilateralmente "ayuntamiento independiente a Lasarte". El 22 de noviembre de 1868 el Gobernador Civil de Gipuzkoa disolvió el citado "Concejo de Lasarte", nombrando nuevos alcaldes pedáneos de Urnieta y Hernani en sus correspondientes barrios de Lasarte.

Al margen de esta enérgica respuesta, la Diputación efectuó una encuesta entre los moradores del barrio, arrojando como resultado que de 54 cabezas de familia, 37 estaban a favor de la desanexión, todos trabajadores fabriles menos uno que era labrador y dos cuyos oficios no se indican, mientras que 17 labradores se declaran en contra. Sea como fuere, y a pesar de la rotunda voluntad desanexionadora del vecindario, no se produjo evolución ninguna en tal sentido, posiblemente a causa del esta-

Hernani, Urnieta eta Usurbilek laga zizkion lurren gainean[71].

Oro har, bestalde, Hernani ez da hain gaizki konpondu izan inguru-herriekin. Hiriburuarekin akordioak aski goiz, 1379an, sinatu zituen, eta 1461ean baietsi. Lehenari buruz, 1379ko abuztuaren 2an diktatu ziren Urumea ibarraren erabilpen eta gozamenerako arauak, alegia, edozein herritarrek ibaiaren alde batean nola bestean burdinolak ezar zitzakeela eta horretarako libreki mendi, larre eta egurraz baliatu ere, baldintza batekin: horietan landutako burdina Donostia edo Hernanin barna behar zela salerosi, dena galdu nahi ez bazuen[72].

Herri-lurrak edo zilegi-lurrak deitzen ziren haiek etekin handiak zekartzaten herrientzat. Oharturik hauek elkarrekin banatzeak ekartzen ahal zutela gatazkarik, noiz behinka hiri bietako ordezkariak Oriamendiko oinean biltzen ziren, 1594an San Joan eta San Sebastianen izenean eraikitako ermitan hain zuzen, elkarren berri jakin eta emateko.

Bestetik, Iruñeko katedralak delako mendi horietan 22 saroe zituen, hauen gozamena urteko 11 dukat nafarren truke alokatzen zielarik Donostia eta Hernaniko herriari Halaxe dago idatziz jasota 1516ko agiri batean[73]. Udal ekonomiaren hartzekoen artean, besteak beste, ikatza egiteko egurraren salmentaren etekina zegoen. Hernaniko herriak, zilegi-lurrez aparte, bazituen bere mendiak ere, urtero enkantean jartzen zituen zuhaitzak. Esaterako, 1628an 43 haritzondo zeuden markaturik mugarretu ahal izateko, eta beste 23 mozteko koskorrak eta askorik balio ez zutenak[74].

Akordio berri bat 1671ko udaberriaren lehen egunean sinatu zuten hernaniarrek eta donostiarrek, non ezartzen baita zilegi-lurren banaketa berria Donostia, Hernani eta Urnietaren artean bederatzi zati eginez: lau Donostiarentzat, hiru Hernanirentzat eta bi Urnietarentzat, eta hori egin ondoan mugarriak ezarri ziren[75].

Estatuaren finantza-krisia eta ideia liberalen aurrerakada izan ziren, zenbait arrazoiren artean, Karlos IV.aren agintealdian eta 1794 eta 1808 urte-

[71] AGUIRRE SORONDO, Antxon. *Año 1868: Un intento de desanexión de Lasarte*. Lasarte-Oria aldizkaria, 14. zk. Lasarte, 1990, 2-3 or.

[72] H.U.A. C/5/I/1/1.

[73] H.U.A. C/5/I/1/3

[74] O.P.A. III. atala, 1.042. leg., 2. fol.

[75] H.U.A. C/5/I/3/7/6. Gai honi buruz Juan Carlos MORAren ikerlan interesgarria dago: *Los Montes Francos del Urumea*. Altza aldizkaria. Donostia, 1996, 37. or. eta hurr.

llido de la II Guerra Carlista. Deberán los lasartearras esperar más de un siglo, hasta el año 1986, para ver consumada su aspiración de constituir el nuevo municipio de Lasarte-Oria sobre terrenos cedidos por Hernani, Urnieta y Usurbil[71].

En general, Hernani se ha llevado históricamente bastante bien con sus poblaciones vecinas. Con la capital firmó las primeras concordias ya en el temprano 1379, y las confirmó en 1461. En la concordia del 2 de agosto de 1379 se dictan las normas para el uso y disfrute del valle de Urumea, de forma que cualquier vecino de ambas podía establecer ferrerías a la orilla del río y aprovecharse libremente de montes, pastos y madera, a condición de que el hierro labrado se comerciara desde San Sebastián o Hernani, so pena de perderlo[72].

Los terrenos comunales o montes francos producían importantes beneficios a las dos villas. A sabiendas de que todo lo que se comparte es susceptible de provocar conflictos, periódicamente se reunían los representantes de ambos pueblos al pie del monte Oriamendi, en el punto donde en 1594 se levantó la ermita dedicada a San Juan y San Sebastián, para ventilar sus diferencias.

La Catedral de Pamplona tenía en dichos montes comunales 22 seles, cuyo disfrute arrendaba a San Sebastián y Hernani por 11 ducados navarros al año, según consta en un documento de 1516[73]. En el haber de las economía municipales estaba, entre otras muchas partidas, la de la venta de madera para hacer carbón. También poseía Hernani en sus montes propios (es decir, no francos) árboles que anualmente subastaba para disfrute de su leña. El año 1628 en el barrio de Lasarte había 43 robles marcados con una cruz para trasmochar, y otros 23 para talar por ser muy pequeños y de ningún provecho[74].

Nueva concordia firman hernaniarras y donostiarras el primer día de la primavera de 1671, donde se establece un nuevo repartimiento de los montes francos entre San Sebastián, Hernani y Urnieta dividiéndolos en nueve partes: cuatro para San Sebastián, tres para Hernani y dos para Urnieta, tras lo cual se efectúa el consiguiente amojonamiento[75].

[71] AGUIRRE SORONDO, Antxon. *Año 1868: Un intento de desanexión de Lasarte*. Revista Lasarte-Oria, nº 14. Lasarte, 1990, pp. 2-3.

[72] A.M.H. C/5/I/1/1.

[73] A.M.H. C/5/I/1/3.

[74] A.P.O. Secc. III. Leg. 1.042, fol. 2.

[75] A.M.H. C/5/I/3/7/6. Sobre este tema hay una investigación muy interesante de Juan Carlos MORA: *Los Montes Francos del Urumea*, Revista Altza. San Sebastián, 1996, pp. 37 ss.

ak bitarte horretan lege desamortizatzaile desberdinak diktatzera eragin zutenak. Lekuko agintariek, Ataun, Eibar, Azpeitia, Zarautz, Azkoitia eta beste batzuen jokabidea jarraiki, herri-lurrak saltzeko erabakia hartu zuten iragan berria zen Konbentzioko Gerrak (1793-1795) eragin kalte eta gastuei erantzuteko. Gai honen garrantzi historikoa eta halako dokumentazio ugaria dago honetaz, non azterlan sakon eta zabalagoa eskatzen baitu, beste baterako uzten dugu.

Baina dena ez zen adostasunetan gelditu. Bestelakoak ere baziren, liskar, baztertze eta kanporatzeak esaterako. Hara, 1572an erresumako gobernuak "juduak, mairuak eta agoteak" probintziatik at botatzeko erabakia hartu zuen eta probintziako herri guztiei aditzera ematen zaie gutxiengo hauek behartzeko sei hilabete baino lehen kanpora joan zitezen. Erabakia kunplitzearren, Hernanik Pero de Ezpeleta, beronen seme-alabak, eta Pedro de Azparren agoteak iraitzi zituen herritik[76].

Agoteak madarikatutzat hartuak ziren gure kulturan, judu, mairu edo beltzen pareko ikusiak, halako maneran non Baztango zenbait herritan, Arizkun esaterako, ate berezia zeukaten elizan sartzeko eta aparteko lekua elizaren barne. Alabaina, lehen agindu hau eman zenetik eta hamabost urtera hernaniar ordezkariak zera azaldu zuen Batzar Nagusietan, bazela gizonezko bat herrian izen desberdinak erabiltzen zituena eta azkenekoa Joanes de Aguirre de Ezpeleta erabiltzen zuela, "eta gauza jakina zela agoteen kastakoa zela", nahiz eta exijitu zitzaion kaperatasuna frogatzeko ez zuela jaramonik egiten. Bere aginteaz baliatzeko eskatu zion Batzarrak herriko alkateari, eta aurrerago 10 dukateko amandaren mehatxua luzatu alkatea ez zela mugitzen ikusita. Azkenik, azaroko hilabetean burutu zen ekintza. Aldi berean, Domingo de Arriaga Urnietako alkateari galdegin zitzaion ea delako Agirre hura agotea zen ala ez, eta honek 1589ko urtarrilaren 25ean baietz erantzun zuen, halaxe zela, eta ondorioz, probintziatik kanpora iraitzia izan zen 1572ko agindua kunplituz. Urnietako alkateak 12 egunetan zehar aztertu zuen arazoa eta 10 dukat hartu zituen ordainez[77].

Oker gaude gizarte-babesa eta solidaritzako sistema oraingo gauza dela pentsatzen badugu. Duela mende asko edo aspaldidanik baziren behartsuei

[76] DIEZ DE SALAZAR FERNÁNDEZ. L.M. AYERBE IRIBAR, M.R., *Op.cit.*, V. alea, 335 eta 360 or.

[77] *Ibidem*. X. alea, 174, 313, 355 eta 402. or.

La crisis financiera del estado y el avance de las ideales liberales durante el reinado de Carlos IV, entre otras razones, hacen que entre 1794 y 1808 se dicten distintas leyes desamortizadoras. Las autoridades locales, siguiendo el ejemplo de Ataun, Eibar, Azpeitia, Zarautz, Azkoitia y otras, proceden a la venta en subasta de gran número de tierras comunales con objeto de obtener fondos con los que sufragar los daños y gastos provocados por la reciente Guerra de la Convención (1793-1795). El calado histórico de este tema y la riqueza documental existente requeriría un estudio más amplio y extenso que aplazamos para mejor ocasión.

Pero no todo eran concordias. También había discordias, exclusiones y marginaciones. En 1572 el gobierno del reino decide la expulsión de la provincia de "judíos, moros y agotes", y para su cumplimiento comunica a las villas que si albergan miembros de estas minorías deberán obligarles a abandonarlas en el plazo de seis meses. En su cumplimiento, Hernani expulsa a los agotes Pero de Ezpeleta y sus hijos, y a Pedro de Azparren[76].

Los agotes eran considerados malditos en nuestra cultura, al mismo nivel que judíos, moros o negros, al punto que en ciertas localidades del valle del Baztán tenían una puerta distinta para entrar a la iglesia. Sin embargo, quince años después de la primera orden de expulsión, el representante hernaniarra explica ante la Junta provincial que aquí había un hombre que usaba diversos nombres y últimamente el de Joanes de Aguirre de Ezpeleta, "el qual era notorio que era de generación de agotes", pues aunque le habían exigido probase su hidalguía no hacía caso. La Junta insta al alcalde a hacer valer su autoridad, y más adelante le amenaza con una multa de 10 ducados, que en noviembre de dicho año se ejecuta ante la pasividad del primer edil. A la vez, se interroga al alcalde de Urnieta, Domingo de Arriaga, si el tal Aguirre es o no agote, a lo que responde el 25 de enero de 1589 que efectivamente lo era y de hecho había sido expulsado de la provincia cumpliendo la orden de 1572. El primer edil urnietarra investigó durante 12 días, por lo que recibió 10 ducados[77].

Equivocadamente se piensa que el sistema de protección y solidaridad social es una creación moderna. Sin embargo, hace siglos que existen

[76] DIEZ DE SALAZAR FERNÁNDEZ. L.M, AYERBE IRIBAR, M.R. *Op.cit.* Tomo V, pp. 335 y 360.

[77] *Ibídem*. Tomo X, pp. 174, 313, 355 y 402.

laguntzeko mekanismoak —nahiz eta xede eta medio askoz apalagoekin—. Hona adibide bat: Martin de Hugusquiça, Graçia de Macaçaga, Juanes de Marcotegui eta Maria Lopez de Arriaga hernaniarrek beren etxeak galdu zituzten 1550eko sutean, eta Batzar Nagusiek bakoitzari 414 marabedi emanez lagundu zien[78]. Hala berean, Elorribia baserria, Joan Martines-de Hereñoçu-rena zena eta San Agustin monastegiko lekaimeen eskuetara pasa zena, erre egin zen 1556an, eta hauek ere jaso zuten delako 414 marabediko laguntza Batzarrak emanik[79].

mecanismos de auxilio para los desfavorecidos —si bien con medios y con fines mucho más modestos—. He aquí un ejemplo: los hernaniarras Martín de Huguzquiça, Graçia de Macaçaga, Juanes de Marcotegui y María López de Arriaga perdieron sus hogares en un incendio el año 1550, y las Juntas Generales de la provincia les ayudaron con 414 maravedís a cada uno[78]. Asimismo el caserío Lorribia, que fue de Joan Martines de Hereñoçu y pasó luego a manos de las monjas del monasterio de San Agustín, se quemó en 1556, y también a ellas la institución guipuzcoana socorrió con los mismos 414 maravedís[79].

[78] DIEZ DE SALAZAR FERNÁNDEZ, L.M., AYERBE IRIBAR, M.R., *Op.cit.* I. alea, 88, 104. or.

[79] *Ibidem.* II. alea, 323. or.

[78] DIEZ DE SALAZAR FERNÁNDEZ, L.M, AYERBE IRIBAR, M.R. *Op.cit.* Tomo I, pp. 88, 104.

[79] *Ibídem.* Tomo II, p. 323.

# BIDEAK, GARRAIOAK ETA KOMUNIKABIDEAK

## NAFARRORAKO BIDEA

Hara, 1598an Donostiak eta Hernanik, bien arteko akordioz, Urumeako ibarretik barna Nafarroarekin lotuko zituen bide berri bat irekitzea erabaki zutenean —modu honetan, Berastegiko erresuma zaharrean sartzeko Tolosarainoko bide luze eta bihurria ekidinez— bidezko den bezala, Tolosa aurka jarri zitzaien, baita probintziako gobernua ere; honek, gainera, Erregearengana eta honen Gerra-Kontseilura jo zuen, gerra baten kasuan bide berriak, ejertzito etsaiaren sarrera Iruñetik erraztuko zuela esanez, eta ez hori bakarrik, kontrabandoa ere areagotu egingo zela, merkantziek Tolosan kokaturiko "Hamarren zaharraren aduana" saihestuko zutelako.

Bideko lanak, ordea, hasiak zeuden eta korregidore beraren abisua jaso bazuten ere, aurrera jarraitu zuten probintziako agintari gorenak bi merinori lanean ari ziren gizonak atxilotzeko agindua eman zien arte. Berria Hernanin zabaldu zenean, 30 gizon atera ziren atxilotutakoak askatzera, eta hori gutxi bailitzan, bi merinoak eta hauen laguntzaileak gartzelaratu zituzten. Donostian ere 200 gizonez osaturiko talde bat antolatu zen, alkatea eta erregimenduko eskribaua buru zirela, eta Hernanin sartu ziren formazioan kaxa eta danbor hotsen artean. Istiluen larritasuna ikusirik, probintziak Batzar Berezia deitu zuten Bidanian 1598ko ekainaren 19rako, bertan gora-behera hau eguneko gai-bakar bezala tratatuko zelarik[80].

Goizuetarako errepidea ez zen zertu 1870-1899 urte bitartean, Hernani eta Diputazioaren arteko erabakiz[81].

---

[80] MUGICA, Serapio, *Op.cit.*, 42. or.

[81] H.U.A. D/5/2/3.

# CAMINOS, TRANSPORTES Y COMUNICACIONES

## EL CAMINO CON NAVARRA

Cuando en 1598 San Sebastián y Hernani deciden de mutuo acuerdo abrir una nueva ruta que les comunicara con Navarra por el valle del Urumea —evitando de este modo el largo y tortuoso trayecto hasta Tolosa para introducirse en el viejo reino por Berastegi— encuentran, como es lógico, la total oposición de Tolosa e incluso del gobierno provincial que recurrió ante el Rey y su Consejo de Guerra con el argumento de que el nuevo trazado facilitaría en caso de guerra la entrada del ejército enemigo desde Pamplona, además de favorecer el contrabando ya que las mercancías evitarían la "Aduana del diezmo viejo" situadas en Tolosa.

La obra estaba comenzada y prosiguió pese a las advertencias del corregidor en persona, hasta que la máxima autoridad real en la provincia ordenó a dos merinos prender a los hombres que trabajaban. Al llegar la noticia a Hernani, 30 hombres armados salieron a liberar a los arrestados, y no contentos con esto metieron en la cárcel a los merinos y sus acompañantes. También en San Sebastián se organizó una partida de 200 hombres, con alcalde y escribano del regimiento al frente, que entraron en formación militar en Hernani al son de cajas y tambores. Ante la gravedad de los incidentes, se convocó una Junta particular de la provincia para el 19 de junio de 1598 en Bidania, para tratar monográficamente este incidente[80].

La carretera a Goizueta no se habilitó hasta los años 1870-1899, de común acuerdo entre Hernani y la Diputación[81].

---

[80] MUGICA, Serapio. *Op.cit.*, p. 42.

[81] A.M.H. D/5/2/3.

## ERREGE BIDEA

Erromatarren garaitik, seguraski, Gipuzkoa zeharkatzen zuen Gaztela eta Europa arteko bidea San Adriango tuneletik sartu eta Zegaman izango zuen bere lehenengo muga garrantzitsua; handik abiatuko zen bidaiaria Segura, Beasain, Ordizia, Tolosa, Andoain, Urnieta eta Hernanira, hurrenez hurren. Bideak Urumea ibaiaren ezkerraldetik jarraitzen zuen Astigarraga aldera, Ergobira iritsitakoan ibaia zeharkatu eta Oiartzuna jotzen zuen, azkenik Irunen amaitzeko. Honenbestez, Donostiara iritsi nahi zuenak delako "Errege Bidea" hori behar zuen hartu.

Bidaiariak bazuen beste aukera bat ere, Arabatik Leintz-Gatzaga eta Arrasatetik barna, Oñati, Legazpia, Urretxu eta Ormaiztegitik sartu eta arestian aipaturiko bidearekin Beasainen bat egitea, Yarza jauregian eta hemen zeuden, hain zuzen ere, ospitalea, burdinola, errota, errementeria eta posta aldaketa.

Ebro aldetik zetozen ibiltariak Iruñea, Lekunberri eta Leitzatik sartzen ziren, eta Berastegin zapaltzen zuten gipuzkoar lurra lehenengoz, ondoren Elduain, Berrobi eta Ibarratik barna Tolosara iritsi eta hemen Irunera zihoan bidea hartzeko.

Bide haiek harri gogorrekoak eta 2,5 metro inguruko zabalerakoak ziren. Tarteune bakoitza zaintzearen ardura herri bakoitzari zegokion, baina kostu handiko konponketak egin behar zirenean Probintziak (egungo Diputazioa) laguntzen zuen. Bide konponketak hasieran *auzolan* elkarlanean egiten ziren, baina gerora profesionalei eman zitzaien egiteko hori, are gehiago, enkantera ateratzen zen errepideen zainketa.

Bestizan edo Besteçango bidea, hau da, Urumea ezkerraldetik zeharkatuz Ergobira iritsi eta zubi batek ibaia gurutzatzen duen bidea, auzi luze baten kausa izan zen Hernani eta Probintziaren artean. Hara, 1552an hasi zen guztia, Tolosak bide horren egoera tamalgarria ikusirik, zubi baten eraikuntza eskatu zuenean (ordurarte txalupa-zain bat ibiltzen zen alde batetik bestera ibaia zeharkatzen). Lanak berehalako batean egingo zituela esan bazuen ere Hernaniko udalak, handik urte betera oraino bukatzeke zeuden eta, ondorioz, Probintziako Juntak zubirainoko bidea konpon zezala agindu zion Hernaniri, bere betebeharra zen bezalaxe[82].

[82] DIEZ DE SALAZAR FERNÁNDEZ, L.M., AYERBE IRIBAR, M.R. *Op.cit.*, I. alea, 335, 454. or.

## EL CAMINO REAL

Probablemente desde época romana, el camino entre Castilla y Europa a su paso por Gipuzkoa entraba por el túnel de San Adrián y tenía su primer hito en Zegama; desde allí, el viajero transitaba sucesivamente por Segura, Beasain, Ordizia, Tolosa, Andoain, Urnieta y Hernani. El camino continuaba por la orilla izquierda del Urumea rumbo a Astigarraga, aquí cruzaba por el lugar de Ergobia, continuaba a Oiartzun y, finalmente, se rendía en Irún. De tal forma que para llegar a San Sebastián había que desviarse de la ruta llamada "Real".

Una segunda posibilidad para el viajero era entrar desde Alava por Leintz-Gatzaga/Salinas de Léniz y, por Arrasate-Mondragón, Oñati, Legazpia, Urretxu y Ormaiztegi, unirse con el camino anterior en Beasain, concretamente en el palacio de Yarza dotado de hospital, ferrería, molino, herrería y cambio de postas.

Los caminantes provenientes de la cuenca del Ebro penetraban desde Pamplona, Lekumberri y Leitza, pisando suelo guipuzcoano en Berastegi antes de adentrarse por Elduain, Berrobi e Ibarra. En Tolosa se unían al camino común a Irún.

Aquellos caminos eran de piedra dura y una anchura aproximada de 2,5 m. Del cuidado de cada tramo se encargaba cada población, pero cuando precisaban grandes arreglos que exigieran fuertes desembolsos la Provincia (actual Diputación) corría en su auxilio. Las reparaciones en un principio se hacían comunalmente entre los vecinos, en *auzolan,* hasta que con el tiempo se empezó a encomendar a profesionales, y se llegó incluso a sacar a subasta su mantenimiento.

El camino de Bestizan o Besteçan, que bordeando el Urumea por su izquierda llega hasta Ergobia donde un puente cruza el río, fue causa de un largo litigio entre Hernani y la Provincia. Todo comienza en 1552, cuando Tolosa protesta por el pésimo estado de ese camino y solicita la construcción de un puente (hasta entonces un barquero cubría el servicio entre ambas orillas). Aunque el Ayuntamiento hernaniarra se apresura a confirmar la ejecución de las pertinentes obras, un año después estaban todavía sin terminar por lo que la Junta Provincial ordena a Hernani que arregle el camino hasta el puente, tal como era su obligación[82].

[82] DIEZ DE SALAZAR FERNÁNDEZ, L.M, AYERBE IRIBAR, M.R. *Op.cit.*, Tomo I, pp. 335, 454.




Hernani. Lizeaga auzoa. Errege Bidearen sarrera.
Hernani. Barrio de Liceaga. Entrada del Camino Real.

Hernanirentzat, ordea, bidea baldintza onetan zegoen, "kalitatezko" bide bat egin nahi ez bazen behintzat, eta hala izanik, gastuari aurre egiteko ekonomikoki kaudimengabe aldarrikatuko zen. Bestalde, askok nahiago zuten ibaia Karabeleko pasabidetik zeharkatu, hau Hernani herriaren oinetan baitzegoen, eta ondoren eskuinaldetik jarraitu, Ergobiko zubia igaro gabe eta haraino zeraman bidea egin gabe. Gauzak honela, Probintzia eta Hernaniren arteko iritzi kontrajarriek auzi bat eragin zuten Valladolideko Erret Kantzelaritzan, baina auziak ez zuen aurrera egin, beren artean adostasun batera iritsi zirelako[83].

Berriro ere, 1565ean, Probintziak Besteçango bidea konpontzeko eskatu zion Hernaniri, baina honen aldetik betiko erantzuna jaso zuen. Honetan,

[83] *Ibidem*. I. alea, 505, 528. or.

Para Hernani la vía estaba en buenas condiciones, salvo que se quisiera hacer un camino "de calidad" en cuyo caso se declararía indispuesta económicamente para hacer frente al gasto. Por otra parte, se ve que muchos preferían pasar el río en el vado de Karabele, situado a los pies del casco de Hernani, y continuar luego por la orilla derecha, evitándose el paso por el puente de Ergobia y el camino que hasta allí conducía. Esta disconformidad de opiniones entre la Provincia y Hernani ocasionó un pleito en la Real Chancillería de Valladolid, que finalmente no progresaría al llegarse a un acuerdo[83].

En 1565 la Provincia insiste en pedir a Hernani que arregle el camino de Besteçan, pero recibe la misma respuesta. Solicita entonces la Junta un deta-

[83] *Ibídem*. Tomo I, pp. 505, 528.

Juntak txosten zehatz bat egiteko eskatu zien bi adituri. Teknikoek diotenez, Hernanitik Ergobira, Karabeletik edo Besteçandik joan daiteke, eta distantzia kontuetan ez dago alderdi handirik: Karabeleko bidea baldintza hobean dago, Besteçangoa leku "irekiagoa" den arren eta Ergobiko pasabidea berriz nahiko arriskutsua. Haien iritziz, bi bideak konpontzen dirua gastatzea baino askoz egokiagoa izango zen Karabelekoa erabiltzea, Hernanik bere kontura txalupa eta txalupa-zaina jartzen bazituen, edo zubia egiten bazuen, edota Probintziak eraiki eta herriari kobratzen bazion, beti ere Hernanik erabat baztertu zuen bere kontura zubia egiteko aukera[84]. Berriro ere, 1564an, Besteçango[85] bidea egiteko eskatzen zaio herriari, 1968an errepikatuko den eskaera[86]. Baina 1584an, oraino bidea konpondu gabe zegoen, bien bitartean Hernanik, Batzar Nagusiek zubi berria egiteko agindua betetzen ez zuten bitartean, ez zuela uste aipaturiko bidea konpontzera derrigortua zegoenik ailegatzen zuen[87].

Geroz eta zirkulazio gehiagoren ondorioz, bideen baldintzak ere hobetu egin ziren. Hala, 1752an " Errege Orgabidea" titulua eman zitzaion Leintz-Gatzagatik sartzen zen bideari, San Adriango bidearen kaltetan, hau zaharkitua geratu zelako eta behar berrietara egokitzea nekeza zelako. Hasiera batean, herri bakoitzari zegokion bere tarteunea berak ordaintzea erabaki bazen ere, obraren tamaina ikusitakoan Probintzia bera egin zen kargu 1757an. Lana Francisco de Ibero eta Manuel Martin Carrera maisuek proiektatu zuten —gipuzkoar arkitekto ezagun hauei zor zaie, besteak beste, parrokia eta udaletxe askotako dorreak lehenengoaren kasuan, eta Oñati eta Arrasateko udaletxeak bigarrenean—, gerora Marcos de Viernak ere esku hartu zuen. Trazaketak, 177,014 kilometrotakoa, zazpi milioi t'erdi errealeko aurrekontua izan zuen.

Hasierako proiektuaren arabera, Errege Bidea Mandazubitik sartuko zen Hernanin, Urnieta eta Astigarraga artean, non zubi bat egingo zen; ondoren Getaria baserriaren ubidetik barna, Etxeberria baserria, Santo Kristoren gurutzetokia eta zubitxo bat zeharkatuko zituen erreka igarotzeko, Ursola de Azpiazu eta Juan Bautista de Ayerderen etxeko lursailak, Bekoerrota, ospitaleko baratza, eta Karapote

[84] *Ibidem*. IV. alea, 96 eta 169. or.

[85] *Ibidem*, III. alea, 468. or.

[86] *Ibidem*. V. alea, 33. or.

[87] *Ibidem*. IX. alea, 112. or.

llado informe a dos expertos. Los técnicos afirman que a Ergobia se podía ir desde Hernani por Karabele o por Besteçan, sin que hubiera apenas diferencia de distancia: el camino de Karabele estaba en buenas condiciones, mientras que el de Besteçan se situaba más "en despoblado" y el vado de Ergobia era peligroso. A su parecer, antes que hacer gastos en arreglar ambos caminos, lo lógico sería utilizar el de Karabele siempre y cuando Hernani pusiera a su costa barca con barquero o hiciera un puente, o bien que lo construyera la Provincia y se lo cobrase a la villa (Hernani rechazó la posibilidad de que se hiciera un puente a su costa)[84]. Otra vez en 1564 se obliga a la villa a que haga el camino de Besteçan[85], exigencia que se reitera en 1568[86]. Pero todavía en 1584 estaba sin reparar, alegando Hernani que en tanto las Juntas Generales no cumpliesen con su promesa de hacer un puente no se creía obligada a reparar dicho camino[87].

Con el progresivo aumento de la circulación, las condiciones de los caminos mejoran. En 1752 se otorga el título de "Camino Real de carruajes" al que discurría por Salinas de Léniz, en detrimento del acceso por San Adrián que se había quedado anticuado y era de difícil adaptación a las nuevas necesidades. En un primer momento se determinó que cada pueblo pagara su tramo correspondiente, pero a la vista de lo ingente de la obra la Provincia se hizo cargo en 1757. Proyectan la obra los maestros Francisco de Íbero y Manuel Martín Carrera —prestigiosos arquitectos guipuzcoanos a quienes se deben, entre otras obras, muchas de las torres de parroquias y ayuntamientos guipuzcoanos en el caso del primero, y los ayuntamientos de Oñati y Arrasate en el segundo—, interviniendo posteriormente Marcos de Vierna. El trazado, de 177,014 km., se presupuestó en siete millones y medio de reales.

El proyecto inicial contemplaba que el Camino Real entraría en Hernani por Mandazuri, entre Urnieta y Astigarraga, donde se tendería un puente; pasaría luego por la acequia del caserío Guetaria, caserío Echeverría, humilladero del Santo Cristo, y atravesaría un puentecillo para salvar el riachuelo, antes de discurrir por terrenos de la casa de Ursola de Azpiazu y de Juan Bautista de Ayerde, casa de

[84] *Ibídem*. Tomo IV, pp. 96 y 169.

[85] *Ibídem*. Tomo III, p. 468.

[86] *Ibídem*. Tomo V, p. 33.

[87] *Ibídem*. Tomo IX, p. 112.

etxekoak zeharkatu ostean, azkenik, Astigarragan bukatzeko[88].

Gipuzkoako erakunde probintzialak, 1764ko uztailaren 7an eginiko bilkuran, bere fondoetako %20a Errege Bide berria egiteko ematea erabaki zuen, eta bideak zeharkatzen zituen gainontzeko herriei %10a, eta bidearen trazaketaz gozatzen ez zutenei %5a eman zezatela agindu zien. Arkitektoen harridurarako, biztanleek Hernani eta Urnieta arteko trazaketa aldatzea proposatu zuten, euren ustez, zuzenagoa eta merkeagoa izango zelako Getaria baserriaren sagastitik, Yurritaren lursailetatik, Merquelin, Telleria baserriaren aurretik, Etxeberria, Sandiusterry eta Chanchinatik barrena, Irundarreneatik Urnieta aldera atereaz. Aldaketa honekin, Juan Agustin Lekunberriren Benuzero baserria bakarrik bota beharko zen, eta Santa Kutz Gurutzetokia eta aldameneko *serora-etxea*. Tokian bertan aztertu ostean, arkitekoek amore eman zuten hain bistakoa zen arrazoiaren aurrean. Honenbestez, 1768ko urriaren 19an, aipaturiko etxeak erautsi eta elizatxo berria zertxobait beherago, Leokako iturriaren aldamenean (egun Santa Kutz elizatxoa dagoen lekua) egin ondoren, soberan geratzen zen harria, bide berria egiteko probintziari ematea erabaki zen. Beraz, Hernanik Benuzero etxea erosi eta 3.000 erreal inbertituko zituen otoitz-leku berria eraikitzen, probintziak konpentsazio gisa 7.000 erreal eman zizkiolarik[89].

Errege Bidearen gastuak ordaindu ahal izateko, 1780. urtean Probintziak sei hesi edo kate ipintzea erabaki zuen (hortik dator Gipuzkoako zenbait leku eta baserritan hain arrunta den *Katea* toponimoa) eta hor pertsona eta merkantzien zerga-bidea kobratuko zen.

Becoerrota, huerta del hospital, casa de Carapote para, por fin, rendirse en Astigarraga[88].

La institución provincial guipuzcona acuerda el 7 de julio de 1764 contribuir a la obra del nuevo Camino Real con el 20 % de sus fondos, y ordena que los pueblos por donde discurra aporten a su vez el 10 %, y el 5 % los que no disfruten de su paso. Ante el asombro de los arquitectos, los vecinos proponen cambiar el trazado entre Hernani y Urnieta que, a su juicio, sería más recto y económico si fuera por el manzanal del caserío Guetaria, terrenos de Yurrita, Merquelin, frente al caserío Tellería, Echeverría, Sandiusterry y Chanchina, saliendo por Irundarrenea hacia Urnieta. Con esta variante sólo habría que derribar el caserío Benuzero, que era de un tal Juan Agustín Lecumberri, y tirar el humilladero de Santa Cruz y la *serora-etxe* aneja. Tras un examen sobre el terreno, los arquitectos se rinden ante la evidencia. Así, se acuerda el 19 de octubre de 1768 que Hernani entregará a la provincia para la realización del nuevo camino la piedra sobrante del derribo de las casas citadas, luego de que se ejecute una nueva ermita un poco más abajo, próxima a la fuente de Leoca (lugar que hoy ocupa la ermita de Santa Cruz). Esta operación implica que la villa compraría la casa de Benuzero e invertiría 3.000 rs. en la construcción del nuevo oratorio, mientras en compensación la Provincia entregaría 7.000 rs.[89].

Para poder sufragar el mantenimiento del Camino Real, la Provincia acordó en 1780 establecer seis barreras o cadenas (de ahí el topónimo de *Katea* tan común en algunos parajes y caseríos de Gipuzkoa) donde se cobraría un peaje de paso a personas y mercancías.

## DONOSTIARAKO BIDEA

Donostiarako bidea harresietatik irteten zen Agustindarren komentu ondotik eta Ekogor baserria eta Oriamendi Benta aldera bideratzen zen zuzenzuzen. Elgoibarren 1570eko apirilaren 30ean eginiko Batzar Nagusiek, Hernanik Oriamendirako sarbidea konpondu beharko zuela erabaki zuten, eta, bide batez, Ariçolako tarteunea Urnietarako bidean[90].

## EL CAMINO A SAN SEBASTIÁN

El camino hacia San Sebastián partía de las murallas por el convento de las Agustinas y enfilaba en línea recta en dirección al caserío Ecogor y la venta Oriamendi. Las Juntas Generales celebradas en Elgoibar el 30 de abril de 1570 dictaminan que Hernani tendrá que arreglar el acceso a Oriamendi, y de paso la zona de Ariçola en el camino a Urnieta[90].

---

88 ASTIAZARAIN ACHABAL, Maria Isabel. *La construcción de los Caminos Reales de Gipuzkoa en el Siglo XVIII.* Gipuzkoako Foru Aldundia. Donostia. 1995. 225. or.

89 O.A.P. III. atala, 1.372. leg. 372. or.

90 DIEZ DE SALAZAR FERNÁNDEZ, L.M., AYERBE IRIBAR, M.R., *Op.cit.* V. alea, 111. or.

88 ASTIAZARAIN ACHABAL, María Isabel. *La construcción de los Caminos Reales de Gipuzkoa en el Siglo XVIII.* Diputación Foral de Gipuzkoa. San Sebastián, 1995, p. 225.

89 A.P.O. Secc.III. Leg. 1.372, fol. 372.

90 DIEZ DE SALAZAR FERNÁNDEZ, L.M, AYERBE IRIBAR, M.R. *Op.cit.* Tomo V, p. 111.

Gerora, 1712an egin ziren bide hau zabaltzeko lanak, Oriamendiko ermitaraino, Bidaurreta baserria baino gorago mugatzen zuen "harkaitza apurtuz". Honela, 2,5 metrotako zabalera izatea erdietsi zen. Momenturako, harriz konpondu eta oholtzar batzuk ipini ziren zeharka, gorputz gehiago ematearren[91].

Hala ere, jakina, Donostiari Errege Bidera sarbide zuzena izatea interesatzen zitzaion. Helburu horrekin, 1765 eta 1776an Hernanirako bidea konpontzeari ekin zitzaion, gurdi eta orgatxoak ibili ahal izateko; horretaz, arestian aipaturiko Francisco de Ibero eta M.A. Artuzaminos arduratuko ziren, eta bi herrien artean ordainduko zituzten gastuak[92]. Agidanez, Hernani eta Donostia arteko bidearen zainketa onaren kezka aspalditik zetorren. Izan ere, 1696 datarekin badugu langile bati, galtzada honen zainketarako, zortzi urtetarako eginiko kontratua, bere lana bermatuko zuten fidatzaileak jartzera ere behartzen zelarik[93].

Antzinako nekazaritzako gurdiek harrizko bideetan eragiten zituzten kalte handiak ekiditeko, agindu bat atera zen, hiru hazbete baino gutxiagoko hagunak erabiltzea galaraziz. Istilu bat baino gehiago sortu zen beren lursailetara joateko, araudiari men egin gabe, Errege Bidea beren gurdi zaharrekin zeharkatzen zuten biztanle haiekin[94].

Hernanitik Ereñozurako bidea 1880 eta 1882a bitartean eraiki zen, eta 1903 eta 1904a artean hemendik Nafarroako mugarainokoa. Azkenik, 1912an egin zen egungo Latsunbe auzora doana.

## PORTUA

Lurreko bideak aipatu ostean, ezinbestekoa da ibai-bideak aipatzea, izan ere, ez zen alferrik izan Hernaniko portua hainbat belaunalditan pertsona eta merkantzien sar eta aterabide nagusia.

Honi buruz honela idatzi zuen 1625ean Lope Martinez de Isasti historialariak[95]:

> "Bada Hernaniko herriaren barrunbean herritik legoa laurden batera Portua izena duen etxe bat. Urumea ibaiaren ondoan dago eta hortik zehar bideratzen da mendietako egurra Donostiara eta bertako untzigindegietara, burdina, galeretako

[91] O.A.P. III. atala. 1.327. leg., 70. or.

[92] ASTIAZARAIN ACHABAL, Maria Isabel. *Op.cit.*, 401. or.

[93] O.A.P. III. atala, 1.273. leg., 134. or.

[94] H.U.A. A/1/15, 103. or.

[95] MARTINEZ DE ISASTI. Lope. *Op.cit.*, 527. or.

Es en 1712 cuando se ensancha este camino "destruyendo la peña" que lo limitaba más arriba del caserío Bidaurreta y hasta la ermita de Oriamendi. Así se consigue que alcance unos 2,5 metros de ancho. Para la ocasión se arregla con piedras y se ponen unos tablones atravesados para darle mayor consistencia[91].

Pero, lógicamente, a San Sebastián le interesaba tener acceso directo al Camino Real. A tal fin, en 1765 y 1776 se acomete la reforma del camino con Hernani para hacerlo transitable a carros y carretas, de lo que se encargan el ya citado Francisco de Íbero y M.A. Artuzaminos, y se sufraga entre ambos municipios[92]. Es evidente que la preocupación por el buen mantenimiento de la vía entre Hernani y Donostia venía de lejos. Pues ya desde 1696 consta la contratación de un operario por espacio de ocho años que se ocupara del cuidado de esa calzada, obligándole a poner fiadores que garantizaran su trabajo[93].

Para evitar los grandes daños que producían los antiguos carros de labranza sobre los caminos de piedra, se extendió una ordenanza prohibiendo emplear llantas de menos de tres pulgadas. Varios conflictos se suscitaron contra aquellos vecinos que para ir a los labrantíos atravesaban con sus viejos carros sobre el Camino Real, sin atender a la normativa[94].

La carretera de Hernani a Ereñozu se construyó entre 1880 y 1882, y desde aquí hasta el límite con Navarra entre 1903 y 1904. Por último, la que va al barrio de Los Chalets o Villas en 1912.

## EL PUERTO

Después de hablar de los caminos terrestres, es obligado referirse a la vía de comunicación fluvial, pues no en vano el puerto de Hernani fue durante generaciones la principal puerta de acceso y de salida de géneros y de personas.

Escribía al respecto el historiador Lope Martínez de Isasti en 1625[95]:

> "Hay en la jurisdicción de esta villa a cuarto de legua una casa llamada Portua, que está cerca del

[91] A.P.O. Secc. III. Leg. 1.327, fol. 70.

[92] ASTIAZARAIN ACHABAL, María Isabel. *Op.cit.*, p. 401.

[93] A.P.O. Secc. III. Leg. 1.273, fol. 134.

[94] A.M.H. A/1/15, fol. 103 v.

[95] MARTINEZ DE ISASTI. Lope. *Op.cit.*, p. 527.

arraun eta haga bilduak egiteko gaiak, marmolezko harlandu mokorrak eta beste zenbait gauza ere bai. Hortik garraiatzen dira ibaian behera, etxe horretako jaunak dituen hiru belauntzitan guztiak, herriari bi urtez behin errenta bat ordainduz. Badira hiru zeharrola pertsona partikularren jabetzakoak eta mendi sail eta txaradi handiak bi legoa eta erdiren barne, hauetarik, Nafarroa aldera, Donostiaren eskumeneko diren legoa eta erdi; hauen emaitzak banatzerakoan Oriamendiko leku jakin batean biltzen dira elkarrekin. Berriro Franko (askea, irekia) izeneko errota bat eraiki du herriak; eta hiru hodiko iturria dauka herriz kanpoko hegal batean edateko aski ona den ura duelarik, eta agortzen ez den harraska bat bertan".

Baina gure historialari lezotarrak ez zekiena zera ι, urte batzuk lehenago, 1562an hain zuzen ere, ›lde batek portun karga-deskargara xedaturiko rak urperatu zituela. Arazoa konpontzeko, ·riak Pocopandegiko lurrak erosi behar izan ıen[96].

Murgia oinetxeko jaunak, Astigarragan, errege- baimena zuen Urumea ibaian gurguila bidez ıntzatzeko, eta errentan ematen zuen irabazi bak lortzeko. Baina, jakina, gurguilek —hauek e-tranpak ziren ibaiaren ibilguan sartutako makibatzuetan zintzilikatuta— untzien zirkulazioa gozten zuten (gabarrak eta merkantzia garraiako txanbergak batez ere). Kexurik zataratsueneko bat 1577an izan zen, Hernaniko txanberga eta gizon, eta Urumea ibarreko jende guztia Batzar gusietara abiatu zenean, Urumea ibaia zuela urte ez ibai publikoa, librea eta nabigagarria izanik, ırgia jaunaren maizterrek alderik alde arrantzurahartzen zutela salatuz[97].

Urte batzuk igarotakoan, 1588ko San Nikolas ınaren bezperan, hain zuzen ere, Joan de Arizui izeneko garraiolari petoa urperatu zen bere nberga burdinez eta beste merkantziez beteta raiatzen ari zenean, Felipe de Murgia jaunaren guilen erruz[98]. Hurrengo urteko apirilaren 24an :zar Nagusiek Errenterian eginiko bilkuran, txangalaria minduta kexatu zen eta ikuskari bat altzeko eskatu zuen gertatutakoa ikertzera.

Eta 1779an Hernaniko alkateak gabarrari bat eman zuen Astigarragako lurretan, Hernaniko ndietan egurra lapurtu eta Donostiarantz zeramaeta horixe izango zen bi herriak aurrez aurre

[96] H.U.A. C/5/IV/3/1.

[97] DIEZ DE SALAZAR FERNÁNDEZ, L.M., AYERBE IRIBAR, . *Op.cit* VI. alea, 422. or.

[98]*Ibidem*. X. Alea, 422. or.

río Urumea, a donde viene a parar todo el maderamen que va a la villa de San Sebastián y sus astilleros para fábricas de naos, fierro, remos de galeras, botas abatidas, sillares de piedra mármol y otras muchas cosas, que van por el río abajo en tres alas, que tiene el arrendador de aquella casa, y paga cierta renta a la villa de dos a dos años. Hállanse seis herrerías de agua de personas particulares y muchos montes bravos y jarales en más de dos leguas y media, en que también entra la jurisdicción de San Sebastián hacia la parte de Navarra en montes francos de legua y media; para cuyo repartimiento se suelen juntar en el puesto que llaman Oriamendi. Ha hecho un molino nuevo que llaman Franco; y tiene a un lado fuera de la villa una fuente de buena agua con tres caños, y una pila que nunca se seca".

Lo que quizá ignorara el historiador lezotarra es que años antes, en 1562, una gran riada había anegado los terrenos del puerto dedicados a la carga y descarga. Para subsanarlo, la villa se ve obligada a comprar unos terrenos en Pocopandegi[96].

El señor de la casa de Murguía, en Astigarraga, tenía concesión real para la pesca por medio de nasas en el río Urumea, la cual arrendaba para obtener algunos beneficios. Pero, lógicamente, las nasas —que consistían en un juego de trampas de red tendidas sobre palos clavados en la madre del río— obstaculizaban la circulación de las embarcaciones (gabarras y sobre todo las clásicas *alas* para el transporte de géneros). Una de las más sonoras protestas tuvo lugar en 1577, cuando los aleros y ferrones de las ferrerías de Hernani y de todo el valle del Urumea se dirigen a la Junta General denunciando que, siendo el Urumea río público, libre y navegable desde hacía un año, los arrendatarios del señor de Murguía lo ocupaban de parte a parte para la pesca[97].

Pasados varios años, exactamente la víspera de la festividad de San Nicolás del año 1588, un sufrido transportista de nombre Joan de Ariztegui naufragó con su ala llena de hierro y otras mercancías por culpa de las nasas de don Felipe de Murguía[98]. Ante la Junta General celebrada en Rentería el 24 de abril siguiente, se quejó el alero amargamente y pidió que se enviara a un agente para investigar lo ocurrido.

En 1779 el alcalde de Hernani sorprende en territorio de Astigarraga a un gabarrero que condu-

[96] A.M.H. C/5/IV/3/1.

[97] DIEZ DE SALAZAR FERNÁNDEZ, L.M. AYERBE IRIBAR, M.R. *Op.cit.* Tomo VI, p. 422.

[98] *Ibídem.* Tomo X, p. 422.

jarriko zituen afera; nolanahi ere, Astigarragaren ustez Hernaniko agintariak bere funtzioetan neurria gainditu zuen, besteren jurisdikzioan zuzenbidea erabiltzerakoan[99].

Zuaznabarren arabera, 1831ean oraino:

"Badago lonja etxe bat ere Portua aurkitzen den errebal horretan, eta hortik bideratzen dira ibaibidez Donostiara burdina, egurra, arraunak, zura eta beste, gabarrak deitu zabalak bezain luze diren untzietan"[100].

Azken bitxikeria bat bezala esango dugu, gure ikerlanetan behin baino gehiagotan aurkitu ditugula Puerto de Hernani edo Puerto Hernani deitura zuten pertsonak. Hori da, esaterako, Pedro Saez de Puerto Hernani (1556-1606) ore, Astigarragaren ustez Hernaniko, benefiziodun eta bere herriko unibertsitateko katedraduna.

## ZUBIAK

Bideei buruz aritu garenean, aurreratu dugu Hernanin Urumea ibai gainean eraikitako zubiekiko zerbait. Aipamen haiek beste datu historiko interesgarri batzurekin osatu eta hornituko ditugu.

Hara, 1569an, Ergobiko zurezko zubia goitik behera etorri zen, eta Probintziak beste berri batez lehenbailehen ordezteko eta herri auzokideek bakoitza berea ordaintzeko agindu zuen. Halaber, Ançiolako errekan beste harrizko zubi bat eraikitzeko agindua ematen zaio Hernaniri[101]. Honetan, 1570eko azaroaren 15ean oraino amaitu gabe zegoenez, Gipuzkoako erakundeak ordezkari bat izendatu zuen, lana bukatzeko behar zen langileria kontratatzeko, guztiaren kostua zubia egiteko agindua zuten herriek ordainduko zutela jakinaraziz (Donostia eta Murgia-Astigarraga)[102].

Probintziako junteroek, 1572ko apirilaren 23an, Hernani estutzen dute Latsunbeko errekaren igarobidea erraztuko duen harrizko zubia egin dezan, San Agustin monastegiaren atzealdean, Donostiarako bidean[103].

Eta 1587an txalupa-zain bat jartzea erabaki zen "Ergoibia" izeneko lekuan, horretarako Hernaniko

[99] H.U.A. C/5/I/6/10.

[100] J.V. *Op. cit.* 466. or.

[101] DIEZ DE SALAZAR FERNÁNDEZ, L.M., AYERBE IRIBAR, M.R., *Op.cit.* V. alea, 72. or.

[102] *Ibidem.* V. alea, 149. or.

[103] *Ibidem.* V. alea, 348. or.

cía leña robada en los montes de Hernani hacia San Sebastián, lo que es punto de partida para un litigio que enfrentará a ambas villas, al entender Astigarraga que la primera autoridad hernaniarra se había extralimitado al ejercer justicia en jurisdicción ajena[99].

Todavía en 1831, según Zuaznabar:

"En el arrabal del Puerto o Portuba hay una casa lonja, y desde allí se envían por el río a San Sebastián fierro, leña, remos, maderas y otros efectos en barcos chatos y largos sin cubierta, que llaman gabarras"[100].

Como curiosidad final añadiremos que durante nuestras investigaciones varias veces hemos topado con personas apellidadas Puerto de Hernani o Puerto Hernani. Es el caso del oñatiarra Pedro Saez de Puerto Hernani (1556-1606), prestigioso abogado, beneficiado y catedrático en la universidad de su villa natal.

## LOS PUENTES

Al tratar sobre los caminos, ya anticipamos algo respecto a los puentes de Hernani tendidos sobre el río Urumea. Completaremos aquellos apuntes con otros datos de interés histórico.

En 1569, el puente de madera de Ergobia se viene abajo, y la Provincia ordena que se sustituya rápidamente por otro nuevo a escote entre todos los municipios vecinos. También se obliga a Hernani a que haga un puente de piedra sobre el arroyo de "Ançiola"[101]. Como para el 15 de noviembre de 1570 no estaba todavía terminado, la institución guipuzcoana nombra a un delegado para que contrate a la gente necesaria para su ejecución, advirtiendo que su importe lo pagarán las villas que tenían la obligación de hacerlo (San Sebastián y Murguía-Astigarraga)[102].

El 23 de abril de 1572 los junteros provinciales instan a Hernani para que construya un puente de piedra que facilite el paso del arroyo de Latzumbe tras el monasterio de San Agustín, en el camino a San Sebastián[103].

[99] A.M.H. C/5/I/6/10.

[100] J.V. *Op. cit.* p. 466.

[101] DIEZ DE SALAZAR FERNÁNDEZ, L.M, AYERBE IRIBAR, M.R. *Op.cit.* Tomo V, p. 72.

[102] *Ibídem.* Tomo V. p. 149.

[103] *Ibídem.* Tomo V, p. 348.




Karabeleko zubia.
Puente de Carabel.

alkateak egokia deritzon pertsona bat izendatuko zuelarik. Txartelaren prezioa 4 marabedikoa izango da pertsona bakoitzeko eta koartilo bat zamabere bakoitzeko. Astigarragako alkatearen esanetan zubia bere jurisdikzioari dagokio bi aldetan, baina Batzarrak atzera bota zuen protesta[104].

Gaur egun Ergobin ezagutzen dugun harrizko zubia 1729 eta 1733. urte bitartean eraiki zuen Legorretako Francisco de Hugarte maisuak, eta Probintziak subentzionaturiko 117.339 zilarrezko erreal kosta zen[105].

Carabele edo Karabeleko zubiari dagokionean, jakin badakigu 1558an Juan Lopez de Izaguirre arotzak erabat zurezkoa egin zuela. Luzeran 25 metro zituen eta bi zabaleran, Urumearen hondoan erdi-erdian sartutako euskarri bakar batekin[106]. Uholde batzuk aurrean hartu eta eraman zuten, horietariko

[104] *Ibidem.* X. alea, 50. or.
[105] O.A.P. III. atala. 1.340. leg, 316. fol.
[106] O.A.P. III. atala, 915. leg, 78. fol.

En 1587 se decide poner un barquero en el punto de "Ergoibia", para cuyo cargo nombrará el alcalde de Hernani a la persona que considere idónea. La tarifa por el paso será de 4 maravedís por persona y un cuartillo por cada cabalgadura. El alcalde de Astigarraga recuerda que dicho puente pertenece en ambas orillas a su jurisdicción, pero la Junta desestima la protesta[104].

El puente de piedra de Ergobia que hoy conocemos lo construyó entre 1729 y 1733 el maestro Francisco de Hugarte, vecino de Legorreta, y costó 117.339 rs. de plata subvencionados por la Provincia[105].

En cuanto al puente de Carabel o Karabele, sabemos que en 1558 el maestro carpintero Juan López de Izaguirre lo hizo íntegramente en madera. Medía unos 25 metros de largo por dos de ancho, con un solo soporte central clavado en el fondo del

[104] *Ibídem.* Tomo X, p. 50.
[105] A.P.O. Secc. III. Leg. 1.340, fol. 316.

bat 1636an gertatu zen, 1805ean harrizko egin zen arte, Pedro Manuel de Ugartemendia arkitekto handiaren diseinu eta proiektuaren arabera (urte batzuk beranduago Donostiako Konstituzio plaza egingo zuenak berak). Konponketa garrantzitsuak eskatzen zituen 1877an eta 1890ean zabaldu egin zen[107].

Ereñozuko zubia ere gatazkagai izan zen, bertatik burdinoletatik edo burdinoletara xedaturiko merkantzia ugari igarotzearen ondorioz; honetan, 1578an Donostiari eta Hernaniri konpontzeko agindua ematen zaienean, hauek ez dira atzean geratzen eta Urumeako olagizonei agintzen diete gastuari aurre egiteko. Batzorde Nagusiak gogora ekartzen du derrigorrezko elizkizunetara etortzeko Hernaniko eliztarrek zubitik igaro beharra dutela, eta ondorioz, konponketa modu honetan ordaintzea erabakitzen du: laurden bat Donostiako hiriak eta gainontzekoa zati berdinetan Hernaniko herria eta burdinoletako maizterren artean. Donostia eta Hernani auzitan sartu ziren epai honen aurka.

Ibaiak kalte handiak eragin zizkion zubiari 1592an, eta berriro obraren erantzukizunari buruzko gatazka sortu zen, bi herriek, hiru burdinolek ateratzen dutela onurarik handiena uste baitute[108].

## GARRAIOAK ETA KOMUNIKAZIOAK

Azken urteotan komunikazioetan eman den urrats handi hau gertatu arte, oso pertsonaia estimatua eta beharrezkoa zen mandataria probintziako herri eta txoko guztietan. Garraioa maila apalean egiten zuten profesionalek (gutun edo mandatu) oinez egiten edo zaldiak erabiltzen zituztenen artean bereizten ziren. Hara, esaterako, 1569ko azaroaren 24an, Hernanik 7 dukat jaso zituen gure probintziatik Gortera mezu batekin igorri zen "oinezko posta" batengatik[109].

Ibilbidea zaldiz egiten zutenen artean, batzuk beren bitarteko propioak zituzten eta beste batzuk aldiz, posta ofizialak hartzen zituzten, hots, ezarritako zerbitzua zen, eta gehiegikeriarik ez izateko tarifak gobernuak arautzen zituen. Hornidurako prezioak asko igo zirela eta, Burgos eta Irun arteko ibilbidea egiten zuten posta-maisuek, 1569an zaldi

[107] H.U.A. D/5/1/2.

[108] DIEZ DE SALAZAR FERNÁNDEZ, L.M., AYERBE IRIBAR, M.R., *Op.cit.* VII. alea, 38, 52, 233, 389. or.; XI. alea, 85, 395. or.

[109] *Ibidem*, V. alea, 77. or.

Urumea[106]. Varias riadas se lo llevaron por delante, una de ellas en 1636, hasta que en 1805 se rehace en piedra según diseño y proyecto del gran arquitecto don Pedro Manuel de Ugartemendía (el mismo que años después trazaría la Plaza Constitución y la Parte Vieja de San Sebastián). Exige importantes reparaciones en 1877 y en 1890 se ensancha[107].

El puente de Ereñozu fue objeto de litigio por el enorme tránsito de géneros provenientes o destinados a las ferrerías, al punto que cuando en 1578 se ordena a San Sebastián y Hernani que lo reparen, éstas no se muerden la lengua y designan a los ferrones del Urumea para que corran con el gasto. La Junta General recuerda que para acudir a sus obligaciones religiosas los parroquianos de Hernani debían pasar por el puente, y decide se sufrague el arreglo de la siguiente forma: una cuarta parte la villa de San Sebastián y lo restante en partes iguales entre Hernani y los arrendatarios de las ferrerías. San Sebastián y Hernani entablan pleito contra esta sentencia.

El río daña seriamente el puente en 1592, y otra vez surge el conflicto sobre la responsabilidad de la obra, ya que ambas villas entienden que las únicas beneficiadas son las tres ferrerías[108].

## TRANSPORTES Y COMUNICACIONES

Hasta la revolución de las comunicaciones que se ha producido en los últimos años, el recadista era un personaje muy querido además de imprescindible en todos y cada uno de los pueblos de la provincia. A los profesionales dedicados al transporte en pequeña escala (sobres o encargos) se les distinguía entre los que lo hacían andando y los que empleaban caballerías. Por ejemplo, el 24 de noviembre de 1569 Hernani recibe 8 ducados por el "correo a pie" que se envió a la Corte con un mensaje desde nuestra provincia[109].

En cuanto a los que hacían la ruta a caballo, unos tenían sus propios medios y otros tomaban las postas oficiales, servicio establecido cuyas tarifas regu-

[106] A.P.O. Secc. III. Leg. 915, fol. 78.

[107] A.M.H. D/5/1/2.

[108] DIEZ DE SALAZAR FERNÁNDEZ, L.M. AYERBE IRIBAR, M.R. *Op.cit.* Tomo VII, pp. 38, 52. 233, 389; tomo XI, p. 689; tomo XII, pp. 85, 395.

[109] *Ibídem*. Tomo V, p. 77.



Tranbia elektrikoaren azken bidaia. 1958ko otsaila.
Ultimo viaje del tranvía eléctrico. Febrero 1958.

eta legoa bakoitzeko bi errealetara tarifa igotzea eskatu zuten[110].

Liburuaren amaierako gehigarri batean *Hernaniko posta XVIII. mendean* izenburupean, azalduko ditugu 1741ean indarrean zeuden posta ofizialeko tarifak[111]. Hara igorriko dugu irakurlea Urnietako Joseph Antonio de Barandiaran jaunari 1751ean Tolosa, Urnieta eta Oiartzun arteko atzerriko postaren bideraketarako eginiko emakidaren xehetasunak ezagutzeko[112].

Hernanik ez zuen posta-trukerik, aitzitik, Urnieta eta Oiartzun ziren honetarako ezarritako pun-

[110] O.A.P. III. atala, 986. leg. 76 fol.

[111] RODRÍGUEZ CAMPOMARES, Pedro. *Itinerario de las Carreras de Posta.* Imprenta Antonio Perez de Soto. Madril, 1741, 67. or. Garraio, Turismo eta Komunikazioetarako Ministeritzaren faszimil-edizioa. Madril, 1968.

[112] O.A.P. III. atala, 1.622. leg. 15. fol.

laba el Gobierno para evitar abusos. Como los precios de los bastimentos habían subido mucho, los maestros de postas que cubrían la ruta entre Burgos e Irún solicitan en 1569 un aumento de tarifas hasta los dos reales por caballo y legua[110].

En un anexo al final del libro con el título *El correo de Hernani en el siglo XVIII,* desglosamos cuáles eran las tarifas de las postas oficiales en 1741[111]. Allí remitimos también al lector para que conozca los detalles de la concesión en 1751 a Joseph Antonio de Barandiarán, vecino de Urnieta, de la conducción del correo para el extranjero entre Tolosa, Urnieta y Oiartzun[112].

[110] A.P.O. Secc. III. Leg. 986, fol. 76.

[111] RODRÍGUEZ CAMPOMARES, Pedro. *Itinerario de las Carreras de Posta.* Imprenta de Antonio Pérez de Soto. Madrid, 1741, p. 67. Edición fasímil del Ministerio de Transportes. Turismo y Comunicaciones. Madrid, 1968.

[112] A.P.O. Secc. III. Leg. 1.622, fol. 15.

tuak. Hara, 1751ean Urnietako Joseph Antonio de Barandiaran jaunari, atzerrirako postaren bideraketa eman zitzaion Tolosa, Urnieta eta Oiartzun artean lau urtez egiteko. Hona kontratuaren baldintzarik garrantzitsuenak: Hara, 1850ean arratsaldeko 3etan iristen zen posta Tolosara eta goizeko ordubietan irteten zen berriro Tolosarantz (aitortu behar da arrunt goiztiarra zela gure postaria)[113].

Joan den mendearen erdialdera hasten dira garraioetan zaldi-kotxeak nagusitzen. Gure artean, Joakin Otamendi Etxeberria izan zen honetan aintzindari, bera baitzen 1858an, Hernani eta Donostia arteko zaldi-kotxezko zerbitzu erregularraren buru. Baina 1872an bere auzokide Jose Maria Bidaurreta Lasartek beste eguneroko linea bat jarri zuen, eta azkenean, biek bat egin beharrean aurkitu ziren, batek jaten zuen lekuan *bik jateko ez zegoelako.* Bidaurretak ordainetan 6.000 erreal, hau da 1.500 pezeta, emango dizkio Otamendiri honek zituen bezeroengatik. Bakoitzak kotxe bat eta hiru zaldi jarriko ditu bere aldetik, eta galerak nahiz irabaziak erdira banatuko dituzte. Otamendik elkartea uztea erabakiko balu, 4.000 erreal edo 1.000 pezeta itzuli beharko dizkio Bidaurretari, aitzitik Bidaurretak aldegiten badu, kito-kito geratuko dira. Bietariko bat hilko balitz, ondasunak tasatu eta erdia alarguntsari emango zaio[114].

Urte askotan hutsean geraturiko proiektu eta eztabaida ugariren ondoren, 1857an, Goierri eta Bidasoa arteko trenbidea egitea erabaki zen. Inbertsioaren zenbatekoa ikusita, Probintziak laguntza eskatu zien bere seme-alaba guztiei, baita Ameriketara joandakoei ere. Erantzun aparta jaso zen guztien aldetik, hain aparta izan ere ezen 1858ko ekainaren 22an lanen inaugurazioa egin baitzen handikiro.

Eta 1864ko abuztuaren 15ean, Erregea bertan zela, Paris eta Madril arteko trenbidea funtzionamenduan jartzea ospatu zen. Urte batzuk beranduago, hau da, 1899an linea elektrikoa zen eta bide bikoitza 1911az geroztik. Hernanik "hirugarren" mailako geltoki eta geralekua zituen, eta harrotasunez esaten zen trenek "3 minututan egiten zutela Hernani eta Donostira arteko ibilbidea" (sic).

"Donostia-Hernani tren elektrikoa" delako tranbia ezaguna, 1902an jarri zen martxan izugarrizko

[113] MADOZ, Pascual. *Diccionario Geográfico Estadístico Histórico de España y sus posesiones de ultramar* (1850). Biblioteca Santa Ana berrargitalpena. Almendralejo, 1990. IX. alea, 178. or.

[114] O.A.P. III. atala, 3.299. leg., 291. fol.

Hernani no tenía cambio de postas, sino que los puntos señalados para este menester eran Urnieta y Oiartzun. En 1850 el correo llegaba de Tolosa a las 3 de la tarde y salía de nuevo hacia Tolosa a las 2 de la madrugada (¡hay que reconocer que madrugaba nuestro cartero!)[113].

A mediados del siglo pasado empiezan a generalizase los transportes en coche a caballo. Entre nosotros, el pionero fue Joaquín Otamendi Echeverría, quien en 1858 regentaba un servicio regular de coches entre Hernani y San Sebastián. En 1872 su convecino José María Vidaurreta y Lasarte inaugura otra línea diaria, pero finalmente deben asociarse porque donde comía uno *no comían* dos. Acuerdan que Vidaurreta dará en compensación a Otamendi por la clientela que éste tenía 6.000 rs., o lo que es lo mismo 1.500 pts. Cada uno aportará a la sociedad un coche y tres caballos, y tanto las pérdidas como las ganancias se repartirán a medias. Si Otamendi decide abandonar devolverá a Vidaurreta 4.000 rs. ó 1.000 pts., pero si lo hace Vidaurreta quedarán en paz. En caso de fallecimiento de uno de ellos, se tasarán los bienes y la mitad se destinará a la viuda[114].

Tras varios años de proyectos fallidos y apasionadas discusiones, en 1857 se decide la construcción de una línea ferroviaria entre el Goiherri y la cuenca del Bidasoa. Ante las dimensiones de la inversión, la Provincia pide ayuda a todos sus hijos, incluidos los residentes en América. La respuesta es tan positiva que al poco tiempo, el 22 de junio de 1858, se procede solemnemente a la inauguración de las obras.

El 15 de agosto de 1864, en presencia del Rey se celebra en San Sebastián la puesta en funcionamiento de la línea férrea entre París y Madrid. A partir de 1899 el tendido es ya eléctrico y desde 1911 la vía doble. Disponía Hernani de estación "de tercera" y apeadero, y según se decía con gran orgullo los trenes "hacen el recorrido entre Hernani y San Sebastián en 3 minutos" (sic).

El "tren eléctrico San Sebastián-Hernani", el popular *tranvía,* se puso en marcha el año 1902 con enorme éxito ya que permitía a los vecinos de Hernani, Astigarraga, Martutete y Loyola acudir diariamente a vender sus productos o a trabajar a la

[113] MADOZ, Pascual. *Diccionario Geográfico Estadístico Histórico de España y sus posesiones de ultramar* (1850). Reedición Biblioteca Santa Ana. Almendralejo, 1990. Tomo IX, p. 178.

[114] A.P.O. Secc. III. Leg. 3.299, fol. 291.

arrakastarekin; izan ere, Hernani, Astigarraga, Martutene eta Loiolako biztanleek egunero Donostira beren produktuak saltzera edo hirira lanera etortzeko aukera zuten, eta Donostiakoek aldiz, Urumea ibarreko sagardotegi eta gainerakoetaz gozatzekoa. Donostian Peñaflorida kaletik irten eta Hernaniko Plaza Berriraino heltzen zen. "Tren elektriko" zahar honek, 1958ko otsailaren 28an egin zuen bere azken ibilbidea.

Hernaniko postetxea Donostiakoaren menpe zegoen eta "eguneroko zerbitzua" zuen. Telefonoari zegokionez, 1909an ireki zen Diputazioak instalaturiko jendearentzako lehen linea, berea baitzen jabegoa. Laster hasi ziren abonatuak beren etxeetan aparatoa ipintzen: abonuak finkoak edota denboraldi batekoak izan zitezkeen (udarako bakarrik, esaterako). Hara, 1916an 1.800 abonatu zeuden probintzia guztian, eta horietariko 43 ziren Hernanikoak.

capital, y a los de San Sebastián disfrutar de las sidrerías y demás atractivos de la cuenca del Urumea. Partía de la donostiarra calle Peñaflorida y llegaba hasta la Plaza Nueva de Hernani. El 28 de febrero de 1958, el viejo "tren eléctrico" hizo su último trayecto.

La estafeta de correos de Hernani era dependiente de la de San Sebastián, contando con "servicio diario". En cuanto al teléfono, la primera línea se abrió al público en noviembre de 1909, instalada por la Diputación que era su propietaria. Al poco tiempo empezó a haber abonados con aparato propio en sus casas: los abonos podían ser fijos o de temporada (sólo para el verano). En 1916 había ya 1.800 abonados en toda la provincia, 43 de ellos en Hernani.

# MENS SANA...

Hernanin 1599koak dira neska-mutilentzako lehen maisuari buruzko berriak: Juan Ruiz de Ybarra zuen izena, eta Markinakoa izan arren Hernanin bizi zen bere familiarekin. Agian, Juan ozta-ozta bizi zela esan beharko genuke, izan ere, bere soldata urteko 50 dukaten hitzartua baldin bazegoen ere, lanean zeramatzan bi urtetan ez zituen 33 baizik jaso. Udaletxeko kutxa hutsik zegoela eta, Epeleko udal-burdinolako maizterrak ordaintzea erabaki zen, honi errentatik deskontatzekotan[115].

Denboraren joanean eskolako maisuaren baldintza ekonomikoak hobetuz joan ziren. Honetan, 1687ko urriaren 20an Nafarroako Ituren herriko Juan Bautista Bizarron kontratatu zuten lau urterako, urteko 100 dukateko soldata eta etxebizitza izango zituen udaletxean, haurrei irakurtzen eta idazten, zenbatzen, kristau ikasbidea "eta ondo hazitzeko haurrek behar dituzten gainerakoak" erakustearen ordainetan. Are gehiago, eskolara irakurtzen ikastera joaten den haur bakoitzak erreal bat emango dio hilean, idazten ikasten ari direnek bi, eta zenbakiekin eragiketak egiten ari direnek 4 erreal (arras pobreak zirenak salbu). 100 dukateko soldata ordaintzeko, %60a Fagollagako udal-burdinoletako errentetatik aterako da eta gainontzekoa ohiko aurrekontutik[116].

Lasarten 1824an ireki zen lehen eskola publikoa, Hernaniko eta Urnietako udal-fondoen sostengupean[117].

Madoz historialariak 1850ean erroldatu zuen Hernanin 100 ikaslez osatu eta 3.300 errealekin hornituriko lehen letretako eskola publikoa, baita "latin", matematika, geografia eta bigarren irakas-

[115] O.A.P. III. atala, 231. leg. 132. fol.

[116] O.A.P. III. atala, 1.255. leg., 69. fol.

[117] H.U.A. B/5/IV/1/3.

# MENS SANA...

La primera noticia sobre la presencia de un maestro para niños en Hernani data de 1599: se llamaba Juan Ruiz de Ybarra, era vecino de Markina pero vivía en Hernani con su familia. Aunque quizás habría que decir que el pobre Juan "malvivía", pues si bien su sueldo estaba estipulado en 50 duc. anuales, en los dos años que llevaba trabajando sólo había recibido 33. Como las arcas del Ayuntamiento estaban vacías, se decide que el arrendatario de la ferrería municipal de Epela le pague y luego se descuente de su renta[115].

A lo largo del tiempo las condiciones económicas del maestro de la escuela fueron mejorando. El 20 de octubre de 1687 se contrata a Juan Bautista Bizarron, vecino de la navarra Ituren, por cuatro años y con un sueldo de 100 ducados y vivienda en la casa consistorial, con obligación de enseñar a los niños a leer y escribir, contar, la doctrina cristiana "y demás que se necesitan semejantes niños para la buena crianza". Además, cada niño que asista a clase para aprender a leer le dará 1 real al mes, los que están aprendiendo a escribir dos, y los que ya están operando con los números cuatro reales (los pobres de solemnidad quedaban exentos). El sueldo de 100 ducados se sufragará en un 60 % con las rentas de las ferrerías municipales de Fagollaga, y el resto saldrá del presupuesto ordinario[116].

En Lasarte se funda en 1824 una escuela pública sostenida con los fondos municipales de los ayuntamientos de Hernani y Urnieta[117].

En 1850, el historiador Madoz censa en Hernani una escuela pública de primeras letras concurrida por 100 alumnos y dotada con 3.300 reales, así como un colegio particular donde se enseñaba "lati-

[115] A.P.O. Secc. III. Leg. 231, fol. 132.

[116] A.P.O. Secc. III. Leg. 1.255, fol. 69.

[117] A.M.H. B/5/IV/1/3.



Hernani. Eskola Publikoak (Atzieta edo Portale-Txoko).
Hernani. Escuelas públicas (Atzieta o Portale-Txoko).

kuntzari zegokion guztia erakusten zen ikastetxe partikular bat ere[118].

Gure mende honetan, jakin badakigu 1908an Hernanik 3.671ko biztanleria zuela legez, eta 6 eta 12 urte bitarteko 509 ikasleria, bi eskoletan banatuta.

Gure probintziak urte askotan jasandako utzikeriaren ondoren, aipatzekoa da hezkuntza mailan izandako gorakadan Pedro Biteri mezenas jaunak egin zuen lan eskerga; honek 1907an eskola berriak ireki eta bitartekoz hornitu zituen Arrasate (bere jaioterria), Hondarribia, Errenteria, Pasai Antxo eta Donibanen, Irun, Donostia, Aretxabaleta, Urnieta eta baita Hernanin ere, gaur egun "Biteri Kultur Etxea" dagoen leku berean.

Eta 1916ra heldutakoan, Hernanik Karitatezko Ahizpek zuzendutako haur-eskola izango du, lau eskola publiko eraikuntza ederretan kokatuta, neskatilentzat beste ikastetxe bat teresiar erlijiosen kargura eta jesuita frantsesek zuzentzen zuten goi-mai-

[118] MADOZ, Pascual. *Op.cit.* IX. alea, 178. or.

nidad", matemáticas, geografía y todo lo referente a la segunda enseñanza[118].

Ya en nuestro siglo, sabemos que el año 1908 Hernani contaba con una población de derecho de 3.671 habitantes, y una población escolar de 509 niños de entre 6 y 12 años repartidos en sus dos escuelas.

Papel fundamental en la regeneración del tejido educativo en nuestra provincia después de años de abandono, jugó el mecenas D.Pedro de Viteri, que en 1907 fundó y dotó de medios a nuevas escuelas en: Arrasate-Mondragón (su pueblo natal), Hondarribia, Rentería, Pasajes Ancho y de San Juan, Irún, San Sebastián, Aretxabaleta, Urnieta y también en Hernani, en el emplazamiento que hoy ocupa la Casa de Cultura.

Al llegar a 1916 Hernani dispone de una escuela de párvulos regida por las Hermanas de la Caridad, cuatro escuelas públicas instaladas en buenos edificios, otro colegio de niñas a cargo de las

[118] MADOZ, Pascual. *Op.cit.* Tomo IX, p. 178.

lako irakaskuntza-ikastetxe bat ehun ikasle baino gehiagorekin.

Gaur egun herriak hiru ikastola ditu, hots, Langile, Elizatxo eta Urumea, non OHO eta DBH ematen diren, eta OHOean eta Lanbide Heziketan espezializaturiko eskola-zentro bat (Pauleko San Bizenteren Karitateko Ahizpak). Ereñozuko auzoak ere badu bere oinarrizko hezkuntza-zentroa, hots, Txirrita Ikastetxea, eta hernaniar gazteen musika heziketaz Hernani Musika Eskola Publikoa arduratzen da.

Aipaturikoaz gain, Agustin Iturriaga Institutoak BBB, UBI eta IEE ematen ditu, Karmelo Labaka Lanbide Eskolak, Lanbide Heziketa eta IEE eskaintzen dituen bitartean. Haurzaindegi bat, eskola-jangela eta helduen heziketa iraukorreko zentroak osatzen dute gaur egun Hernaniko herrian irakaskuntzako azpiegitura.

religiosas teresianas y un colegio de enseñanza superior con más de cien alumnos que regentaban los jesuitas franceses.

Hoy la villa posee tres ikastolas donde se imparte EGB y ESO (Langile, Elizatxo, Urumea) y un centro escolar especializado en EGB y Formación Profesional (Hijas de la Caridad de San Vicente de Paul). El barrio de Ereñozu cuenta con la Txirrita Ikastetxea, centro de educación básica, y de la formación musical de los jóvenes hernaniarras se ocupa la Hernani Musika Eskola Publikoa.

Además, el Instituto de Bachillerato Agustín Iturriaga imparte BUP, COU y REM, en tanto que la Escuela Profesional Karmelo Labaka ofrece Formación Profesional y REM. Una guardería, un comedor escolar y un centro de educación permanente de adultos, completan las infraestructuras docentes en la Hernani actual.

# ...IN CORPORE SANO

Esan daiteke ia XVIII. mende arte, heriotza Jaungoikoaren Borondatearekin lotuta zegoen fenomeno bat kontsideratzen zela, eta hori egoerara arras burutsu egokitzea zen, garai hartako ezagutza mugatuak eta medikuntzaren baliabide txiroak kontuan hartzen baditugu.

Osasun publikoan izugarrizko aurrerapausoa suposatu zuen herriko medikuaren figura sortu zen arte, urri ziren sendagileak bazterretan eta hauen zerbitzua maila handiko jendearen eskura bakarrik heltzen zen. Hernanin mediku "ofiziala"ren lehen datua 1553ko maiatzekoa da, data honekin, Donostian bizi zen Galapanzo doktoreak astean behin Hernaniko biztanleriaren osasun-beharrak asetzera etorriko denaren hitza eman zuen. Premiazko kasutan, eta aldez aurretik zinegotziren batek egiaztatu ostean, sendagilea bertara etortzera behartua zegoen kontsulta-egunera arte itxaron gabe. Gaixo bakoitzak 2 erreal ematen zizkion bisita bakoitzeko eta udalak 20 dukat urteko soldata, erdia San Migel egunean eta beste erdia kontratua sinatu eta handik urte betera[119].

Hamarkada batzuk geroago, 1631ean, Pedro Castro doktoreak, urtean 500 errealeko saria jasotzen du hamabostaldiro herrira etortzeagatik. Are gehiago, etxera egiten duen bisita bakoitzeko gaixoak 4 erreal emango dizkio, 6 Lasarte eta mugako zonaldetara eramaten badute, eta 8 erreal "Hurumea bailaran" bizi direnek[120].

Honenbestez, 1672an aurkitzen dugu Hernanin bizi den lehen sendagilea: Tristan Navarro doktorea, Udalak urtean 120 dukat ematen dizkio soldata gisa, zer esanik ez desplazamendu bakoitzeko kobratzen zuenaz, hots, zilarrezko erreal bat herribarruko eta inguruko gaixoengandik, bi erreal gai-

[119] O.A.P. III. atala, 915. leg., 7. fol.

[120] O.A.P. III. atala, 1.071. leg., 30. fol.

# ...IN CORPORE SANO

Prácticamente hasta el siglo XVIII, la muerte se consideraba un fenómeno relacionado casi exclusivamente con la Voluntad Divina, lo que constituía una sabia adaptación al medio, dados los limitados conocimientos y los depauperados medios de la ciencia médica.

Hasta que surgió la figura del médico municipal, que supuso un gran salto adelante en la salud pública, el número de galenos era pequeño y su servicio sólo estaba al alcance de las clases pudientes. El primer dato sobre la existencia de un médico "oficial" en Hernani aparece en mayo de 1553, fecha en que el doctor Galapanzo, residente en San Sebastián, se compromete a cubrir una vez por semana las necesidades sanitarias de la población hernaniarra. En caso de emergencia, y previa comprobación por alguno de los concejales, el médico estaba obligado a desplazarse sin esperar al día de consulta. Cada enfermo le daba 2 reales por visita y el concejo 20 duc. de salario anual, la mitad en la festividad de San Miguel y la otra mitad al año de la firma del contrato[119].

Décadas después, en 1631, el doctor Pedro Castro recibe un estipendio de 500 reales al año por desplazarse cada quincena a la villa. Además, por cada visita a domicilio el enfermo le pagaría 4 reales, 6 si le obligan a ir hasta Lasarte y zonas limítrofes, y 8 reales a los residentes en el "valle del Hurumea"[120].

Al llegar a 1672 encontramos ya al primer médico residente en Hernani: es el doctor Tristán Navarro, asalariado por el Ayuntamiento con un sueldo de 120 duc. al año, amén de las minutas por cada desplazamiento que ascendían a un real de plata para los pacientes del casco y arrabales próxi-

[119] A.P.O. Secc. III. Leg. 915, fol. 7.

[120] A.P.O. Secc. III. Leg. 1.071, fol. 30.

xoaren etxea legoa erdi batera baldin bazegoen (2,7 kilometro), eta 4 erreal Lasartera edo Fagollaga baino haratago eginiko bisita bakoitzeko[121].

Pasadizozko gertaera benetan Agustin Zabala medikuaren kasua, 1695eko egun batez Usurbila bisita profesional bat egitetik itzultzerakoan bere emazte Catalina de Sasoeta eta bere koinatu Joseph Antonio de Sasoeta, parrokiako benefizioduna, etxetik joan zirela ikusi zuenean, beraiekin altzari, bitxi eta oheko arropa eta alkandorak ere eramanez. Zorigaitzeko doktoreak benefizioduna salatu zuen Iruñeko gotzaindegian, bere emaztea ezkontza-egoitza uztera bultzatzeagatik. Katalinak bere aldetik ezkontza banantzea eskatu zuen, Agustinek "hitzez eta egitez zakar tratatzea eta hortzak atera arte kalte egitea", eta neskameekin oheratu izana salatuz. Azkenean, ordea, urak bere onera itzuli eta bi aldeek adiskidetzea erabaki zuten (ez dakiguna da zenbat denborako izan ote zen)[122].

Hernanik, 1916. urtean, hiru sendagile (bat Lasarten) eta bi botika zituen biztanleak artatzeko. Data berean, Gipuzkoak, orotara, 196 sendagile eta 59 botika zituen.

## EBAKETARIA

Osasuna medikuen esku zegoen, eta hauek "bizargin-ebaketari-kirurgilari-haginlari-odol ateratzaile" delakoen laguntzaz baliatzen ziren, hau da, ebaketari edo zirujau izenez ziren haietaz. Ebaketaria arduratzen zen ebakuntza txikiak egiteaz, haginak ateratzeaz, eta "soldatapeko mediku titularra" zenaren aginduz, gaixoari odola ateratzeko izainak jartzeaz. Lanbide edo ofizio honetan hasten ziren mutilak, hiru eta bost urte bitartean aritzen ziren ikasle edo aprendiz gisa "bizargin-ebaketari-haginlari-odol ateratzaile" batekin.

XVI. mendean Hernanik bazuen bere soldatapeko ebaketaria. Hori garbiro atzeman daiteke udalagirien liburuan jasotzen den 1549ko azaroaren 9ko erabakiaren arabera[123]:

> "...mintzatu ziren herri honetan zegoen bizargin baten beharraz eta premiatsuki behar zela probintziaren barne bilatzen hasi. Eta orobat ados jarri ziren Udalak ardura berezia ipini eta benetan ahalegindu behar zuela ordainsari egokia emanez bizargin ofizial bat ekartzen".

[121] O.A.P. III. atala, 1.195. Leg., 378. fol.

[122] Iruñeko Elizbarrutiko Artxiboa (A.D.P.) 988/1 eta 2. leg.

[123] H.U.A. A/1/1/3

mos, el doble si el domicilio estaba a media legua (unos 2,7 kilómetros), y 4 reales por cada visita a Lasarte y más allá de Fagollaga[121].

Anecdótico es el caso del facultativo Agustín Zabala, que a su vuelta de una visita profesional a Usúrbil un día de 1695 se encontró que su esposa Catalina de Sasoeta y su cuñado Joseph Antonio de Sasoeta, beneficiado de la parroquia, habían abandonado el hogar llevándose consigo muebles, alhajas y hasta las ropas de cama y sus camisas. El infortunado doctor denunció al clérigo ante el obispado de Pamplona por inducir a su mujer a abandonar el hogar conyugal. Catalina por su parte pide la separación matrimonial, acusando a Agustín de tratarla "asperísimamente de palabra y de obra y que la había descalabrado hasta sacarle los dientes", además de cometer adulterio con sus criadas. Al final todo vuelve a su cauce (ignoramos por cuánto tiempo) y las partes consienten en una reconciliación[122].

En 1916 atendían al vecindario de Hernani tres médicos (uno en Lasarte) y disponía de dos farmacias. En la misma fecha, Gipuzkoa contaba con 196 médicos y 59 farmacias.

## EL CIRUJANO

La salud estaba en manos de los médicos, que se auxiliaban del "barbero-cirujano-dentista-sangrador", popularmente conocidos como *cirujanos*. El cirujano se encargaba de hacer pequeñas intervenciones o curas, de sacar las muelas y, por prescripción del "médico titular asalariado", de aplicar al paciente sanguijuelas para hacer las recurridísimas sangrías. En este oficio se iniciaban los mozos pasando un período de entre tres y cinco años como aprendices con un "barbero-cirujano-dentista-sangrador".

Ya en el siglo XVI tenía Hernani su propio cirujano asalariado. Así se desprende del acuerdo del 9 de noviembre de 1549, contenido en el libro de actas municipal[123]:

> "...platicaron como esta villa avia falta de un barbero y que hera menester que en alguna parte de esta provincia se buscare. Todos los quales fueron de conformidad que el Regimiento tubiese espe-

[121] A.P.O. Secc. III. Leg. 1.195, fol. 378.

[122] Archivo Diocesano de Pamplona (A.D.P.). Leg. 988/1 y 2.

[123] A.M.H. A/1/1/3.

Joan Martin de Sasoetak 1595eko Santu Guztien egunean sinatu zuen bere kontratua Hernaniko ebaketari bezala. Bost urte beranduago, herriko zinegotzi kargua betetzen ikusiko dugu[124]. Deitura berdina du 1624ko ebaketariak ere, Sebastian de Sasoeta, zeinak Martin de Sasoeta hartzen duen aprendiz gisa (bere iloba edo senitartekoren bat ziurrenera), hiru urteren buruan odola ateratzen eta bizarra mozten ikas dezan. Ordainetan, maisuak 6 dukat eta gari karga bat, eta beste 6 dukat kontratuaren amaieran agintzen dizkio. Baina *morroiak* epea amaitu baino lehen lagatzen badu, ebaketari-maisuak beste ofizial bat hartuko du ordezkatzeko, eta honen soldata Martinen aitak ordaindu beharko du[125].

Sebastian berak, 1636an, elizako apaiz eta benefiziodun Jose de Percaizteguiri, Ayçarna etxea erosi zion parrokian zuen hilobi eta guzti[126].

Eta 1739an Antonio de Bengoechea ebaketariarekin eginiko kontratu batek dioenez, biztanleak egunez bezala gauez ere artatzeko derrigortasuna ezarri zen, beraz, edozein arrazoi medio, herritik joan beharrean aurkituz gero, ordezko bat izendatuko zuen[127]. Argi geratzen da lanbide honek gizarte tradizionalean zuen garrantzia.

Lehen, gaur egun baino gehiago behar bada, ofizioen artean ustezko kapaeretasunez nahasturiko jatorrizko hierarkia-maila bat zegoen, eta inguru hauetan ere, gehienek bakoitzak beretzat eskatzen zuen. Hala pentsa daiteke behintzat Urnietan jaio eta Hernanin bizi zen Maria Manuela de Huizi koitaduari gertatutakoak; izan ere, Joseph de Arizcun "ebaketari mutila"k haurdun utzi baitzuen gure emakumea. Hasieran mutilak ezkontzeko hitza eman zuen idatziz, baina aldarera igotzeko garaian atzera egin zuen, eskolako maisuak engainatuta 15 urte besterik ez zituela sinatu zuela argudiatuz; are gehiago, Aitoren seme ospetsua dela dio, Maria Manuela harakin baten alaba baizik ez den bitartean, ofizio erdeinagarria bateon bat izatekotan. Bere erantzunean neskatxak dio Arizkunek ez zituela 15 urte 19 baizik, eta aurrekoak mandazain izanak zituela gogorarazten dizkio, bereak aldiz, Goizuetarrak zirela eta guztiek ere kaperatasuna gozatzen zutela. Halatan bada, 1760ko epaiak, ebaketari laguntzailea Maria Manuelarekin ezkontzera kondenatu zuen[128].

[124] H.U.A. A/1/3/1, 59. fol. e. hurr.

[125] O.A.P. III. atala, 1.065 Leg., 80. fol.

[126] O.A.P. III. atala, 1076. leg., 249 fol.

[127] O.A.P. III. atala, 1.335. leg., 141. fol.

[128] D.P.A. 1.688/11. leg.

cial cuydado y procurase de traer oficial barbero dándole algun justo partido".

Joan Martín de Sasoeta firma su ingreso como cirujano de Hernani el día de Todos los Santos de 1595. Cinco años después, le vemos ocupando el cargo de regidor de la villa[124]. El mismo apellido comparte el cirujano de 1624, Sebastián de Sassoeta, quien toma como aprendiz a Martín de Sassoeta (con toda probabilidad un sobrino o pariente próximo) para que en el plazo de tres años pueda aprender el oficio de sangrar y afeitar. A cambio, el maestro recibe 6 ducados y una carga de trigo, y se le prometen otros 6 ducados al expirar el contrato. Pero si el *morroi* abandona antes de cumplirse el plazo, el maestro cirujano tomará otro oficial para que le sustituya cuyo sueldo pagará el padre de Martín[125].

El mismo Sebastián adquiere en 1636 a don José de Percaiztegui, clérigo y beneficiado de la iglesia, la casa llamada Ayçarna con su correspondiente tumba en la parroquia[126].

Un contrato de 1739 con el cirujano Antonio de Bengoechea establece la obligatoriedad de atender a los vecinos tanto de día como de noche, de forma que si por cualquier razón tuviese que ausentarse del pueblo nombraría un sustituto[127]. Queda así claramente señalado el peso de este oficio en la sociedad tradicional.

Ayer tanto o más que hoy, existía una prístina escala de jerarquías entre los oficios entreverada con supuestas hidalguías que por estos pagos casi todo el mundo reivindicaba para sí. Esto se evidencia en lo acaecido a la pobre María Manuela de Huici, natural de Urnieta y residente en Hernani, a quien el "mancebo cirujano" Joseph de Arizcun dejó embarazada. En un principio el varón se comprometió por escrito a desposarla, pero a la hora de subir al altar se echó atrás argumentando que firmó engañado por el maestro de escuela cuando sólo tenía 15 años; dice además que es hidalgo notorio, mientras María Manuela es hija de carnicero, oficio vil donde los haya. En su réplica, la muchacha aclara que no eran 15 sino 19 los años que tenía Arizcun, a quien recuerda sus antecedentes arrieros, al contrario que los suyos provenientes de Goizueta donde todos los naturales gozan de hidalguía. La

[124] A.M.H. A/1/3/1, fol. 59 v. ss.

[125] A.P.O. Secc. III. Leg. 1.065, fol. 80.

[126] A.P.O. Secc. III. Leg. 1.076, fol. 249.

[127] A.P.O. Secc. III. Leg. 1.335, fol. 141.

Francisco de Zaragüeta —oihartzun jaso eta handiko deitura gure herrian— XVIII. mendeko hirugarren hamarkadan bere odol ateratzaile tailerra zeukan kale Nagusiko Pepe Toledoren etxean, Gregorio Sorbet laguntzaile zuela[129].

Hara, 1876rako Hernanik bere praktikante propioa du, ofizio honek antzinako odol ateratzaile-ebaketari-bizarginaren ezagutzak jaraunsiko ditu eta oraino bizargin-haginlariarekin batera ihardungo du, hau bere kurrikak *zintzilikatu* eta guraizetara bakarrik ematen ez den bitartean (gure mende honetan gertatuko da hori).

## BOTIKARIA

Hernaniko Udalak, 1638ko abenduaren 17an eginiko batzarrean Juan de Lizardi botikariak emandako ultimatuma eztabaidatu zuen, honek Donostira itzultzearekin mehatxatu zuen ez bazitzaion soldata finko bat ezartzen. Herriak botikariarik gabe geratu ezin zuenez, zinegotziek urteko 30 dukat ematea erabaki zuten[130].

Lanbide honetan garai bat markatu zuen pertsonaia Francisco de Herauso edo Erauso izan zen, hogeita hamar urtez, XVII eta XVIII. mendeen artean, Hernaniko botikari titularra izandakoa, eta ondorengoen maisua. Hara, esaterako, 1680an 14 urteko Antonio Ansa hartu zuen bere ardurapean, eta lau urte t'erdiz lanbidea erakutsi zion, mantenduz eta jantziz, 200 errealeko ordainaren truke[131]. Oraino 1702an, Udalak 10 peso ordaintzen zizkion urtean ospitalerako egiten zituen sendagaiengatik[132].

Kapitulu honetan aipatzekoa da antzina zenbait gaixotasun sendatzeko oso ohikoa zen elementu bat, hots, izaina. Udala arduratzen zen hauen hazkuntzaz ere, herriko sendagileak 1851eko abuztuaren 10ean alkateari zuzendutako gutun bitxi honek adierazten duen legez[133]:

> "Duela urte batzuetatik hona ibai hori (Urumea) hurbileko familia batzuek ehiza egitearren ahatez beterik daukatela eta garbiro ikusten dela beste inon baino kalitate hobeko diren gure izain hauen kumeak ahateek garbitzen dituztenez, Lehendakari jaunari gomendatzea baita galera hau ekidin dezan ahateak hor ibiltzea eragotziz".

[129] H.U.A. A/14/1/3.

[130] H.U.A. A/1/5, 128. fol.

[131] O.A.P. III. atala, 1.234. leg., 7. fol.

[132] H.U.A. A/1/8, 128. fol.

[133] H.U.A. A/1/15, 144. fol.

sentencia del año 1760, condenará finalmente al cirujano auxiliar a pasar por la vicaría del brazo de María Manuela[128].

Francisco de Zaragüeta —apellido de largas y cultas resonancias en nuestra villa—, tenía en la tercera década del XVIII su taller de sangrador en la casa de Pepe Toledo de la calle Mayor, con Gregorio Sorbet como ayudante[129].

Ya para 1876 Hernani tiene su propio practicante, oficio que hereda los conocimientos del antiguo sangrador-cirujano-barbero y que coexistirá todavía con el barbero-sacamuelas hasta que éste *cuelgue* las tenazas y se dedique sólo a las tijeras (eso sucede al entrar nuestro siglo).

## EL BOTICARIO

El pleno del Ayuntamiento del 17 de diciembre de 1638 discute el ultimátum lanzando por el boticario Juan de Lizardi, quien amenaza con volverse a trabajar a San Sebastián si no se le otorga un salario fijo. Como la villa no podía prescindir de la figura del boticario, los ediles acuerdan ofrecerle 30 ducados anuales[130].

Un personaje que marcó época en el oficio fue Francisco de Herauso o Erauso, boticario titular de Hernani durante treinta años entre los siglos XVII y XVIII, y maestro de sus sucesores. Por ejemplo, en 1680 aceptó bajo su tutela al joven de 14 años Antonio de Ansa, a quien enseñaría el oficio durante cuatro años y medio, alimentándolo y vistiéndolo, con una contraprestación de 200 reales[131]. Todavía en 1702 el Ayuntamiento le pagaba 10 pesos al año por las medicinas que confeccionaba para el hospital[132].

En este mismo capítulo cabe citar uno de los elementos antaño tradicionales para la curación de determinados males, como eran las sanguijuelas. También de su cría se ocupaba el Ayuntamiento, como nos informa esta curiosa carta que el médico del pueblo dirige al alcalde, de fecha 10 de agosto de 1851:

> "Hallándose de algunos años a esta parte inundada dicha ría (el Urumea) de patos pertenecientes a

[128] A.D.P. Leg. 1.688/11.

[129] A.M.H. A/14/1/3.

[130] A.M.H. A/1/5, fol. 281 v.

[131] A.P.O. Secc. III. Leg. 1.234, fol. 7.

[132] A.M.H. A/1/8, fol. 128.

## OSASUNEMAILEA

Amorru izenez ezagutzen den gaixotasuna, antzinatik ezagutu eta Aristoteles, Celso, Galeno eta beste batzuk azaldutakoa, nerbio-nahasdura, espasmo-uzkurdura eta hidrofobiarekin adierazten den infekzio septikoa da, eta listuaren bidez kutsatzen zaie beste animalia eta gizakiei. Amorruari aurre egiteko osasunemailea zegoen; pertsonaia hau oso estimatua zen nekazari munduan eta erremedio anitz erabiltzen zituen ezagutza zerutiar edo enpirikoa sineskeriarekin nahasiz[134].

Honela bada, 1635ean, Hernanik Alegiako Diego Perez de Navarro kontratatu zuen osasunemaile bezala, eta kargu horretan iraungo zituen ia hamar urte. Bi bisita egiten zituen urtean, bata martxoan eta bestea irailean, eta 1.700 marabedi kobratzen zituen[135].

Eta 1647an Inazio Altubek ordezten du "soldatapeko osasunemaile" gisa. Honen lanari buruz, honako hau esaten da Udalaren 1647ko ekainaren 23ko akta batean[136].

> "...berorrek alkateak beroriei esan zien behar zutela jakin: nik neuk duela zortzi Inazio Altube osasunemailea izatez gabiriarra herri horretako bizilagun batzuen bidez beraren berri jakinik gurera ekarrarazi nuen, Hurumea aldean abere eta zenbait etxetan amorrua deitzen den pozoina sarturik zegoelako. Etorri zen bada, delako sendatzaile? hori eta gaitza sarturik zegoen Hurumea aldeko etxeak eta baserriak bisitatu ere bai, langintza horretan egindako egun horien ordainez zilarrezko berrehun erreal jaso zituelarik, eta hitzarturik gelditu urtero bisita egingo zuela sendatze-lanak egiteko herri honetan eta beronen eskumeneko lurraldean Ekaineko San Joan eguna baino zortzi egun lehenago. Hala-hala, herriak hamar beloi-dukat zilarrezko emango zizkiola urteko eta hori adierazten ziela nola jokatu jakin zezaten. Eta arazoa aztertu eta zilarrezko erreal horietaz mintzatu ondoren guztiek beren adostasuna erakutsi zuten, esanez, sendatzaileari eman zitzaion ordanisaria zilegi-lurretako (herri-lurrak) etekinetatik ematekoa zela eta herriko bizilagunen artean banaketa egiteko garaian heltzean diru hori deskontatua izan zedila. Eta horixe da berorrek alkateak aurrera begira hartu erabakia eta betetzeko bidean jarri zuena".

*Argien mendea* deiturikoan, ordea, osasunemailearen lanbidea goitik-behera eroriko da; are, bere

[134] AGUIRRE SORONDO, Antxon. *Los saludadores*. Nafarroako Etnografia eta Etnologiako koadernoak, 56. zk. Iruñea, 1990, 308-319. or.

[135] H.U.A. A/1/5 216, 494. or.k

[136] H.U.A. A/1/5, 449 fol.

familias que tienen contiguos a ellas sus cacerías y habiendo enseñado la experiencia que son causa de que se eche a perder la cría de sanguijuelas tan apreciadas por sus cualidades superiores a las que se crían en otros puntos, se recomienda también al señor Presidente procure evitar este mal impidiendo el que anden los patos en ella".

## EL SALUDADOR

La enfermedad que designamos como rabia, conocida desde la antigüedad y descrita ya por Aristóteles, Celso, Galeno y otros, es una infección séptica que se manifiesta por desórdenes nerviosos, contracciones espasmódicas e hidrofobia, y se comunica por la saliva a otros animales y al hombre. Para combatir la rabia estaba el saludador, personaje muy estimado en las comunidades rurales y que empleaba un abanico de remedios conjugando el conocimiento empírico con la superstición[134].

En 1635, Hernani contrata como saludador asalariado a Diego Pérez de Navarro, vecino de Alegia, quien permanecería en el cargo durante casi una década. Efectuaba dos visitas al año, una en marzo y otra en septiembre, por las que cobraba 1.700 maravedís[135].

En 1647 le sustituye en el puesto de "saludador asalariado" Ignacio de Altube. Sobre su trabajo se dice en un acta del Ayuntamiento de fecha 23 de junio de 1647[136]:

> "...su merced el dicho alcalde dijo como sus mercedes debían saber: yo en ocho hice traer a Ignacio de Altube, saludador vecino de Gabiria por noticia que le dieron algunos vecinos de esta dicha villa, que en el ganado del Hurumea y en algunas casas había empezado el veneno de la rabia, para cuyo reparo acudieron el suso dicho e hizo visita en las casas de dicho Hurumea y en caserías de la jurisdicción de esta dicha villa y dentro della en que había, ocupando algunos días y de su trabajo le habían dado doscientos reales de plata y para adelante hicieron ajuste con el suso dicho, en que se había obligado a hacer una visita en cada un año y saludar generalmente en la dicha villa y su jurisdicción ocho días antes de San Joan de Junio, con que la dicha villa le dará diez ducados de vellón en cada un año y así les daba noticia dello, para que vean sus mercedes lo que se deba hacer. Y tratado y platicado sobre ello

[133] A.M.H. A/1/15, fol. 144.

[134] AGUIRRE SORONDO, Antxon. *Los saludadores*. Cuadernos de Etnografía y Etnología de Navarra, nº 56. Pamplona, 1990, pp. 308-319.

[135] A.M.H. A/1/5, fols. 216, 494.

[136] A.M.H. A/1/5, fol. 449.

atzetik ibiliko dira 1755eko abenduaren 24ko Erret Agirian ikusi daitekeen legez[137]:

> "Hemendik aurrera ez dadila Errepublikaren (Herria, Udala) ondasunetatik ezein marabedi ordaintzeko biderik egin sendatzaileari, ez ordainsari modura eta ez beste inola, bestela zinegotziei eta herritarrei ezarriko baitzaie zama hori".

Alabaina, euren aurka aldarrikatu ziren probidentzia guztien gainetik, Pablo Gorosabelen esanetan, bere egunetan oraino, joan den mendearen erdialdera, Gipuzkoan zenbait osasunemailek jarduten zuen[138].

## OSPITALEAK

Ertaroko ospitale gehienak, eta geroxeagokoak ere, hirutan banandutako gela xume bat izaten zuten: bata gizonezkoentzat, bestea emakumezkoentzat eta hirugarren bat egoitza gisa. Behe oinean, gehienetan, kapera zegoen, bertakoek euren erlijiobetebeharrekin kunplitu ahal izateko. Gaixotzen ziren erromes, eskale, gudari edo merkatariak ospitalean edo lazaretoan artatzen zituzten, non egunero platerkada bat zopa ogi pusketa batekin ematen zitzaien, eta arto-zurikinez eginiko koltxoia lurrean atseden har zezaten. Han geratzen ziren Jainkoak beren etorkizuna erabakitzen zuen arte.

Hernanin lehen ospitaleari buruz ditugun berrietatik zera atera dugu, Santa Maria Madalena zuela izena eta kale Nagusiaren bukaeran zegoela, San Agustin komentu inguruan. Gelak goiko solairuan zeudela eta behean kapera, zurezko kapera txiki bat eta eskailera-maila batzuren bidez igotzen zela presbiteriora. Lehenengo aipamenak 1529ko data du, Maria Lopez de Galarretak bere alde dukat bateko dohantza egin zuenekoa[139] eta 1679. urtean berreraiki zen[140].

Madalena ospitalea udalaren babespean zegoen, beraz Udalari zegokion ospitale-zaina izendatzeko ahalmena. Ermita zenbaitetako *serora* haien antzera, ospitale-zaina kale guztiak igarotzen zituen arratsaldero bere dunba edo zintzarriarekin, hildakoen alde otoitz bat eta ospitalerako limosna eskatuz[141]. Hala, 1685eko urriaren 16an, Santiago de

[137] H.U.A. A/6/1/3.

[138] GOROSABEL, Pablo. *Noticias de las cosas memorables de Guipúzcoa*. La Gran Enciclopedia Vasca. Bilbo. 1972[3]. 299. or.

[139] O.A.P. III. atala, 910. leg. 61. fol.

[140] O.A.P. III. atala, 1.222. leg., 138. fol.

[141] H.U.A. A/1/5, 11. fol.

> todos de conformidad dijeron que los doscientos reales de plata que se le dieron al dicho saludador se entiendan haberse dado del producto de los montes francos y en la repartición que se hiciese entre los vecinos de la dha. villa se descuenten en común y el asiento que su mrd. el dicho alcalde hizo para adelante se contiene de suso se lleve a debida execución...".

En el llamado *siglo de las luces* el oficio del saludador entrará en crisis, e incluso empezará a ser perseguido como se desprende del Real Despacho de 24 de diciembre de 1755[137]:

> "Que de aquí en adelante no se paguen de los efectos de la República (Ayuntamiento) maravedís algunos a ningún saludador por salario ni en otra forma so pena de que lo contrario haciendo se cargará a los capitulares como a los particulares".

No obstante las providencias que se dictaron contra ellos, Pablo Gorosabel afirmaba que aún en sus días, a mediados del siglo pasado, continuaban actuando en Gipuzkoa varios saludadores[138].

## HOSPITALES

La mayoría de los hospitales medievales e incluso los posteriores se reducían a una simple habitación dividida en tres secciones: una para hombres, otra para mujeres y la tercera para la hospitalera. Por lo general en la planta baja estaba la capilla, donde los internos podían cumplir con sus obligaciones religiosas. Los peregrinos, mendigos, soldados o comerciantes que enfermaban eran acogidos en el hospital o lazareto, que les aseguraba un plato de sopa con un mendrugo de pan al día y un colchón de hojas de maíz sobre el suelo para que reposaran. Allí permanecían hasta que Dios decidiera su suerte.

Del primer hospital que tenemos noticia en Hernani sabemos que se llamaba Santa María Magdalena y que se encontraba al final de la calle Mayor, cerca del convento de San Agustín. Las dependencias ocupaban el piso alto y en la planta baja estaba la capilla, con pequeño coro de madera y un presbiterio elevado al que se accedía por unos escalones. La primera cita tiene fecha de 1529, cuando María López de Galarreta testamenta en su favor un ducado[139]. Se reedificó el año 1679[140].

[137] A.M.H. A/6/1/3.

[138] GOROSABEL, Pablo. *Noticias de las cosas memorables de Guipúzcoa*. La Gran Enciclopedia Vasca. Bilbao, 1972[3a], p. 299.

[139] A.P.O. Secc. III. Leg. 910, fol. 61.

[140] A.P.O. Secc. III. Leg. 1.222, fol. 138.

Alçegak ospitale-zainaren postua eskatu zuen, bere emazte eta alabarekin bertan bizi ahal izateko baldintzarekin, eta ohitura zen bezala, herriak egurra eta gastuetarako sos batzuk segurtatzearen alde[142].

Herriaren beharrak dagoeneko ezin zituela bete eta, 1866an Udalak lursail bat erosi zuen ospitale berria egiteko, eta hori behin eraikitakoan, Santa Maria Madalena ospitale historikoa saldu zuen[143].

Ospitale berriak 40 lagun artatzen zituen 1916an. Gerora zaharren egoitza bilakatu zen eta horretan dirau gaur egun.

[142] O.A.P. III. atala, 1.228. leg., 377. fol.

[143] O.A.P. III. atala, Leg. z/g., 577. fol. 1868. urtea.

[279] Informazio gehiago nahi bada, ordenantza hauetaz, irakur bedi Maria Rosa Aierbe Iribarren lana: *Ordenanzas Municipales de Hernani: 1542*. Euskal Herriaren Adiskideen Elkartearen buletinean argitaratu zena. XXXVIII. urtea, 1-2-3-4 koadernoak. Donostia, 1982, 257. or. eta hurr.

Con motivo de San Isidro Labrador, patrón de las gentes del campo, nuestros *baserritarras* celebran el 15 de mayo un acto religioso, partidos de pelota, exhibición de *bertsolaris* y una comida de hermandad.

El primer domingo de diciembre y organizado por Herri Jakintza Taldea, la Feria de Artesanía reúne en la plaza a un nutrido número de artesanos en todas las especialidades.

A la Sociedad Xalaparta debemos la magnífica iniciativa, surgida en 1988, de otorgar un premio anual a las personas o instituciones que destaquen por su trabajo en favor de la sociedad hernaniarra o por la difusión del nombre de la villa. En su primera edición, el premio "Hernaniar bikaina" recayó en el atleta Joxe Mari Garin, en el productor cinematográfico Elías Querejeta en 1989, y al año siguiente en el Club Deportivo Hernani por sus bodas de oro. En las sucesivas convocatorias han obtenido el galardón el montañero Martín Zabaleta (1991), el investigador Antxon Idarreta (1992), el historiador Luis Blas Zuleta (1993), los atletas Prudencio Ayerra (1994) y Juan Bautista Adarraga (1995), Ignacio Iruin (1996) y el director de la Banda Municipal de Música, Manuel Sagarna (1997).

## LA VISITA A LOS MOJONES O 'MUGARRI FESTA'

El emperador Carlos I de España y V de Alemania firmó en Valladolid el 12 de diciembre de 1542 las nuevas ordenanzas de la villa de Hernani —que, según costumbre de la época, serían muy semejantes a las precedentes, consumidas por las llamas tres décadas antes durante el ataque del ejercito francés—, en cuyo artículo 14 se decía[279]:

> "Y ordenamos y mandamos que los dichos oficiales (actuales concejales) después que fueren electos dentro de los seis días primeros siguientes hayan de ver y visiten los mojones y límites que dividen y apartan la jurisdicción de la villa con los lugares circunvecinos y así bien las fuentes y pontones que hay en jurisdicción de la dicha villa y si algunos mojones se hallaren faltos o las puentes se requirieren reparar o renovar provean en ello so pena de perder sus salarios y que la dicha pena sea la mitad para el acusador y la otra mitad para el

[279] Para mayor información sobre estas ordenanzas léase el trabajo de María Rosa AYERBE IRIBAR: *Ordenanzas Municipales de Hernani: 1542*, publicado en el Boletín de la Real Sociedad Bascongada de los Amigos del País. Año XXXVIII, cuadernos 1-2-3-4. San Sebastián, 1982, pp. 257 ss.

bisitatu behar dituztela, eta herri horretako mugapean dauden iturri eta pontoiak ere bai, eta baldin mugarriren batzuk falta badira eta zubiak konpondu edo berritu beharrean aurkitzen badira, aurre-xeda dezatela beren soldatak galtzeko zigorraren azpian, eta zigor hori izan dadila, erdia salatzailearentzat eta beste erdia exekutatzen duen epailearentzat, eta zigor horri buruz alkatea ez dadila eseri entzute ematera, harik eta lehen esandakoa aurre-xedatzen eta egiten den arte".

Baina mugarriak jartzeko teknika mende asko antzinagokoa da. Ezagutzen dugun lehenengo aurrekina erromatarren kulturakoa da: orduan ere jada ipintzen ziren harri sakratuak muga erakundetarrak edo lur-jabetza partikularrenak markatzeko[280].

Mugarri-ikustea, San Migel eguna (irailaren 29a) pasata gero egiten zen jeneralean, eta atzeratu egiten zen eguraldiak galarazten baldin bazuen, 1660an gertatu zen bezala; urte horretan urtarrilean egin zen, Hernaniko erregidoreek hartarako izendaturiko sei pertsonen bidez.

Urtero, bisita egin ondoren, zerrenda bat egiten zen falta ziren edo hondatuta zeuden mugarriena, eta akta-liburuan jasotzen zen. Mugarriren bat desagertu edo lekuz aldatua bazegoen, harekin zerikusi zeukaten udalek pertsona jakin batzuei ematen zieten eskuordea, bakean eta adiskidetasunean auzia konpon zezaten. Ederki arautua zegoen harrien kalitatea ere: 1702ko testu batek ordenatzen du, mugarriak "Aindi mendiko harri gorriekin" egin behar direla (gaur Oinddi mendi).

Bisitadoreen osaeraz eta banakeraz, hainbat bariante jasotzen dituzte akta-liburuek. Hasieran, XVI. mendean, alkatea, merinoa eta nahi zuten herriko adin nagusiko bizilagun guztiak izaten ziren arduradunak. Hiru egun ibiltzen ziren Hernaniko lurralde-mugetatik: egun bat Urnieta aldetik, beste bat Lasarte aldetik, eta hirugarren eguna gainerako lurretatik. Erritoa laburtzeko, XVIII. mendean bost zatiketa egin ziren udalerrian: "Ihartza, Iorin, Orkolaga, Harrikarte eta Belarraza", eta eskualde bakoitzera kuadrilla bat bidali zen. Hirugarren etapa batean, XIX. mendearen hasieran, hiru pertsona izendatzen ditu Udaletxeak —"Señores de Justicia y su comitiva" izenekoak—, hiru egunetan Hernaniko udalerriaren muga-lurrak korri zitzaten. Kasu guztietan Udalak ordaintzen zituen bisita egin ondoko bazkariak: 1593an 30 bazkaldar izan ziren,

[280] AGUIRRE SORONDO, Antxon: *La visita a los mojones*. "Mugarri Festa"ko egitaraua. Hernaniko Udala. Iraila 1990.

juez que lo ejecutare y que so la dicha pena el alcalde no ponga ni se asiente a dar audiencia hasta tanto que lo susodicho se provea y haga".

Pero la técnica del amojonamiento para marcar lindes se remonta muchos siglos antes. El primer antecedente que conocemos corresponde a la cultura romana: ya entonces se colocaban piedras sagradas en los terrenos públicos y particulares[280].

La visita a los mojones se realizaba por lo general después de la festividad de San Miguel (29 de septiembre), aplazándose si la climatología lo impedía como ocurrió por ejemplo en 1660, en que tuvo lugar en el mes de enero a cargo de seis personas nombradas al efecto por los regidores de Hernani.

Cada año después de la visita se establecía una relación de los mojones que faltaban o que estaban deteriorados, y ello se recogía en los libros de actas. Si alguno había desaparecido o trasladado de lugar, los ayuntamientos afectados delegaban en ciertas personas para que pacífica y amigablemente resolvieran el tema. Las calidad de las propias piedras estaba perfectamente regulado: un texto de 1702 ordena que los nuevos mojones se confeccionen con "piedras rojas del monte de Aindi" (hoy Oindi).

En cuanto a la composición y distribución de los visitadores, los libros de actas recogen diversas variantes. Inicialmente, en el siglo XVI, el alcalde, el merino y todos los vecinos varones y mayores de edad que lo desearan eran encargados. Caminaban durante tres días por los límites territoriales de Hernani: uno por la zona de Urnieta, otro por la de Lasarte y el tercer día por las tierras restantes. Para simplificar el rito, en el siglo XVIII se hicieron cinco divisiones del término municipal, enviando una cuadrilla a cada una de las zonas: "Ygarza, Yorin, Orcolaga, Arricarte y Belarraza". En una tercera etapa, a comienzos del siglo XIX, el Ayuntamiento nombra a tres personas —los llamados "Señores de Justicia y su comitiva"—, para que por espacio de tres días recorriesen las tierras limítrofes del municipio hernaniarra. En todos los casos, el Ayuntamiento pagaba las comidas posteriores a las visitas: en la de 1593 participaron 30 comensales, 36 en la de 1627 y 44 en la cena del mismo año; 34 en 1629 y 19 en 1631. Por lo común, el menú de estos almuerzos incluía carnero, vaca,

[280] AGUIRRE SORONDO, Antxon. *La visita a los mojones*. Programa de la "Mugarri Festa". Ayuntamiento de Hernani. Septiembre 1990.

1627an 36 bazkaldar, eta 44 bazkaldar urte bereko afarian; 1629an 34 bazkaldar, eta 1631an 19. Ohiki, bazkari hauetako menuetan sartzen ziren; aharikia, behikia, urdaia, ardoa, sagardoa eta ogia. Inoiz, abiatu aurretik egindako gosariaren gastuak ere agertzen dira. Dantzariak ere baziren, eta azunbre ardoa (2,5 litro) ematen zen haientzat pertsonako.

Erritualki eta festa-giroan, berriro eskuratu da gure egunetan mugarri-ikustea: irailaren azken larunbatean egiten da, oraindik ere erreferentziatzat San Migel eguna (irailak 29) hartuz. Aurreneko bi urteetan (1990 eta 1991ean) zazpi partetan banatu zen udalerriaren perimetroa, baina hirugarren ediziotik aurrera 6 partetan finkatu zen:

1. Ergobia-Mandazubi
2. Mandazubi-Olazar
3. Olazar— Azketa
4. Azketa-Naparralde
5. Naparralde-Malmazar
6. Malmazar— Ergobia

Hernaniren muga-herriak dira: Donostia, Lasarte-Oria, Urnieta, Elduain, Arano, Errenteria eta Astigarraga, eta urtero bidaltzen da jendea horietako batekin dauzkagun mugarriak ikustera: 1990an Astigarraga izan zen, eta *mugarri* sinboliko bat jarri zen beste udalerrietan; 1991ean Lasarte-Oriakoak berrikusten dira; 1993an Elduaingoak; 1994an Aranokoak; 1995ean Donostiakoak, 1996an Errenteriarekin mugante diren mugarriak bisitatu ziren.

Aurreneko lau edizioetan dianarekin hasten zen eguna, goizeko 7,30ean, eta Gudarien Plazan bukatzen zen, pintxoak eta sagardoa Udalaren kontura hartuz; bitartean trikitixa batek alaitzen du festa-bukaera. 1993an, bisitak bai egiten dira, baina festarik ez.

Talde bakoitzari entregatzen zaio, bakoitzari bisitatzea tokatzen zaion eskualdean teorikoki egon behar duten *mugarrien* fitxa deskriptibo bat, han ikus ditzakeen aldaketak oharteman daitezen.

Aitor dezagun, azkenik, Mugarri-Festa antolatzeko meritua Mendiriz-Mendi Elkartearena dela, eta hau, partehartzaileen kopuru-zifrek adierazten duten bezala, borrokan ari dela hura sendotu dadin: 1990an 50 pertsona izan ziren bertan parte hartu zutenak, 1991an 60, 1993an 27, 1994an 18, 1995ean 73, eta 1996an 51.

tocino, vino, sidra y pan. Ocasionalmente aparecen entre los gastos los desayunos consumidos antes de la partida. También había danzantes, para quienes se disponía de un azumbre de vino (unos 2,5 litros por hombre).

Con carácter ritual y festivo, la visita a los mojones ha sido recuperada en nuestros días: se celebra el último sábado de septiembre tomando todavía como referencia la festividad de San Miguel (29 de septiembre). En los dos primeros años, 1990 y 1991, se dividió el perímetro del término municipal en siete partes, pero a partir de la tercera edición quedó fijado en seis:

1. Ergobia-Mandazubi
2. Mandazubi-Olazar
3. Olazar-Azketa
4. Azketa-Naparralde
5. Naparralde-Malmazar
6. Malmazar-Ergobia

Las poblaciones limítrofes de Hernani son Donostia-San Sebastián, Lasarte-Oria, Urnieta, Elduain, Arano, Rentería y Astigarraga, y cada año se destina a revisar los mojones compartidos con una de ellas: en 1990 fue Astigarraga y se puso un *mugarri* simbólico en los límites con los restantes municipios; en 1991 se revisaron los de Lasarte-Oria, los de Elduain en 1993, Arano en 1994, Donostia-San Sebastián en 1995, y en 1996 se visitaron los mojones lindantes con Rentería.

Durante las cuatro primeras ediciones la jornada se iniciaba con diana a las 7,30 de la mañana y terminaba en la Plaza de los Gudaris con pintxos y sidra a cargo del Ayuntamiento, mientras una trikitixa amenizaba el fin de fiesta. Desde 1993 se hacen las visitas, pero no hay parte lúdica.

A cada grupo se le entrega una ficha descriptiva de los *mugarris* que teóricamente debe haber en la zona que les corresponde visitar, al objeto de que tomen nota de las modificaciones que se aprecien.

Reconozcamos, finalmente, que el mérito organizativo de la Mugarri Festa corresponde a la dinámica Sociedad Mendiriz-Mendi que, como muestran las cifras de participación, está luchando por su consolidación: en 1990 participaron 50 personas, 60 en 1991, 27 en 1993, 18 en 1994, 73 en 1995 y 51 en 1996.

# HALAKOAK IZANGO GARA, HALA IKUSTEN BAGAITUZTE

Valois-ko Isabel erregina, Felipe II.aren emazte gaztea, 1565eko apirilean gure probintziatik zehar Baionara, Katalina de Medicis bere ama, Frantziako erreginarekin elkar-ikuste bat egitera zihoala, egundoko iraultza eta lo-galtzeak sortu ziren probintzian, erregin-jarraigoari behar zen bezalako harrera adiguritsua egiteko. Batzar Nagusiek, hainbat bileratan, giza mobilizaioak xedatu zituzten eta munta handiko gastuak ere bai; ordena eman zuten jendea gariz, haragiz eta bestelako janariz horni zedin, eta gainera zenbait konponketa ere egin beharrak zeuzkaten herrietan, galtzada eta bideetan[281]. Elkar-ikustearekin Katalinak espero zuen, berreskuratuko zuela Felipe II.aren konfiantza, izan ere, gorte frantsesak ez baitzuen erreprimitu nahi izan heresia kalbinista eta ez baitzituen efektibo egin Trentoko Kontziliaren dekretuak ere (1565). Zoritxarrez Baionan ez zen ezertxo ere konpondu eta beste piska bat gerotxoago beste erlijio-gerra bat lehertu zen, hugonoteena; honek lehen baino gehiago urrunduko ditu bi erreinuak, eta areago konplikatuko zen oraindik egoera, doña Isabelen heriotz goiztarra zela medio (1568ko urriak 13).

Gipuzkoako Batzarrak jarduteko protokolo zorrotz bat ezarri zuen eta seinalatu, eskualde bakoitzetik zenbat bizilagun armatuk joan behar zuten harrera egitera. Hala, Hernanik konpainia bat antolatuko zuen "gizon aukeratuekin", Asteasuk 24 gizon jarriko zituen, Aiak 60, Urnietak 10, denak arkabuzeroak, munizio eta morroinekin. Agintzen

[281] DIEZ DE SALAZAR FERNÁNDEZ, L.M., AYERBE IRIBAR, M.R., *Op.cit.*, IV. alea, VII. or.

# ASI SOMOS, SI ASI NOS VEN

El paso por nuestra provincia en abril de 1565 de la reina Isabel de Valois, joven esposa de Felipe II que iba a Bayona para entrevistarse con su madre la reina de Francia Catalina de Médicis, produjo una auténtica revolución en la provincia y no pocos desvelos para agasajar con dignidad al cortejo real. En diferentes reuniones las Juntas Generales dispusieron movilizaciones de hombres y también cuantiosos gastos, dieron orden para el abastecimiento de trigo, carnes y otros alimentos, y para distintos arreglos en villas, calzadas y caminos[281]. Con la entrevista Catalina esperaba recuperar la confianza de Felipe II, después de que la corte francesa se negase a reprimir la herejía calvinista y a hacer efectivos los decretos del Concilio de Trento (julio 1565). Desgraciadamente nada se resolvió en Bayona y poco después estalla otra guerra de religión, la de los hugonotes, que distanciará aún más a ambos reinos, lo que se complica tras la temprana muerte de doña Isabel (13 de octubre de 1568).

La Junta guipuzcoana estableció un férreo protocolo de actuación y señaló cuántos vecinos armados de cada comarca debían acudir al recibimiento. Así, Hernani organizaría una compañía con los "hombres más escogidos", Asteasu pondría 24 hombres, 60 Aya, 10 Urnieta, todos arcabuceros, con munición y morriones. Se ordena que no lleven banderas, sino que se les entregará una con los símbolos de la provincia, al tiempo que se nombran comisarios para comprobar que en las distintas zonas se preparase suficiente ganado vacuno, ovino y caprino, tocino, cecina, pan, cebada, avena, paja,

[281] DIEZ DE SALAZAR FERNÁNDEZ, L.M. AYERBE IRIBAR, M.R. *Op.cit.* Tomo IV, p. VII.

da, ez dezatela banderarik eraman, baizik eta bandera bat entregatuko zaiela probintziako sinboloekin; aldi berean, komisarioak izendatzen dira, egiaztatzeko, eskualde desberdinetan egon dadila behar hainbat behi-azienda, ardi— eta ahuntz-azienda, urdai, zezina, ogi, garagar, olo, lasto, baba; bitartean beste delegatu batzuk galtzadak, bideak eta zubiak aztertzen arituko ziren, eta konpondu egingo zituzten hala behar izanez gero. Ostalariek ordena hartu zuten, izan zezatela arropa ugari, ona eta garbia, eta pertsonentzako janaria eta zaldieriarentzako pentsua[282].

Urte batzuk geroago, Felipe III.ak zeharkatzen du gure probintzia mugara bidean, han bere alaba Ana Austriakoa, 14 urteko infanta, entregatzeko; hau Ludovico de Borbon-ekin ezkonduko zen, geroko Luis XIII Frantziakoarekin; honek ere beste mobilizazio bat sortu zuen, honi ere harrera egin eta adiguri zerbitzeko. Errege-jarraigoa Leintz Gatzagatik sartu zen 1615eko urriaren 30ean; han agintariak eta aitoren semeak zeuzkaten zain. Handik Arrasatera pasatzen da, eta burdinola bat bisitatzen du; ilunabarrean Juan Ibañez Hernanikoak aterbetu zituen Oñatiko bere etxean gaua pasatzeko. Hurrengo egunean, Santu Guztien eguneko mezaren ondoren, Urretxuraino egin zuten bide, eta hurrengo bi bidaldietan Ordizia eta Tolosaraino. Erregearen taldea Hernaniko Agustinen komentuan geratu zen bazkaltzeko, non Iruñeko gotzaina atera baitzitzaien ongi etorri ematera. Arratsasaldeko 3etan Donostiara abiatu ziren[283].

Felipen V.a 1701eko urtarrilaren 24an iritsi zen Hernanira; D. Juan Antonio de Leizaur-en etxean hartu zuen ostatu, ordu batzuetan atseden hartzea beste asmorik gabe. Baina egundoko euriteak izan baitziren, hiru egun gelditu beharrean aurkitu zen gure artean.

Eta 1599ko maiatzean, gortera zihoazen bi estudiante aleman, zorte txarrak eraginda, espia ingelestzat jo zituzten Hernanin, eta bertako bizilagun batzuek proposatu zuten, ezen egia jakiteko modurik onena zela, berekin zekarten morroi asturiarra torturatzea. Hala kontatzen dute, bere albiste idatzian, "Iornany"-n sartzekoan izan zuten trago txarra[284]:

[282] *Ibidem*. IV. alea, 9-18 or.

[283] MARTÍNEZ DE ISASTI, Lope. *Op.cit.*, 277 or.

[284] *Dos alemanes en Vasconia: Mayo de 1599*. Gasteizko Aurrezki-Kutxa Munizipala. Gasteiz, 1972. 12. fol.

habas, mientras que otros delegados se ocuparían de examinar las calzadas, caminos y puentes y de su arreglo si fuera necesario. Los mesoneros recibieron orden de disponer mucha, buena y limpia ropa, así como alimentos para personas y pienso para las caballerías[282].

Unos años después, Felipe III cruza nuestra provincia camino de la frontera para entregar allí a su hija Ana de Austria, infanta de 14 años de edad, quien casaría con Ludovico de Borbón, el futuro Luis XIII de Francia, lo que motivó una nueva movilización para su recibimiento y agasajo. El cortejo real entró por Salinas el 30 de octubre de 1615, donde le esperaban autoridades y gentilhombres. De allí pasa a Mondragón, deteniéndose a visitar una ferrería, y al anochecer Juan Ibáñez de Hernani les acogió para pernoctar en su casa de Oñate. Al día siguiente, tras la misa de la festividad de Todos los Santos, viajaron hasta Villarreal y las dos siguientes jornadas les llevaron a Villafranca y Tolosa. La regia expedición se detuvo a comer en el convento de las Agustinas de Hernani, donde salió a darles la bienvenida el Obispo de Pamplona. A las 3 de la tarde partieron para San Sebastián[283].

El 24 enero de 1701 llega a Hernani Felipe V, aposentándose en casa de D.Juan Antonio de Leizaur con intención simplemente de reposar unas horas. Pero, por culpa de las grandes lluvias, el monarca tuvo que quedarse tres días entre nosotros.

En mayo de 1599, dos estudiantes alemanes de camino hacia la corte tuvieron la mala suerte de que en Hernani fueron tomados por espías ingleses, y algunos vecinos propusieron que lo mejor para saber la verdad era torturar a su criado asturiano. En su relato escrito hablan del mal trago que pasaron al entrar en "Iornany"[284]:

> "Pero después habiendo pasado aquel río que se llama Brunzo (se refieren al Urumea) y que va a San Sebastián, y subiendo un poco arriba de la montaña, de continuo se descubre mucha gente atrás dando voces. Nosotros no sabiendo qué querrían, guardamos un poco hasta que llegaran y eran algunos labradores y aldeanos, el Alcalde y el Clérigo, los quales mostrando la vara de la Justicia, preguntaban qu gente éramos de aquel estado y officio y qué negocios teníamos para aquí; y si no harto recado trujiamos de nuestra tie-

[282] Ibídem. Tomo IV, pp. 9-18.

[283] MARTÍNEZ DE ISASTI, Lope. *Op.cit.*, p. 277.

[284] *Dos alemanes en Vasconia: Mayo de 1599*. Caja de Ahorros Municipal de la Ciudad de Vitoria. Vitoria, 1972. Fol. 12.

"Baina gero, Brunzo deitzen den erreka (Urumea alegia) pasatu ondoren, Donostiara doan erreka da hori, eta piska bat mendian gora igo ondoren, hautematen dugu jende asko datorrela gure atzetik dehadarka. Guk ez baikenekien zer nahi zuten, itxoin egin genuen piska batean, haiek iritsi arte; eta nekazari eta baserritar batzuk ziren, alkatea eta Klerikoa, eta Justiziaren makila erakutsiz, galdetzen zuten, ea zer jende-modu ginen gu, zein estatu eta ofiziotakoak ginen eta zer negozio genekarren inguru hauetan; eta bestela nahiko enkargu genekarrela gure herritik, gure nagusien baimenarekin joan ginela Espainietara eta beste mila jakingarri; eta argi eta garbi aditzera eman ziguten, haien ustez, ingelesak eta traidoreak ginela gu, eta horregatik nire morroia torturatu nahi zutela aurrena. Asturiarrak (morroiak) erantzun zien, bera espaniarra zela eta orain Flandestik hona zetorrela, eta gu estudiante alemanak ginela, eta Espainiako Erregearen gortera joan nahi genuela hari zerbitzera eta gure ahaideekin hitz egin nahi genuela, alegia Espainiako Erregina doña Margarita Austriakoarekin etorri zirenekin. Klerikoa orduan latinez hitz egiten hasi zitzaien, eta gure bidaiaren arrazoia galdetzen zigun; nik erantzun nion, Salamancara joateko asmotan ginela, han denboraldi batean estudiatzeko, eta Lisboan eta Sevillan ziren Merkatari Alemanentzako truke-gutunak erakutsi nizkion, eta gure arrazoiak ikusirik libre utzi ziguten bideari jarraitzen".

Artois-ko Kondeari, Frantziako Erregearen anaia, eta geroago bera ere, Karlos X. izenarekin, errege izango zenari festa-omenaldi handi bat egin zioten 1782an Hernanira iristean[285]. Hain ostalari garaiarentzat eta horren jarraigoarentzat Zarautz eta Getariako *arrantzaleei* eskatu zitzaien arrain freskoa, eta nekazari-produktuak eta haragia Astigarraga, Andoain, Urnieta eta Tolosari. Logelak prestatu ziren herriko bizilagunen etxeetan, ondo-ondo garbitu zen plaza, girlandekin eta bizilagunek utzitako altzariekin apaindu zen Udaletxea, eta are bigantxa-korridak ere egin ziren. Kondeak sarrera handiosoa egin zuen apirilaren 14ko egunaren arratsaldeko 8etan, aurretik zituela, kasu hartarako kontratatu ziren *ezpatadantzariak*, musikalariak eta klarinak, bitartean eskopeta-tiroak botatzen ziren eta kanpai bueltakoak jotzen. Doña Rosa de Aragorriren jauregira pasatu zen afaltzera, eta gero, kontzeju-etxetik, apaindua baitzegoen sego eta oliozko kandelekin, dantza-erakusketa bat ikusi zuen. Ahalegin ekonomikoa izugarria izan zen. Hernanik 13.938 erreal xautu behar izan zituen[286].

[285] H.U.A. E/1/1/6.

[286] MURUGARREN ZAMORA, Luis. *Hernani, su historia e instituciones. Op.cit.*, 3. or.

rra que con licencia de nosotros superiores fuimos para las Españas y otras infinitas curiosidades, dando a nosotros expresamente entender que tuviesen opinión de ser Ingleses y traidores, y por esto querrían primeramente tormentar mi criado. El Asturiano (el criado) respondió que él era Español viniendo agora de Flandes y nosotros estudiantes alemanes, que quisieran ir a la Corte del Rey de España para su servicio y hablar a nuestros parientes que vinieron con la Reyna de España doña Margarita de Austria. Pues el Clérigo comenzó a hablar latín y preguntar la causa de la nuestra viaje, al cual respondí yo que éramos concertado para ir a Salamanca y estudiar allí por algún espacio, mostrando las cartas de cambio dirigidas a los Mercaderes Alemanes en Lisboa y Sevilla, de manera que habiendo nosotros razón dejaron nosotros pasar libremente nuestro camino".

El Conde de Artois, hermano del Rey de Francia, y más tarde él mismo monarca con el nombre de Carlos X, fue objeto de un gran homenaje festivo al llegar a Hernani en 1782[285]. Para tan augusto huésped y su séquito, se pidió pescado fresco a los *arrantzales* de Zarautz y Getaria, y productos agrícolas y carnícos a Astigarraga, Andoain, Urnieta y Tolosa. Se prepararon habitaciones en el vecindario, se limpió a fondo la plaza, se adornó el ayuntamiento con guirnaldas y muebles prestados por los vecinos e incluso se corrieron vaquillas. Hizo el conde solemne entrada a las 8 de la tarde del 14 de abril, precedido de 59 *ezpatadantzaris,* músicos y clarines contratados para la ocasión, mientras sonaban salvas de escopeta y volteaban las campanas. Pasó a cenar al palacio de doña Rosa de Aragorri, y después, desde la casa concejil, engalanada con luces de sebo y aceite, presenció una exhibición de bailes. El esfuerzo económico fue enorme, pues Hernani tuvo que desembolsar 13.938 reales[286].

¿Y cómo era la Hernani que descubrieron los nobles viajeros franceses? Una ilustrativa manera de conocer las costumbres de la época es a través de los mandatos municipales, especie de reglamento de convivencia que cada año, el 1 de enero, el concejo examinaba y enmendaba, haciéndolos públicos el primer domingo a la hora de la misa mayor desde el púlpito (en euskera para que todos lo entendieran, aunque la escritura ante notario se hacía en castellano), y por lo cual el rector recibía una pequeña gratificación. Los mismos mandatos y con idéntico procedimiento se publicaban en el barrio de

[285] A.M.H. E/1/1/6.

[286] MURUGARREN ZAMORA, Luis. *Hernani, su historia e instituciones. Op.cit.*, p. 3.

Eta nolakoa zen bidaiari noble frantsesek aurkitu zuten Hernani hura? Garai bateko ohiturak argiro ezagutzeko bide bat udal-mandatuen bitartez egiten dena izaten da; elkarbizitzako erregelamenduaren gisako bat izaten zen hau, udalak, urtean behin, urtarrilaren 1ean, aztertzen eta zuzentzen zuena, gero, aurreneko igandean, meza nagusitan ematen ziren argitara jendaurrean pulpitutik (euskaraz eman ere, denek uler zitzaten, nahiz eta notario aurreko eskritura gazteleraz egiten zen), eta horregatik ordainsari koskor bat jasotzen zuen erretoreak. Mandatu berak, eta prozedura berarekin, Lasarteko auzoan argitaratzen ziren. Conde de Artois-koaren bisita baino urte batzuk lehenago, 1766ko urtean, honako hauek izan ziren Hernaniko manuak[287]:

1. Inor ez da ibiliko arrazoirik gabe gauez kalean, eta irrintzi egiterik ere ez da egongo arimetako kanpaia jota gero (iluntzean), 500 marabediko eta hiru eguneko kartzela-zigorraren azpian.

2. Inork ez du arma, labana eta antzekorik eramaterik izango.

3. Tabernariek eta ostalariek kontzejuan fielatutako neurriak (hau da ikuskatutakoak) erabili behar dituzte ardoa eta sagardoa saltzeko; ez dute salduko "queda"ko kanpaia jota gero (ilunabarrean egiten zen hori), ez dute jokorako kartarik utziko, eta ez dute ardo edo sagardorik salduko meza nagusia, bezperak, prozesioak eta arrosarioa bitartean. Agindua ez betetzeagatik 500 marabediko zigorra ezarriko da aldiko.

4. Ez da inor ibiliko pilotan, kartatan, eta bola-jokoan meza ematen, eta bezperak, arrosarioak edo prozesioak egiten diren bitartean, dukat baten eta bi eguneko kartzela-zigorraren azpian aldi bakoitzeko.

5. Jai-egunetan inork ez du lan egingo, behi eta idi uztartuekin, edo beste era batera parrokoaren baimenik gabe.

6. Bete egingo dira lutoari eta jantziei buruzko errege-ordenak.

7. Zilarrezko bi erreal t'erdirekin zigortuko da elizan edo leku santuetan ilea lotuta sartzen dena.

8. Ogi-labariek ohizkoa kobratuko dute beren lanagatik, eta okinek legezko pisuarekin egingo

[287] O.P.A. III. atala, 1.371. leg., 1. fol.

Lasarte. Unos años antes de la visita del Conde de Artois, el año 1766, los mandatos de Hernani fueron los siguientes[287]:

1º. Nadie podrá sin causa justa andar de noche por las calles ni cantar "ni relinchar" después del toque de oración de Ánimas (al anochecer) so pena de 500 maravedís y tres días de cárcel.

2º. Nadie podrá portar armas, cuchillos y similares.

3º. Los taberneros y mesoneros deben utilizar para la venta de vino y sidra las medidas afieladas por el concejo (es decir inspeccionadas); no venderán tras el toque de "campana de queda" (la que se hacía al caer el día), no facilitarán naipes de juego, ni venderán vino o sidra en tiempo de las misas mayores, vísperas, procesiones y rosarios. El castigo por incumplimiento era de 500 maravedís por cada vez.

4º. Que nadie juegue a la pelota, naipes, ni bolos durante el tiempo de celebración de misas, vísperas, rosarios o procesiones, pena de un ducado y dos días de cárcel por cada vez.

5º. Que los días de fiesta nadie trabaje con vacas, bueyes uncidos ni de otra forma sin licencia del párroco.

6º. Que se cumplan las ordenes reales sobre los lutos y trajes.

7º. Se penará con dos reales y medio de plata a quien entre en la iglesia o lugares sagrado con el pelo atado.

8º. Que los horneros de pan cobren por su trabajo lo acostumbrado, y las panaderas amasen panes con el peso establecido y lo saquen del horno bien cocido, pues si no lo hacen serán multados.

9º. Que ni en despoblado ni en caserío alguno se toque el tamboril ni otro instrumento alguno sin que esté presente el señor alcalde, como ordena Su Majestad.

10º. Que ninguna persona que tenga en venta vino o aguardiente lo saque tras el toque de la campana de queda, pero sí servirá por orden del médico o del cirujano de la villa.

11º. Se recuerda el título 27 de los Fueros de la Provincia, que decía que sólo pueden ser invitados en misas nuevas, funerales y bodas los

[287] A.P.O. Secc. III. Leg. 1.371, fol. 1.

dituzte ogiak, eta ondo erreta aterako dute labetik, bestela zigortuak izango dira.

9. Ez despopulatuan eta ez baserrian joko da danbolin edo bestelako musika-instrumenturik, alkate jauna presente egon gabe, Bere Maiestateak agintzen duen bezala.

10. Ardoa edo pattarra salgai daukanak ez du aterako "queda"-ko kanpaia jota gero, baina emango du herriko medikuak edo zirujauak aginduz gero.

11. Gogora ekartzen da Probintziako Foruetako 27. atalburua, zeinak esaten baitu, meza berri, hileta eta ezkontzetara gonbida daitezkeenak, hirugarren mailarainoko ahaideak bakarrik direla, bataioetara gonbida daitezke, aitajauna, amandrea eta beste sei pertsona gehienez ere.

12. Udal barruko mugapean inork ez du arbolarik eta adarrik moztuko eta egurrik ere ez du inork txikituko kontzejutik kanpora erabiltzeko, udalaren baimenik gabe; eta horrelakorik egiten duena salatzen duenari saria emango zaio.

13. Kontrabandogileei edo errege-errentak iruzurtzen dituztenei ez bekie inork aterberik eman, eta beren etxeetara joaten bazaizkie, abisua pasatuko diote justiziari.

14. Inork ez du tabakorik ereingo, ez du parterik hartuko ez tabakoa erosten edo saltzen, ez berdetan eta ez igartuta gero, isunaren azpian.

Gaspar Melchor de Jovellanos, politikari eta idazle famatuak 1791ean bisitatu zuen Hernani, Donostiatik zaldiz etorrita. Hango elizaz, esaten baitu baduela katedral izateko adinako duintasuna, honela idazten du:

> "Arkitekturazko erretaula, eskulturak oso hala-moduzkoak, presbiterioan. Ebanjelioaren aldean Juan de Urbieta ospetsuaren hilobia, Frantzisko I. Frantziakoa Pavian preso hartu zuen harena: mihisean idatzitako inskripzioa, benefiziarioak kopiatu zuena, Karlos V.aren zedularekin, zeinetan eman baitzion armarria eta agian testamentua eta beste memoria batzuk".

Gainera atentzioa deitzen diote, pasealekuak, elizaren atzekaldean dagoen arboladi ederrarekin, hango pago altuek, pilotalekuak, plazak eta herriaren atzekaldean dagoen erriberak. Hitz hauekin deskribatzen ditu Tolosako merkatura zihoazen gizonak:

> "alkandora garbi-garbia zeramaten jantzita, ehunezko edo oihalezko prakak, besogabeko gerruntzea, baietazkoa edo artilezkoa, horrekin txamarra

parientes hasta el tercer grado, y para los bautizos el compadre, la comadre y hasta seis personas.

12º. Que en los términos concejiles nadie corte árbol, ramas, ni siquiera leña para uso fuera del concejo, sin licencia municipal, y a quien delatare a otro que lo estuviera haciendo se le gratificará.

13º. Que nadie dé abrigo a contrabandistas o defraudadores de las rentas reales, y si se llegasen a sus casas pasen aviso a la justicia.

14º. Que nadie siembre tabaco, ni participe de compras o ventas ni en verde ni en seco, so pena de multa.

Gaspar Melchor de Jovellanos, famoso político y escritor, visitó Hernani en 1791, adonde llegó a caballo desde San Sebastián. Sobre su iglesia, de la que dice tiene dignidad de catedral, escribe:

> "Retablo de arquitectura, esculturas muy medianas, en el presbiterio. Al lado del Evangelio la sepultura del célebre Juan de Urbieta, que prendió a Francisco I de Francia en Pavía: inscripción en lienzo que copiara el beneficiario con la cédula de Carlos V, en la que concedió el blasón y acaso el testamento y otras memorias".

Además le llama la atención el paseo con su preciosa arboleda situada tras la iglesia, con altas hayas, el juego de pelota, la plaza y la vega a la espalda del pueblo. Describe a los hombres que iban al mercado de Tolosa con estas palabras:

> "vestían camisa bien limpia, calzón de lienzo o paño, justillo sin mangas, de bayeta o de estameña, una chamarra con ella al hombro, nunca puesta, albarcas o alpargatas con peales de márraga negra con listas blancas o al contrario; en la cabeza, sombrero o montera achatada en lo alto, algunos con gorra flamenca, tejida, resto de los antiguos bonetes.
>
> Las mujeres con justillo, en mangas de camisa, medio pañuelo al pecho (que es por lo común escaso), saya de bayeta o lienzo pintado, mandil de tetilla del Bearn negra y encarnada, a cuadros, de graciosa vista en la cabeza, pañuelo blanco extrañamente atado. Son de regular estatura, algunas muy altas, ágiles y limpias, aunque no me parecen serlo tanto como las vizcainas".

La reina regente Dª María Cristina de Austria vino a Hernani el 19 de agosto de 1887 para comprobar los daños sufridos durante la última guerra carlista. A la entrada se le colocó el tradicional arco de honor, y salieron a recibirle las autoridades de la

bat sorbaldan, inoiz ere ez jantzita, abarkak edo apretak marraga beltzezko mantarrekin eta goaita zuriekin, edo alderantziz; buruan kapera edo montera goiko partean zanpatua, batzuek txano flamenkoa, ehioa, antzinako kaperen gerakina.

Emakumeak gerruntzearekin, makutsetan, paiñolo-erdi bat bularrean (jeneralean gutxitxo baita), baieta edo oihal pintatuzko gona, Biarnoko mantal tetilladuna, beltza eta gorria, koadrokikoa; buruan, ikusi ederrekoa, pai edo apretak marraga beltzezko mantarrekin eta goaita zuriekin, edo alderantziz; burugarbiak, nahiz eta bizkaitarrak bezain garbiak iruditzen ez zaizkidan".

Erregina erregentea, Maria Kristina Austriakoa, 1887ko abuztuaren 19an etorri zen Hernanira, azken gerra karlistakoan jasandako kalteak ikustera. Sarreran ohorezko arku tradizionala jarri zitzaion eta garai hartako agintariak atera zitzaizkion harrera egitera. Elizan Te Deum bat entzun ondoren, eskolak eta asiloa bisitatu zituen jarraigoak, eta Barrenetxea Jeneralaren etxea ere bai. 1894ko abuztuaren 30ean egin zuen beste bisita bat Maria Kristinak, eta errege-familia osoak 1900go urtean[288].

[288] BLAS DE ZULETA, Luis. *Hernani entre dos guerras: 1872-1936. Medio siglo de vida en Hernani.* Hernaniko Udala. 1985. 53. or. eta hurr.

época. Después de escuchar un Te Deum en la iglesia, la comitiva visitó las escuelas y el asilo, así como la casa del General Barrenetxea. El 30 de agosto de 1894 volvió a girar visita a Hernani Dª María Cristina, y la familia real al completo en 1900[288].

[288] BLAS ZULETA, Luis. *Hernani entre dos guerras: 1872-1936. Medio siglo de vida de Hernani.* Ayuntamiento de Hernani, 1985, pp. 53 ss.

# OROITZEKO HERNANIARRAK

### Martin Perez de Alcega (XIV. mendea)

Probintziako zaldun nagusienetako bat eta Gaztelako errege Henrike II.aren zerbitzarietako bat izan zen XIV. mendearen erdialdera.

### Martin Perez de Alcega (XIV. mendea)

Aurrekoaren semea da eta Martin Perez de Alcega "bigarrena" bezala ezagutzen dena. Gaztelako erregeen zerbitzari izan zen hau ere. Bere alaba bakarra, Maria Lopez de Alcega utzi zuen oinorde legitimotzat. Miguel Lopez de Amezqueta y Lazcano, Amezketako oinetxe eta jauregiko jauna izan zen, horrela bi leinuak elkartuz.

### Juan Lopez de Amezqueta y Alcega (XV. mendea)

Amezqueta eta Alcega titulu komunaren aurreneko oinordekoa; oinaztarren bandoko ahaide nagusietako bat izan zen, eta horregatik Henrike IV.ak haren dorre-etxe zaharra lurreratzeko agindu zuen, zeina esaten denez Hernani bera sortu baino lehenagokoa baitzen. Geroztik zerbitzu handiak egin zizkion koroari.

### Gonzalo de Percaiztegui

Datu bakarra daukagu pertsonaia honetaz eta ez da batere baztertzekoa; Aita Larramendik dioenez, hauxe izan zen penintsulan artoa sartu zuena[289].

> "Artoa (garia baino) egokiagoa da Gipuzkoan; Indietatik ekarri zen aurreneko aldiz probintzia

[289] LARRAMENDI, Manuel de. *Corografía o descripción general de la Muy Noble y Muy Leal Provincia de Guipúzcoa*. "Sociedad Guipuzcoana de Ediciones y Publicaciones". Donostia, 1969, 58. or.

# HERNANIARRAS PARA LA MEMORIA

### Martín Pérez de Alcega (siglo XIV)

Fue uno de los caballeros principales de la provincia a mediados del siglo XIV, y servidor del rey Enrique II de Castilla

### Martín Pérez de Alcega (siglo XIV)

Hijo del anterior y conocido como Martín Pérez de Alcega "el segundo". Sirvió también a los reyes de Castilla. Dejó a su única hija, María López de Alcega, como legítima sucesora. Casó con Miguel López de Amézqueta y Lazcano, señor de la casa solar y palacio de Amézqueta, uniéndose así ambos linajes.

### Juan López de Amézqueta y Alcega (siglo XV)

Primer heredero del título común de Amezqueta y Alcega, fue uno de los parientes mayores del bando oñacino, por lo que el rey Enrique IV mandó demoler su antigua casa torre, que se dice era anterior a la creación misma de Hernani. Posteriormente prestó grandes servicios a la corona.

### Gonzalo de Percaiztegui

Sólo poseemos un dato, pero no desdeñable, sobre este personaje, que al decir del Padre Larramendi fue el introductor del maíz en la península[289]:

> "El maíz es más útil (que el trigo) en Guipúzcoa; trajóse desde Indias la primera vez a esta provin-

[289] LARRAMENDI, Manuel de. *Corografía o descripción general de la Muy Noble y Muy Leal Provincia de Guipúzcoa*. Sociedad Guipuzcoana de Ediciones y Publicaciones. San Sebastián, 1969, p. 58.

honetara, eta Gonzalo Percaiztegui, Hernaniko semeak ekarri zuen; gero hemendik beste probintzia batzuetara komunikatu zen".

## Martin Ibañez de Hernani (XVI. mendea)

Juan Ibañez de Hernaniren ondorengoa, eta Portuetxea edo Portuzabaleko oinetxeko jauna. Indietan aberastu zen eta ezkongabe hil zen bertan. Veracruz-en (Mexikon) egin zuen testamentua 1544ko uztailaren 11an; agindu zuen memoria bat fundatu behar zela Oñatin dontzella umezurtz edo alargunak ezkontzeko, eta beste obra piadoso batzuk ere fundatu zituen, 3.000 dukaten onurak banatzeko.

## Juan de Urbieta (? — 1553)

Hernaniko seme guztietan ospetsuena Juan de Urbieta izango da apika. Pertsonaiarekin gogo beroturi, lerro batzuetan zirriborrotu zuen haren biografia Lope Martinez de Isastik, bere aurretik izan ziren kronistek idatzitakoa bilduz[290].

> "Hiri honetan jaio zen Juan de Urbieta kapitain famatu hura, Frantziako Errege Frantzisko Paviako batallan (Lombardian) atzeman zuena, hantxe elkartu baitziren bi armada handiak, Karlos Bosgarrena enperadorearena eta Frantzisko Errege aipatuarena. Frantzisko Erregea, garaitua izanik eta inork ezagutu gabe erreka batera erretiratzen ari zela, Juan de Urbieta (orduan gerra-gizon zena) iritsi zen harenganaino beste espainiar batzuekin eta zaldia hil zioten, eta nor zer antz eman ziotenean, berehala errenditu zen eta preso hartu zuen Urbietak; zabalago ageri da hau erregearen ziurtagirian, zeina erromantzera itzulirik honela baitio:
>
> 'Frantzisko, Jainkoaren graziaz Frantziako Errege naizen honek: jakitera ematen diegu tokatzen zaien guztiei, ezen Juan de Urbieta, D. Hugo de Moncada jaunarena, izan zela, nire arriskuan aurkitu ziren aurrenekoetakoa, gu Paviaren aurrean preso hartu gintuztenean, eta bere ahal guztiarekin lagundu zigula bizia salbatzen, obligatuak baikaude horregatik; eta orduan eskatu zigun askatasuna eman geniezaiola aipatu Hugo Jaun bere nagusia zenari; eta hau egia delako, gure eskuz izenpeturik eman genuen idazki hau. Pizquetos-en 1525eko Martxoaren lauan. Frantziskok'.
>
> Armarriaren pribilegioa Enperadoreak eman zion Boloñan, 1550eko Martxoaren 20an, pergaminoan ageri den bezala, non esaten baita, ezen Joanes de Urbietak Italian eta Napolesko Erreinuan gerretan zerbitzu ziolako, bere burua edozein arriskutan jarri eta benturatuz, eta batez ere bere armadak Frantziako Erreinuan 1525eko urte-

[290] MARTÍNEZ DE ISASTI, Lope. *Op.cit.*, 527. or.

cia, y lo trajo Gonzalo Percaiztegui, natural de Hernani, y se comunicó después a otras provincias".

## Martín Ibáñez de Hernani (siglo XVI)

Descendiente de Juan de Ibáñez de Hernani, señor de la casa solar de Portuechea o Portuzabal. Se enriqueció en las Indias y murió allí soltero. Testó en Veracruz (México) el 11 de julio de 1544, mandando fundar una memoria en Oñate para casar doncellas huérfanas o viudas, así como otras obras pías para que se distribuyesen los beneficios de 3.000 ducados.

## Juan de Urbieta (? - 1553)

De todos los hijos de Hernani quizás sea Juan de Urbieta el más renombrado. Entusiasmado con el personaje, Lope Martínez de Isasti trazó en unas líneas su biografía, recogiendo en ella lo escrito por los cronistas que le antecedieron[290]:

> "De esta villa fue natural aquel famoso capitán Juan de Urbieta que prendió al Rey Francisco de Francia en la batalla de Pavia (que es en Lombardía) a donde se juntaron los dos insignes ejércitos del Emperador Carlos Quinto, y del mismo Rey Francisco, el cual siendo vencido, retirándose sin ser conocido hacia un río, llegó a él Juan de Urbieta (que entonces era hombre de armas) con otros españoles y le mataron el caballo, y conocido quien era, luego se rindió y fue preso por el Urbieta, como más extenso parece por la misma certificación del Rey que dice así traducido en romance:
>
> 'Francisco por la gracia de Dios Rei de Francia. Hacemos saber a todos aquellos a quien tocare, que Juan de Urbieta, del Señor D. Hugo de Moncada fue de los primeros, que se hallaron en mi riesgo, cuando fuimos presos delante de Pavia, y nos ayudó con todo su poder a salvar la vida, en que le estamos en obligación; y entonces nos pidió diésemos libertad al dicho Señor Hugo su amo, nuestro prisionero; y porque esto es verdad, dimos firmado la presente de nuestra mano. En Pizquetos a cuatro días del mes de Marzo de 1525. Francisco'.
>
> El privilegio del escudo de armas le concedió el Emperador en Boloña en 20 de Marzo de 1550 como parecen en pergamino, en el cual dice que por haberle servido Joanes de Urbieta en Italia y Reino de Nápoles en las guerras, poniendo y aventurando su persona a todo peligro, especialmente en la batalla que su ejército ovo en el Reino de Francia el año de 1525, de Pavia que es en

[290] MARTÍNEZ DE ISASTI, Lope. *Op.cit.*, p. 527.

an izan zuen Paviako batailan (Lombardian baita hori); non bere gogoko izan baitzuen Gure Jaunak bere armadari garaipena ematea, Frantziako Erregea preso gelditzen zela, eta hilak eta preso beste Printze asko ere, eta une hartan D. Hugo de Moncada kapitainaren konpainiako gerra-gizona izaki eta haren jada hildako kontseilukoa; Frantziako Errege hori errendiarazi eta preso hartu zutenetako bat izan zen; eta esaten du, horrela jakin zuela berak, horretarako bide izan zituelarik, haren eskuz sinatutako ziurtagiria, aipatu Enperadorearen aurrean aurkeztu zuena, eta bere armadakoak izan ziren kapitainen gutun eta informeak, eta horretaz guztiaz ondo ere ondo informatua zegoen; eta zerbitzu horiek guztiengatik armarritzat ematen zion, ezkutu bat bi partetan partitua, eta bertan erditik behera figuraturik zaldi-erdi bat erditik aurrera, kanpo berde batean, koroa bat lepotik sartuta duena, lilihori bat bularretan eta erditik gora beso armatu bat, ezpata eskuan duela, erreka baten bazterrean, eta ezkutuaren gaikaldean, kasko bat bere lumajeekin, eta tinbretzat arrano inperiala.

Bere Maiestatearen kapitaina izan zen, 1532an pergaminoan emandako beste pribilegio batean jasota dagoenez. Pribilegio hauek bere eskutan zeuzkan hasiera-hasieratik, Erregearen aipatu ziurtagiriarekin batera, Dª Marta Alzarizagakoak, Sebastian de Urbieta kapitainaren alargunak, Madrilen bizi baitzen, eta berak erakutsi zizkidan. Kapera propioa dauka Donostiako Santa Maria elizako klaustroan. Espainiako historietan oroitarazten da Gipuzkoar ospetsu hau, eta batez ere Karlos Bosgarrena Enperadoreari buruz Sandoval Gotzainak idatzi zuen hartan, eta gero D. Juan Antonio de Verak horrentzat idatzi zuen Epitomean; eta hori baino lehen, Doktor Gonzalo de Illescas-ek Historia Pontifikalean egin zuen haren aipua hitz gutxi batzuetan, esanez: aurrena iritsi zirenek eta berak esaten dute, Diego de Avila eta Juan de Urbieta "vizcaino"a izan zirela, eta bereziki Alonso de Pita de Aveiga gallegoa, Sarria markesaren etxekoa, zeinari armatzat eman baitzitzaizkion, amapola bat eta gurutze bat Lignum Crucis-arengatik, gurutzea Erregeak berak eman zion'. Esteban de Garibaik (Probintzian jaioa zen arren) inolako berotasunik gabe kontatzen du gauza nola izan zen. Hala dio Errege honetaz ari dela:

'D. Hugo de Moredaren konpainiako arma-gizon batek atzeman zuen; Juan de Urbieta zuen izena, eta Hernanin jaioa zen, Gipuzkoako Probintziako hiribildu batean. Bataila honetan ia espero ez zen garaitzearen ospe eta gloriarik handiena, Aquino-ko D. Fernando de Avalos, Pescarako markesari zor zaio, inoiz behar bezala goratua izan ez den kapitaina baita hau, lerro maskulinotik D. Ruy Lopez de Avalos, Gaztelako Condestable izandakoaren birbiloba, etab.'.

Kasu hau, hala ere, Garibaik baino luzeago, Juan Martinez de Zaldivia Batxilerrak, Tolosan jaioa

